

Zu hemen zaude.

goiena



DEBAGOIENDARREN FILMAK KURSAALEKO AGERTOKIAN

'La trinchera infinita' –sail ofizialean– eta 'Agur, Etxebeste!' Donostia Zinemaldian estreinatuko dira / 40

Aitor Arregi oñatiarra eta Asier Altuna bergararra, *La trinchera infinita* eta *Agur, Etxebeste!* filmen zuzendariak, Donostian, atzean Zinemaldiko agertoki nagusia dutela. NEKANE MUÑOZ



Oñatiko Udaleko Kirol zinegotzi Maite Anton izango da Mankomunitateko presidentea / 3

Gabonetarako egongo da erabilgarri Torresoroa aretoa, hiru hilabete iraungo dute-eta lanek / 30

Aranguren aita-seme oñatiarrek irabazi dute goitibeheretako Euskal Liga, Galdakaon domekan gailenduta / 38

 + Debagoiendarrak, unibertsitatean hasi berrikan
Afagi elkarteko Koldo Aulestiari elkarrizketa

Arrasateko elizkoiak "minduta" daude gotzainarekin, jaramonik ez diela egin iritzita / 12

SINADURAK	
 IDOIA SANCHEZ / 18	 ASIER ELORZA / 26
 LURTI AMIANO / 8	 ALAITZ JAUREGI / 31
 NEREA MAKAZAGA / 12	 MIKEL IRIZAR / 48
 PERU ABARRATEGI / 16	


ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA
ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

SKODA KODIAQ

DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!
Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea, 30 • ARRASATE • 943 71 18 70

"Kartzelak husteko garaia da, ez betetzekoa"

EKAIN ZUBIZARRETA 11/13 SUMARIOKO AUZIPETUA

47 auzipetuek akordioa sinatu dute Espainiako Auzitegiarekin, eta leporatzen zaizkien delituak onartu dituzte; bik izan ezik, beste guztiek kartzela saihestuko dute

Amaia Zabala Tolosa ARRASATE

Herrira-ko kideak, Etixerat-ekoak, presoan osasunaz arduratzen den Jaiki-Hadi elkartekoak, abokatuak eta bitartekariak dira 11/13 sumarioko 47 auzipetuak. Horien artean, Ekain Zubizarreta arrasatearra, "presoan eskubideen alde" lan egitearren epaitua. Fiskalak 601 urteko espetxe zigorra eskatua zuen, guztira, eta "erakunde terroristak kide" izatea leporatzen zien auzipetu guztiei, baita ETA finantzatzea ere horietako askori. Akordioarengatik, baina, aldatu egin ditu leporatzen zaizkien delituak – ETako kide izatea eta terrorismoa goratzea –, eta, Arantza Zulueta eta Jon Enparantzak izan ezik, beste guztiek kartzela saihestu dute.

Akusazioak onartzeko akordio kolektiboaren aukera mahai gainean jarri zaizue eta onartu egin duzue. Zein balorazio egiten duzue?

Estrategia politiko bezala, argi geneukan etorkizunera begira jarri nahi genuela, ez genuela iraganeko egoeretan eta estrategietan katramilatuta jarraitu nahi. Gainera, uste dugu une honetan kartzelak husteko garaia dela, eta ez betetzekoa. 45 pertsonak kartzela ekiditearekin, herri hau, atzera beharrean, aurrera begira jartzea lortu dugu,



Ekain Zubizarreta, 11/13 sumarioko 47 auzipetuetako bat. GOIENA

nahastu nahi gaituzten estrategien aurrean etorkizunari atek irekitzea, hain zuzen. Hala ere, horrelako akordio bat beti da gazi-goza. Izan ere, oso akusazio gogorak gure gain egitea ekarri du eta, gainera, bi kidek kartzelara joan behar izana ekarri du; beraz, kontraesan batzuk sortu dizkigu.

Erabakia kolektiboa izan da, orduan? Bai, guztion artean adostua. Akordioaren aukera itxita egin da hilabete luzez, eta, ondoren, prozesua baten ostean aukera hori irekitzen joan da; fiskala-

rekin harremanak izan ziren eta hor bide bat ireki zen. Azken orduan, guk fiskalarekin adostua genuenaren inguruko adostasuna jaso dugu parte guztien aldetik, eta, azkenean, astelehenean gauzatu zen akordio hori. Baina esan behar da azken ordura arte ez dugula eduki ezer lotuta eta hiru hilabeteko epaiketa luze baterako prestatuta geundela. **Kartzela-zigorra saihestu duzue, Arantza Zulueta eta Jon Enparantzak izan ezik, baina, edozelan ere, ondorio batzuk izango dituzue; hiru urterako inhabilitazioa, esate ba-**

terako. Zure kasuan, zertan eragingo dizu?

Nire kasuan, urte eta erdiko espetxe-zigorra ezarri didate, baina bi urte baino gutxiago izanik ez naiz kartzelaratu izango. Hori bai, datozen hiru urteetan beste delitu bat egiteaz akusatatu eta zigortuko banindute, pena guztiak gehituko lirarteke eta kartzelara joango nintzateke. Horretaz gain, hiru urteko inhabilitazio osoa, horrek esan nahi du kargu publikoetarako ez nukeela aukerarik edukiko. Beraz, nire kasuan ondorioak ez dira hain larriak, baina epaiketa honetan gurekin dauden hainbat kidek, lanpostu publikoak dutenek, hain zuzen, galdu egingo dute. Orduan, ondorio larriak ekarriko ditu, nahiz eta espetxea ekidin ahal izan dugun, esan duzun bezala, Jonek eta Arantzak izan ezik.

Uda osoan babesa adierazteko ekitaldiak egin dituzue Euskal Herri osoan; azkena, larunbatean Bilbon egindako manifestazio jendetsua. Milaka lagunek egin zuten bat Giza eskubideak. Askatasuna. Etorkizuna. Herrian lelopean. Herritarrengandik babestuta sentitu zarete?

Hitzik gabe gaude, sekulako babesa izan da, orokorrean; herrietan, bai guk eta baita gure senitartekoez ere jaso duten babesa izugarria izan da. Elkartasun hori horrelako prozesu batean txanponaren alde polita dela esan dezakegu. Balorazio oso-oso positiboa egiten dugu eta oso eskertuta gaude.

Amnistiaren Aldeko eta Erreprezioaren Aurkako Mugimenduak, aldiz, "katakstrofikotzat" jo du akordioa eta herritarrekin "zintzoak ez izana" eta "iruzur" egin izana egotzi dizue. Ze iritzi duzu honen inguruan?

Ez nago batere ados irakurketa horrekin. Azken batean, onartu

duguna ETaren strategiaren mesedetan ibili izana da, baina momentu honetan ETarekin ez dago, Herrira suspendituta gertatzen da, baina ondoren etorri diren eragileek jarraitzen dute presoan eskubideen aldeko lana egiten. Gure auzian dauden Etixerat eta Jaiki Hadi elkar-teetako kideek, abokatuak, medikuek, lan bera aurrera eramaten jarraitzen dute. Beraz, guk onartu dugunak ez du ekiditen erabat zilegia zen eta den lan hori. Esaten dutenak ez du zentzurik. Gu lasai gaude egin dugun akordioarekin, eta edozein lekutan defendatuko dugu. Bestalde, inongo momentutan ez dugu ukatu akordioaren aukera aztertuko genuenik, eta argitu behar da ez genuela ziurtasunik, eta akusazio partikularren onespina epaiketa hasi baino egun gutxi batzuk lehenago jaso genuela. Azken egunetako kontua izan da.

Behin auzi hau amaituta eta kaptulu hau itxita, zer egitea tokatzen da orain?

Auzi honetara ekarri gaituena presoan eta iheslarien eskubideen zein gatazkaren konponbideren aldeko lana izan da, eta arretera hor jarri nahi genuke; izan ere, eskubide urraketa eta sufrimendu handia dago eremu horretan oraindik ere. Auzipetuok, modu batera edo bestera, eskubideen aldeko lanean jarraituko dugu, xumexume, beste milaka herritarrekin batera.

"AKORDIO GAZI-GOZOA IZAN DA, AKUSAZIO GOGORRAK ONARTU BEHAR IZAN BAITITUGU"

Euskararen erabilera 5,6 puntu igo da Euskaraldiaren ondoren

Gorakada orokorra izan da Euskaraldiko parte-hartzaile guztien artean; handiena, ordea, 'ahobizi'-ek egin dute

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte izan zen Euskaraldiaren lehen edizioan, 225.154 herritarrek hartu zuten parte, eta orain, ariketa soziolinguistikoko horren inpaktua neurtzeko ordua da.

Soziolinguistika Klusterrak Eusko Jaurlaritzaren enkarguz egin duen ikerketaren arabera, Euskaraldiaren parte-hartzaileen hizkuntza-erabilera "aldaketa handiak" eragin zituen ariketaren hamaika egunetan, eta, hiru

hilabete geroago, aldaketa horiei "proportzio altuan" eutsi zaie.

Euskaraldia I. Emaizen azterketa lanaren aurkezpena EHUKo Gipuzkoako campusean egin da, eta bertan izan da Elena Laka, Euskaltzaleen Topaguneko presidentea, besteak beste, zeinak irekitako bidearen garrantzia nabarmendu duen: "Euskaraldiaren lehen edizioak balio izan du hizkuntza ohiturak aldatzen hasteko. Euskaraldia abiatu genuenean bagenekien, eta halaxe adierazi genuen, hizkuntza

ohiturak aldatzea eta gizartearen aldaketak egitea epe luzearako lana dela. Ikerketa honek berretsi egin du adierazitakoa: Euskaraldia lehen urrats bat izan da hizkuntza ohituren aldaketan, eta orain, aldaketa gauza dadin eragina handitzen jarraitu behar dugu. *Ahobizi* eta *belarriprest* jokoerak sakondu behar ditugu, eremu berrietara zabaltu beharra dago, eta gizartearen eta era guztietako erakundearen babesa eskaini behar diogu euskaraz bitztea erabakitzen duen per-

tsona orori. Hori izango da hurrengo euskaraldien helburua". Euskaraldiaren bigarren edizioa 2020ko udazkenean egitea aurreikusten da.

Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak ere euskararen kaleko erabilera neurtu zuen Euskaraldiaren iraun zuen bitartean, eta adin tarte guztietan "igoera" gertatu zela ondorioztatu zuten. Hala ere, bi adin-tartetan izan zen "igoerarik nabarmenena", 0-14 eta 25-64 adin tartekoan artean "10 puntu" igo baitzen.

Maite Anton, presidente berria Mankomunitatean

Debagoieneko Mankomunitateko ordezkariak batzar nagusia egin zuten irailaren 17an, martitzenean, eta bertan, presidentea eta presidenteordea hautatu zituzten bozketa bidez. Bestalde, Suradesa erakundeko ordezkariak ere berriro zituzten

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA
Maite Anton Oñatiko Udaleko Kirol zinegotzia izango da Debagoieneko Mankomunitateko presidente berria. Izan ere, Antonek Unai Elkoro ordezkatu du; hura lau urtez izan da postu horretan.

Mankomunitateak hamasei ordezkari ditu, eta herrien biztanle kopuruaren arabera aukeratzeko dituzte. Hala, Arrasatek lau ordezkari ditu, Bergarak eta Oñatik hiruna, Aretxabaletak bi eta Eskoriatzak, Antzuolak, Elgetak eta Gatzagak bana. Agintaldi honetan EH Bilduk gehiengoa izanik, presidentea ere alderdi horre-

takoa izango da, batzordekideek erabaki baitute.

Presidente berriak jakinarazi du albistea "arduraz baina aldi berean pozik" hartu dela: "Erronka handia da, baina gogotsu eta pozik hartuko dudan erronka. Eskualde mailan daukagun taldearekin batera lan egiteak berme eta indar handia ematen dit. Izan ere, talde aditua da oso. Freskotasunez eta ideia berriekin gatzoz. Benetan pozik nago osatu dugun taldeaz. Mankomunitateko batzorde osoarekin elkarlanean, Debagoienarentzako ahalik eta ondoen lan egitea da gure asmoa".

Antonek gaineratu du Mankomunitatearen lehen pausoa "batzordeak definitzea eta eratzea izango dela. "Horretan lanean dihardugu jada", gaineratu du.

Kortabarria, presidenteorde

Mankomunitateko batzar nagusia martitzenean, irailak 17, egin zuten, eta, botazio bidez presidente kargua hautatzea gain, presidenteorde kargua ere hautatu zuten. Kargu hori Beñardo Kortabarria Antzuolako alkateak hartuko du, baina aldi baterako izango da; izan ere, hark batzordeko kargua utziko du, eta, ondorioz, Antzuolako Udaleko zinegotzi batek ordez-



Maite Anton, Mankomunitateko presidente berria. GOIENA

katuko du. Honela azaldu du Antonek: "Oraingoz, Beñardo Kortabarria izango da lehendakariordea, nahiz eta, gerora, Antzuolako beste zinegotzi batek kargua hartzea aurreikusi dugun. Hala ere, oraindik ez dugu definiturik hau noiz izango den. Momentuz, Beñardorekin batera hasiko naiz lanean eta joango gara pixkanaka gauzak zehazten".

Suradesa erakundea

Batzarrean, Suradesa erakundeko ordezkariak ere hautatu zituzten: presidente kargua Gorka Artolak hartuko du, presidenteorde kargua Izaro Elortzak eta idazkari kargua, berriz, Iraitz Lazkanok. Bizitegi-ondarearen birgaitze eta berroneratzea sustatzeko Debagoieneko eskualdean sortutako enpresa publikoa da Suradesa. Horretaz gain, kapi-

mondragonLingua

YOUR BEST training

apunta zaituz!

- Metodo pertsonalizatua Lingua Campusarekin.
- Aurrez aurreko eta sareko eskolak.
- Azterketen prestaketa.

OÑATI
Motxon kalea 7.
943 71 60 00 • mloinati@mondragonlingua.com

ARRASATE
Araba etorbidea 4.
943 71 20 55 • mlarrasate@mondragonlingua.com



Ikus-entzuleek, egokitzenak egin ostean, berriz sintonizatu beharko dute telebista. JAGOBA DOMINGO

Berriz sintonizatu beharko da telebista

Espainiako Gobernuak ekainean onartu zuen espektroradioelektrikoko 700 MHz banda liberatzeko errege dekretua; banda horren zati handi bat lurralde telebista digitalak okupatzen du seinalea hedatzeko, eta 5Ga garatzeko libratu beharko dute

Eneko Azurmendi ARRASATE

Bigarren Dibidendu Digitala edo 700 MHz banda libre uztea onartu zuen ekainean Espainiako Gobernuak, "5G teknologiari espazioa uzteko eta banden eta frekuentzian erabilera eraginkorragoa izateko" helburuarekin.

Europar Batasunak onartutako proiektu bat da, eta, era berean, "ezinbesteko prozesu bat 5G teknologia garatzeko". Europar Batzordeak 700 MHz banda libre uztearen garrantzia azpimarratu du, "landa-eremuetan konektagarritasuna bermatzeko eta banda zabalaren zerbitzuen prestazioa izateko".

Errege dekretuak zehazten duenez, Bigarren Dibidendu Digitala libre geratu beharko da 2020ko ekainaren 30a baino lehen. Hori dela eta, zenbait telebista katek frekuentziak aldatu beharko dituzte ordurako. Egun horretatik aurrera, beraz, 700 MHz banda libre geratuko da 5G teknologia erabiltzen duten gailuendako.

Egokitzenak antenetan

Modu horretan, hainbat telebista ikusten jarraitu ahal izateko, aldaketa edo egokitzen batzuk egin beharko dira. Etxebizitza indibidualetan eragina txikia izango da, eta, telebista berriz sintonizatuta, nahiko izango da.

Antena kolektiboak, berriz, frekuentzia berrietara egokitu beharko dira. Frekuentziak jasotzeko bloke osoko hartze-sistema edukiz gero, frekuentzia berriak konfiguratu beharko dira. Frekuentziak banan-banan jasotzeko hartze-sistema edukiz gero, berriz, frekuentzia berriak jasoko dituzten moduluak jarri beharko dira. Egokitzen horiek instalatzaile batek egin beharko ditu, eta haren zerbitzua ordaindu.

ANTENA KOLEKTIBOAK DUTENEK 2020KO EKAINAREN 30A BAINO LEHEN EGOKITU BEHARKO DUTE

pekoa izango da. Dena den, gaurtik aurrera dirulaguntzak eskatu ahal izango dira www.televisiondigital.gob.es webgunean dago horri buruzko informazioa. Gero, telebista berriz sintonizatu beharko da.

Goienari ere eragingo dio

Aldaketa honek telebista batzuei eragingo ez dien arren, beste batzuek frekuentziaz aldatu beharko dute, eta Goiena telebista da horietako bat -52 kanalek 25 kanalera pasatuko da-.

Frekuentzia aldaketa apurka-apurka gertatzen ari da, eta telebista kate batzuk aldi berean igortzen ari dira bi frekuentzietan, zaharrenean eta berrian, 2020ko ekainaren 30era arte. Orduan, frekuentzia zaharrak funtzionatzeari utziko dio. Beraz, tarte horretan egin beharko dute egokitzena herritarrek. Goiena telebistak soilik frekuentzia zaharrenean igorriko du, aldaketa egin arte. Hala ere, lehenago abisatuko ditu ikus-entzuleak.



Eguaztenean aurkeztu zuten Euskal Private Market Place, Gasteizen. TOKIKOM

Interneteko publizitate zerbitzu aurreratuena, euskaraz

Publizitate programatikoa euskaraz egitea ahalbidetuko du, eta sortzaileek berau erabiltzeko deia zabaldu dute

E.A. ARRASATE

Publizitate programatikoa euskaraz egitea ahalbidetuko duen Euskal Private Market Place produktu berria aurkeztu diete asteon Eusko Jaurlaritzak, EITBk eta Tokikomek euskal medioetan iragarkiak jartzen dituzten publizitate-agentzia eta iragarleei. Sortzaileen esanetan, publizitate espazioak erosteko azoka moduko bat da Euskal PMP, euskarazko edukietan espezializatua, eta euskarazko edozein mediok hartu ahal izango du parte. "Azpiegitura berri honek orain arte itxita zeuden atek irekitzen ditu euskarazko komunikabide digitaletan publizitate askoz ere modu erraz eta eraginkorragoan egin ahal izateko", azaldu dute.

Diotenez, publizitate klasikoaren logika erabat aldatu da medio digitalen etorrerarekin, "eta iragarleek erabiltzaile tipologia-

ren arabera erosten dituzte espazioak, eta ez hedabidearen arabera". Salmenta horiek publizitate programatikoa bidez egiten dira, haien esanetan, eta webguneen argitaratzaileek azoka birtual moduko batzuetan jartzen dituzte haien publizitate espazioak. "Orain arte, euskarazko medioek ez dute parte hartzerik izan azoka horietan, eta publizitate gabe geratzen ari ziren". Beraz, euskarazko edukien azoka izango da Euskal PMP.

Erabiltzeko deia

Arduradunek tresna erabili eta ondo aprobetxatzeko deia egin diete, alde batetik, iragarle eta agentziei, euskarazko publizitate gehiago egin eta Euskal PMP berri hau baliatzen hasteko; eta, bestetik, euskarazko komunikabideei, euren publizitate espazioak ere azoka berrian eskaintzeko.

Eroskik tokiko produktuen salmenta igo du EAEn

Eroskik tokiko barazkien, hariaren eta arrainaren salmenta igo du urteko lehen seihilekoan Euskal Autonomia Erkidegoan. Arrandegian saltzen duena %10 igo da eta barazkien atalean saltzen duena, berriz, ia %9. EAEko sektore ekonomiko guztiak aintzat hartuta, 1.900 hornitzaileekin ari da lanean autonomia erkidegoan, eta 650

milioi eurotik gorako salmentak ditu urtero.

Nabarmendu beharreko beste igoera bat jogurt eta esne freskoarena izan da, seihilekoan ia %20 igoera izan dutelako. Igoera antzekoa izan dute eztiak eta arrain kontserbek ere.

Horrez gain, aipatzekoa da sagardoaren salmentak %7 igo direla. Euskal Sagardoa ziguilua-ekin egiaztatua dagoen kalitatezko sagardo bati bere marka jarri dion lehenengo banaketa katea izan da kooperatiba.

Errepresio frankista jasan zutenak gogoan

Debagoiengan frankismoaren errepresioa jasan zutenei omenaldia egingo diete irailaren 26an, Jose Maria Arizmendiari plaza, Intxorta 1937 Kultur Elkartearen eta Debagoieneko udalen ekimenez; guztira, 122 pertsona omenduko dituzte

Eneko Azurmendi ARRASATE

Datorren egunean izango da omenaldia, 19:00etan hasita, Debagoiengan erail edo desagerrarazi zituztenen omenez 2003an jarri zuten monolitoan. Aurten, gainera, aurrez zegoen zerrendari sei izen gehituko dizkiote: Isidro Monge eta Victor Uribe-Echeverria aretxabaletarrena, Blas Unamuno bergararrarena, Guillermo Ugarte oñatiarrarena, Dimas Aranzeta elgetarrarena eta Eusebio Menchaca arrasatearrarena. Hori dela eta, irailaren 26tik aurrera, 122 izen izango dira monolitoan.

Omenaldian zehar, sei pertsona horien senideek Iñigo Arregiren eskultura bat jasoko dute ibarreko alkateen eskutik, baita Francisca Garciak ere. "Gaur egun, 84 urte ditu Franciscak. Urtebete zeukala, Arrasateetik ihes egin behar izan zuen, eta datorren egunean jaioterrira itzuliko da, gurekin egoteko. Hunkigarria izango da, sekula ez da eta Arrasatera itzuli", adierazi du Julia Mongek, Intxorta 1937 Kultur Elkarteko kideak.

Gerturatzeko dei egin dute

Erregimen frankistaren ondorioen aurrean justizia aldarrikatu gura dute omenaldiarekin, eta, horretarako, bertsoekin,



Atzo, eguna, egin zuten omenaldiaren aurkezpena, Kulturaten. TXOMIN MADINA

Zerrendan sei izen gehiago

- Isidro Monge Alonso
- Victor Uribe-Echeverria Bengoa
- Blas Unamuno Amuchastegi
- Guillermo Ugarte Aeta
- Dimas Aranzeta Etxezarreta
- Eusebio Menchaca Turiel

lore eskaintzekin, dantzekin eta musikarekin osatutako ekitaldia osatu dute. Eskualde osoko artistek hartuko dute parte, esaterako, internazionala abesten.

Antolatzaileek debagoiendar guztiei egin diete ekitaldian parte hartzeko dei, eta zehaztu dute, era berean, datorren egunean eguraldi txarra egiten badu, Biteri plazara aldatuko dutela omenaldia.

Bestalde, esan behar da Goiena telebistak osorik grabatuko duela ekitaldia, hurrengo egunetan eskaintzeko.

Lubaki Langile Elkartasun Sarea sortu berri dute Bergaran

"Kapitalismoak eragindako desoreken aurrean elkar babestea" da xedea, eta parte hartzeko dei egin dute

E.A./J.B. BERGARA

"Gaur egun bizi dugun desoreka eta segurtasunik eza honetan, gure defentsarako lubakiaren eraikuntzari ekin diogu. Lubakian antolatuko dugu gure defentsa eta elkar babesteko dugu jasaten dugun eraso bakoitzaren aurrean", adierazi dute.

Krisiaren ostean egoera "nabarmen" okertu dela diote: "Nabarmena da langileok pairatu dugun bizi baldintzen okertzea eta honen adibide garbi ditugu etxegabeteak, langabezia, aldi baterako lan prekarioak... Bizi dugun desoreka eta segurtasunik eza honetan, gure defentsarako lubakiaren eraikuntzari ekin diogu. Lubakian antolatuko dugu gure defentsa eta elkar babesteko dugu jasaten dugun eraso bakoitzaren aurrean".

Jardunaldi batzuk antolatu dituzte iraila eta urria bitartean

eta jardunaldion helburu nagusia izango da eragile berria ezagutzera ematea.

Bailara mailako sarea helburu

Hala, Debagoien mailako sarea osatzea dute helburu. "Hasiara batean, Bergara mailan antolatu gara, baina gure helburua bailara osora zabaltzea da. Aurten, lan arloko, genero eta etxebizitza problematikak lantzeko lan-ildoak jarriko ditugu martxan. Etorkizunean gai gehiago jorratzeko asmoa dugu, betiere, gure behar eta gaitasunen arabera. Gai konkretuak lantzeko dinamika eta heziketa politikorako hitzaldi, mintegi eta mahai-inguruak ere antolatuko ditugu".

Ekimenaren "aurkezpen sako-nagoa" egingo dute urriaren 19an, Irizar jauregian, 17:00etan. Informazio gehiago Goiena.eus webgunean dago.

Aurkezpen jardunaldien egitaraua

Irailak 22, domeka

- 18:00 *Genero problematika klase ikuspuntutik* hitzaldia.

Irailak 28, zapatua

- 12:00 *Etxebizitza problematika* mahai-ingurua, gaztetxean.

Urriak 5, zapatua

- 17:30 *Soldatapeko lana* mahai-ingurua, gaztetxean.

Urriak 19, zapatua

- 17:00 Batzar informatiboa eta aurkezpena, Irizar Jauregian.
- 22:00 Kontzertuak, gaztetxean.

DONOSTIAKO ZINEMALDIA

GOIENA TELEBISTA, ERREPORTAJEA

IRAILAREN 20AN, EGUBAKOITZEAN, 23:00ETAN

DEBAGOIENDARRAK ZINEMALDIAN: AITOR ARREGI ETA ASIER ALTUNA

goiena
Zu hemen zaude.



Eskualdeko enpresak Alemaniako EMO azokan

Soraluce, Danobat eta Fagor Automation enpresak fabrikazio industrialerako azken belaunaldiko soluzioak aurkezten ari dira EMO azokan, Hannoverren, Alemanian. Metalurgia industriaren sektorean dagoen azokarik garrantzitsua da egun

Amaia Zabala Tolosa DEBAGOIENA

Irailaren 16tik 21era bitarte, EMO Hannover azoka egiten ari dira Alemanian, metalurgia industriaren barruan munduan izaten den azokarik garrantzitsua, hain zuzen.

Nazioarteko ehunka enpresa joan dira hara fabrikazio industrialerako azken belaunaldiko soluzioak aurkeztera, eta tartean badira bailarako enpresak ere: Soraluce, Danobat eta Fagor Automation.

Soraluce, 860 metro koadro

Bergarako Soraluce enpresak azoka baliatuko du mekanizazio arloan duen soluzio multzoa erakusteko eta baita bere zerbitzuak eskaintzeko ere. Horretarako, 860 metro karratuko erakusketa-gunea erabiliko du; hots, fresatzeko makinen pabiloiko erdigunean dagoen azalaririk handiena: B38 standa, 13. pabiloia.

Enpresaren ezaugarriak dira berrikuntza eta puntako teknologien garapena, eta, horren erakusgarri, hiru makina eta zazpi teknologia aurkeztuko ditu. Gainera, zuzeneko zortzi erakustaldi ere eskainiko ditu #MadeForYOU kontzeptu berriaren baitan.

Bergarako enpresak –Soraluce TR-M– funtzio askotariko zentro berria eraman du EMO azokara, makina berean fresa, tornu eta artezketa eragiketarik biltzen dituen. Horretaz gain, Soraluce FP 8000 zutabe mugikorrek fresatzeko-mandrinatzeko makina ere erakutsiko dute. Makina horrek bost ardatzetan mekanizatzen bi ardatz jarraikorrek buru berria darama. Gainera, Soraluce PGM 14000 fresatzeko portiko gantry makina ere eskainiko du, "dimentsio handietako osagaien zuzeneko doitasun handia eta produktibitatea eskaintzen dituen soluzioa".



Fagor Automation enpresaren stand-a Alemaniako EMO azokan. NAIARA MADARIAGA

IRAILAREN 16TIK 21ERA BITARTE IRAUNGO DU EMO HANNOVER 2019 AZOKAK, ALEMANIAN

Danobat, zortzi makina

Together beyond challenges leloarekin, Danobatek azken belaunaldiko eta balio teknologiko handiko zortzi makina aurkeztuko ditu azokan egun hauetan. Hiru erabat automatizatuak, eta doitasun handiko artezketa eta torneaketa prozesuak gauzatzeko sortuak. Konpainiak bere zerbitzu aurreratuen eskaintza aurkeztuko du, eta baita teknologia digitalen baterakuntza ere.

Bergaran lantokia duen Elgoibarko enpresak 700 metro karratuko erakusketa-gunea izango du –D-45 standa, 11. hall-a–, eta bertan, guztiz automatizatu-tako sistema aurkeztuko du. "Erreminta eta teknologia digitalak garatzeko dugun gaitasunarekin sortu ahal izango dugu gure bezeroen lehiakortasuna handitzen uzten duen zerbitzu eskaintza bat, etorkizuneko in-

dustriaren erronkei erantzuna emateko", esan du Danobateko zuzendari nagusi Xabier Alzagak.

Fagor Automation, "oso pozik"

Fagor Automation enpresak, berriz, kontrol eta neurketa sistemei dagozkien azken aurrerapenak aurkeztu ditu EMO azokan, prestazio handiko makinei soluzio integralak emateko xehetasunez diseinatu dituen soluzio berriak, hain zuzen.

Quercus CNC automatizaziorako sistema berri bat eta 3 Statech posizionamendurako sistema teknologiko berria dira Fagor Automatiok EMO 2019 azokan aurkeztu dituen bi proiektu berritzaileak, besteak beste.

Zuzeneko erakustaldiak ere ari dira eskaintzen Fagor Automatioko profesionalak, eta atzokoarekin oso pozik geratu zirela azaldu du Naiara Madariaga komunikazio arduradunak: "Atzoko ekitaldia, esaterako, enpresei zuzendua zen eta bost kontinenteetatik etorritako jende hurbildu zen: Taiwango, Koreako, Txinako, Alemaniako eta Portugalgo jendea izan genuen, besteak beste, baita euskaldunak ere. Oso pozik geratu ginen".



Oñatiko alkatea botoa ematen Eudelen Batzar Nagusian. BARREN

Izaro Elorza, Oñatiko alkatea, Eudel-en batzordean egongo da

Euskadiko Udalen Elkarteak (Eudel) batzorde eragile berria izendatu zuen atzoko batzar nagusian

Amaia Zabala Tolosa OÑATI

EH Bilduk, EAJk eta PSE-EEK Euskadiko Udalen Elkarteak (Eudel) batzorde berrirako ordezkariak aurkeztu dituzte eta tartean da Izaro Elorza, Oñatiko alkatea: Eudelen Gipuzkoako Lurralde Batzordeko kide izango da, zehazki. Elorzak jakinarazi du "sorpasaz eta ilusioz" jaso zuela albisteak. "Neure zein gainerako ordezkarien betebeharrak Gipuzkoako batzordean aztertuko diren gai ezberdinen inguruan gure –EH Bilduko kideon– iritzia eta irizpideak finkatzea eta azaltzea izango da. Konpromisoz jardungo dugu, Eudelek udal jardunari egiten dion ekarpenaz jakitun", azaldu du Elorzak.

Elorza Debagoienak Eudeleko batzorde eragilean izango duen ordezkari bakarra izango da: "Egia esan, herriak dira Eudeleko bazkide, eta, beraz, badute

ordezkaritza bat Batzar Nagusietarako. Baina egia da Gipuzkoako batzorderako Debagoieneko herrietatik neu bakarrik noala. Lurralde bakoitzak bere berezitasunak dituelarik, uste dut eskualdearentzat garrantzitsua dela Eudeleko Gipuzkoako batzordean ordezkari izatea. Batzordekideak zehaztean, lurralde aniztasun hori aintzat hartu du EH Bilduk".

Gobernu-organo berriak

Euskadiko Udalen Elkarteak atzo Elgoibarren egin zuen batzar nagusian, 2019-2023 agintaldirako elkartearen gobernu-organo berriak izendatu zituen. Eudeleko 245 udal bazkideek hartu zuten parte botazioan, eta, emaitzen arabera, Gasteizko alkate Gorka Urtaran izango da Eudelen elkarte buru. Imanol Landaren eskutik jaso du aginte-makila.

Mintzapraktikak euskaltzale guztiak batu nahi ditu

TÚtik GUra. Ongi etorri Mintzalagunon Mundura! da urte honetako Mintzapraktikaren egitasmoaren leloa, eta egitasmoan izen-emateko epea zabalik da dagoeneko www.mintzalaguna.eus helbidean. Ikasturte berri honetan, gainera, Mintzapraktikak euskaltzale guztiak batu nahi ditu egitasmo honetan, "euskaraz lagunartean, modu

eraginkorrean eta giro ezin hobean aritzeko".

Mintzapraktika bospasei laguneko taldeetan elkartuta egiten da eta parte hartzeko bi baldintza bete behar dira: euskaraz komunikatzeko gai izatea eta astean ordubetek elkartzeko prest egotea.

Gaur egun, 22 herrialde desberdinetan 6.000 lagunek baino gehiagok hartzen dute parte egitasmo honetan eta urte honetan kopuru hori igotzeko asmoa dago.

GUTUNAK

Benetan ondo jokatzeko ari da justizia?

ESTHER MARTIN

ARRASATE

Egun lasai bat. Anaia, epaiketarik urduriago zebilela, egonkortuta aurkitu duzu, oheratzeko prest eta... *whatsapp*-a. Sententziaren albiste! Dardaraz hasten zara irakurtzen, nola erreakzionatu jakin gabe, ez dakizu jakinaren gainean egongo den, ez nola heldu zaion. Esan zidanez, hurrengo goizean jakin zuen, atarian; kide bat hurbildu zitzaion: "Pozik?". Berak: "Pozik, zer ba?". Zorionez, medikazioa aurreko egunetan igo egin zioten; ez zuen gogor hartu, Aita Mennin geratuko zela jakinez, geroari garrantzirik eman gabe... "Jainkozko dementzia!", pentsatzen dut askotan.

Abokatuari deitu nion eta esan zidan albisteaz azaldu zen eguneko eguerdian jaso zuela oharra: "Sinestezina da. Nire ustez, prentsak informatzen duen ofizialen bat dauka". Nori eskatu argibideak eta erantzukizuna? Dirudienez, inori ez. Legezkoa da epaiketarik bateko datuak publikatzea, administrazioen lana oztopatzen ez den bitartean. Beraz, ondorioengatik lana galdu edo tratamenduan egon behar baduzu, izorra zaitez: legezkoa da pertsonen pribatutasun eskubidea horrela kaltetzea eta jende guztiak lehenago jakitea. Guk

astebete igaro eta gero jaso dugu.

Sententziari dagokionez, kronikoa den eta holako ondorio larriak eduki dezakeen gaixotasun bat... zenbat denborako kontua da? Zenbat diru? Betikoa eskatzen dut, behar den moduan atendituta egon dadila; prebentiboki ingresatuta daraman denbora kenduta ere, hurrengo bost urteetan hala izango da. Eta gero? Ahal izango dute bere ongizate eta kontentzioa ziurtatu? Bere gaixotasuna ez da desagertuko, eta ez du eragina nigan bakarrik; arriskutsua da, bai bere bururako, baita besteendako ere, orain arteko jarraipen falta edukitzen badu.

Ea nola bideratzen den alde ekonomikoa; Gureak-en lanean hasi eta, soldata txiki batetik, konpentsaziorako, baita eskaintzen zaion tutoretza pisurako ere kopurua gutxituz, bere prekaritateari buelta eta ni, bion gastuekin eta ustekabeekin, nire ardurakoak ez diren ondorioak ordaintzen! Eta dena, Zerbitzu Psikosozialak bere momentuan behar den moduan jokatu ez zuelako eta guretzat horren kaltegarria izango ez zen moduan posible izango zela jakinez...

Kasua da gaixoa eta bere familia prekaritatearekin eta eskusio sozialarekin ez zigortzea; merezitako minimo bat dena, guretzat, lan bat

baino gehiago edukita ere, posibilitateen gainetik bizitzea denean bezala.

Mugikortasun jasangarria Arrasaten

FERNANDO OKINA

ARRASATEKO EH BILDUKO ZINEGOTZIA
ARRASATE

Mugikortasun Jasangarriaren Astearen gaudela eta, gogoeta bat egin nahi dut, bi aspektutan oinarrituz: herri barruan bizikletaz mugitzeko ditugun aukerak eta administrazioek horren inguruan hartzen dituzten erabakiak. Azkeneko urteotan, bizikletaz egin izan ditut eguneroko desplazamenduak, izan MGEpra lanera, izan aisialdirako darabildan toki nagusira, kiroldegira.

Bidegorritik egiteko aukerarik ez dagoenez, espalo, etorbide edo errepideetatik joan behar izan dut, horrek dakartzan arrisku eta eragozpenekin. Askotan pentsatzen dut uda partean herriko auzoetatik igerilekura joaten diren neska-mutikoengan. Bidegorri sare bat izango balute, bizikletaz egin ahalko lituzkete joan-etorri horiek, arriskurik gabe eta etorkizunari begira ikuspegi hezitzaile batekin.

Arrazoi pertsonalak medio, denboraldi luzeak igaro izan ditut Holandan. Dauzkaten azpiegiturei esker, holandarrak txikitatik ohitzen dira bizikletaz mugitzera, eta

txirrindularien, oinezkoen eta autoen arteko elkarbizitza kasik erabatekoa da.

Muturreko egoera liluragarri horretara iritsi gabe ere, Arrasate tropelaren bukaeran doa Debagoienera bertan daukagunarekin alderatuta. Oñatin eta Bergaran, adibidez, konponbide pentsaezinak aurkitu dituzte -bidegorriak errepidean autoekin partekatzen, espaloietan oinezkoekin partekatzen...-, ideia garbi batetik abiatu direlako: bidegorriak beharrezkoak dira baita ezinezkoak diruditen tokietan ere.

Erabakiak hartzen dituztenek borondatea dutenean konponbidea ere badago. Mugikortasun Jasangarriaren Aste bat antolatzea primeran ikusten dut, baina egunegun egin behar da ahalegina, bide publiko bat konpontzen dugun bakoitzean, irtenbide irudimentsuak bilatzen, bizikletendako aparkaleku gehiago inplementatzen...

Hau da, lehentasunezko ardatza dela onartuz, bizikleta garraibide gisa erabili nahi dugunoi erraztasunak jarriz eta, horrenbestez, oraindik egiten ez duten herritarrak horretara animatuz.

Espero dut lau urte barru idatzi hau berreskuratu eta ez ikustea oraindik gaurkotatzen duela, ez dugulako ezer egin, edo ezer gutxi.

HANDIK ETA HEMENDIK

Garaiak

ONINTZA ENBEITA

HTTPS://LABUR.EUS/ZJS8

'BERRIA'-N ARGITARATUA

Gure garaian bestelako mugimendua egoten zen kontzertuetan. Gure garaian jende gehiago ibiltzen zen tabernetan. Gure garaian musikariek dena ematen zuten ezarren truke. [...] Gure garaian, gure garaian. Eta diot nik, bizirik bazaudete hau ere ez al da zuen garaia? Norbere garaia, norbera bizirik dagoen aldi osoa izango da. [...]

Asteartean gazte eta zoro ibili nintzen Kafe Antzokian (inguruan nituenak ni baino helduxeagoak ziren). Eztarria urratu arte kantatu nuen... [...] Nire ahizpa zaharren eruz hasi nintzen ni Hertzainak entzuten, eta, gero, neure kabuz enamoratu nintzen Garik duen ez dakit zer horretaz.

Eta Josu, ba, Josu da: bat eta bakarra. Pozik esango nioke berak ohi duen ligorkeria horietako bat asteartekoak, baina ezin: mundiala zara, maestro.

Eta gero betikoa. "Onintza! Zu ere hemen?", eta harridura aurpegia. "Gaztea zara gure aldean eta kantu hauek gure garaikoak dira". Ez, ez, ez. Kantu horiek zuen gazte garaian idatzi ziren, baina jendeak kantatzen dituen bitartean, garaikoak dira: kantatzen dituenaren garaikoak.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Post gehiago 8. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

URTZI AMIANO

'Humanity (only) at music?'

Bai, larunbatean Buesan egon nintzen. Ez naiz musika aditua, ez eta ikus-entzunezko aditua ere. Baina ikusi eta entzundakoa asko gustatu zitzaidan. Atera kontuak, 6 eta 8 urteko nire semeek ez zuten behin ere galdetu "asko falta da, aitaxo?" bi ordutan zehar.

Abestiek, bertsoek, dantzek, musikak... denak oso ondo irudikatu zuen txiki-txikitatik, etxean, ikastolan, baserrian, lanean, transmititu dizkidaten gauzak, balioak. Ederra ikuskizuna, benetan.

Baina, ikuskizunetik irteetan, hainbat pertsonarekin topo egin eta iritzi piloak entzun nituen: onak, oso onak, eskasak, hala-moduzkoak... zer pentsa ere eragin zidatenak, etxera bidean eta afarian hausnarrarazi zidatenak:

Kooperatiba zer zen eta zer den, ikasitako balioak koherentziaz erabiltzen ote ditugun, kooperatiba garena batzuetan ahazten ote zaigun, jabetzen ote garen geuk egin behar dugula eta ez itxoin besteek gugatik egin dezaten...

JABETZEN OTE GARA GEUK EGIN BEHAR DUGULA ETA EZ ITXOIN BESTEEK GUGATIK EGIN DEZATEN?

Hanka bat lurrean eta bestea airean sartu nintzen ohera.

Igandean, Jainkoa lez, atsedena.

Astelehenean, 06:45ean jaiki eta kafesne soil batekin, presaren presaz lanera joan nintzen.

Bedoñako andre zoragarri batek aurreko gauean etxean eginiko patata-tortilla bikaina ekarri zidan lanera; kasualitatea, aurreko gauean egin, sobera geratu eta goizeko hamaiketarako neuri ekartzea otu.

Noski, neu, goseak amorratzen.

Eguerdiko ordu bi eta erdietan bizikleta hartu eta Asentzion gora nindoala, bizikletako errubera lehertu zitzaidan; telefono deia egiterako, laguna autoan zetorren nire bila. Bata, Laboral Kutxako langile ohia eta bestea Goienako langilea, biak kooperatibistak.

Horrelako gauzak gertatzen zaizkidanean sinesten dut benetan kooperatibismoan, hazi eta hezi gaituelako.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Erretzaileak

IZARO ANDRES

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Modan jarri zen Twitterren oximoronon jolasa. Oximoron, grezieratik: *contradictio in terminis*. Hor ibili ziren, genero-berdintasuna, eskuindar-intelektuala, eta abar, eta abar. Eta hemen nabil beste bat aurkitu ez ote dudana: erretzaile-adeitsua.

Erretzea bera iruditzen zait, hasteko, desatsegina; akaso, absurdoa. Baina libre gara gure gorputzekin zer egin nahi dugun erabakitzeke; hautua norberarena, noski. Ados. Baina fijasen hasia naiz espaloiak, hondartzak, larreak, autobus-geltokiak, terrazak, umeen-

parkeak, errepideak, zigarro-mutxikinez beteta daudela. Kotxeak ere bai, balkoitik botatuko mutxikinez beteta, lehen solairukoan terrazak. Batzuk piztuta. Zapaltzen joaten naiz kaletik, eta inguruan jende asko ez badabil, jaso egiten ditut.

Tabernetan, terrazetan, autobus-geltokietan... zenbat aldiz jan behar izan dugun ingurukook erretzailearen kea. Zenbat erre-une azalean, zein arropetan. Ze usain nazkagarri etxera heltzean. Eta esaiezu zerbait! Leku publikoetan erretzeko debekua hausteak iraultzaile on eta ausart egingo balitu bezala. Zenbat lege dauden hautsi behar direnak, bat egongo ganorazkoa eta ezin bete. Gainera, ez dut uste lege

bat behar denik halakorik ulertzeko. Ez da debekatuta dagoelako ezin duzula jendez inguratutako leku batean, inguruko bakea oztopatzen erre. Ezin duzu jendez inguratutako leku batean, inguruko bakea oztopatzen erre errespetuagatik, dezentziagatik. [...]

Beraz, egindako ikerketan lanagatik, denetik dagoen arren, oro har eta zoritxarrez erretzaile-adeitsua oximoron bat da.

Erretzeko eskubidea zurea, bai, baina kea, mutxikinak, usaina eta zaborra ere bai. Den-dena zurea. Jaso zure kaka, errespetatu ingurua.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Bereizbar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatikoko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendaria komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kultura),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Erakargarriago egin nahi dugu Garraio publikoa"

ANTONIO AIZ AZPIEGITURA ETA GARRAIO SAILBURUORDEA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Mugipuzkoa ekimena dela-eta garraio publikoaz eta tren azpiegituz dihardu.

Arrasate eta Gipuzkoako beste hainbat herri batu dira Mugipuzkoa ekimenera. Zer da?

Garraio publikoa erakargarriago egitea eta berau erabiltzeko erraztasunak ematea da helburua. Betiere, erabiltzaileak onurak atera ditzan garraio publikoa erabiltzearen. Arrasaten, esaterako, 10.000 Mugi txartel baino gehiago daude. Bestalde, Mugi txartela eskuratzeko aukera izango da aurrerantzean Mondragoeko Gazte Zerbitzuan ere.

Lurralde historiko bakoitzak bere txartela du. Bakarra noizko?

Hiru txartel ditugu: Mugi, Bat eta Barik. Baina Euskal Autonomia Erkidegoan euskal erakunde publikoen mendeko edozein garraio publikotan erabil daitezkeela hiru txartelak. Esaterako, Mugi asko erabiltzen da Gasteizko



Azpiegitura eta Garraio sailburuordea, Arrasaten, eguaztenean. GOIENA

eta Bilboko tranbietan. Helburua da izaera publikoko edozein erakunderen mendeko garraioak erabili ahal izatea txartel horiekin. Era berean, hiru txartelak bakarrean batzea.

Bilbon eta Gasteizen tranbiak, Donostian topoa... Debagoieneko tranbia erabat baztertuta dago?

Trenbide sarea Euskadiko garraio publikoaren ardatza izan dadila nahi dugu. Abiadura Handiko Trena,

hurbileko tren zerbitzua, tranbia, topoa... Eta hori beste zerbitzu batzuekin, autobusekin, eta abarrekin osatzea. Debagoieneko tranbiari dagokionez, ahalegina egin zen, baina ez zen aurrera atera, ikerketa eta proiektua, azkenean, bertan behera geratu zirelako.

Erretagarria izango da Abiadura Handiko Trena?

Lehiakortasunaren ikuspegitik, bizi kalitatearen aldetik... ezinbestekoa da. Ez dezagun ahaztu bidaiariendako ez ezik merkantziendako ere izango dela *Euskal Y*-a. Eta gaur egun, esaterako, 1 Nazionaletik egunero dabilen kamioien joan-etorria arindu egingo da, trena izango delako merkantziendako alternatiba; Gasteiz-Lille ardatzean, trena da alternatiba.

Lehtasunezkoa da Abiadura Handiko Trena Europar Batasunarendako...

Europako Korridore Atlantikoa duela 25 bultzatu zuen Europar Batasunak. Zati bat egina dago, baina beste zati garrantzitsu bat *-Euskal Y*-a barne- amaitzeko dago. Inork ez du ulertzen nola egon daitekeen XXI. mendean, trenbide muga bat Irun eta Hendaia artean. Atzerapen handiarekin gabiltza.

HAU BE BADOGU!

Badator Donostia Zinemaldia



Zinemak Donostiako kaleak hartuko ditu, beste behin, datorren astean:

@Ainhya: "Zinemaldirako sarrerak erostea posible ote?"

@larbelaitz: "Badator Zinemaldia edo SSIFF... Eta herri mugimendu ugariak kamera handien fokuetatik kanpo, Donostiako gune autogestionatueta urte urte antolatzen duten Zinemaldi Alternatiboa".

@Peio_72: "Izugarri maite dugu Zinemaldia. Baina ez dugu tratu hau merezi urtero sarrerak erostean".

Hauteskundeak, hizpide

Azaroaren 10ean Espainiako Gorteetarako beste hauteskunde batzuk egongo dira, akordiorik lortu ezin ostean. Gaia erabiltzaileen ahotsan ibili da asteon:

@saguzarra: "Hauteskundeak mundua aldatzeko. Papeleta kutxa batean sartzea rabak jan aurretik oso gogor borrokatzen duzula esateko. Hauteskundeak etsaiaren sareetan harrapatuta gelditzeko. Hauteskundeak helburu erreal bakartzat".

Hertzainak, bueltan Kafe Antzokian

Martitzenean, kontzertu berezia eskaini zuten Hertzainak taldeko Garik eta Josu Zabalak, eta #hertzainak traola *trending topic* izan da:

@josu_goiko: "Joder, hau nostalgia baino gehiago da, hau kriston kontzertua da. #Hertzainak".

@i_lejarreta: "Izugarria izan da!! #Hertzainak #EskerrikAsko".

@garoa_garoita: "Aita eta amaren talde kuttuna, gure etxeko soinu banda... Etxeko oroitzapenen soinu banda..."

ITURRI ONETIK

Saio berriak Goiena telebistan

Goiena telebista ari da udazkeneko eta neguko denboraldia prestatzen eta hainbat berrikuntza estreinatuko ditu urritik aurrera. Oraingo astean bertan abian jarri du Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren gainekoa, eta bertso-saio guztiak emango ditu. Baina etorriko dira beste saio batzuk. Debagoieneko, Tolosaldeko eta Goierriko hainbat etxe dotore barrutik ikusteko aukera izango da; *Hemen Debagoiena-k* sailak estreinatuko ditu eta *Harira* itzuliko da elkarriketa eta eztabaida formatuetan. Urrian, gehiago.

ALBISTE IZAN ZEN

2014-09-17

Eraikinen arteko trukea egiteko hitzarmena

Bergarako Errege Seminarioaren UNEDeko egoitzaren eta Arrizuriaga jauregiaren arteko trukea egiteko sinadura ekitaldia egin zuten Martin Garitano diputatu nagusiak, Iñaki Esparza Bergarako UNEDeko zuzendariak eta Jaione Isazelaia Bergarako alkateak. Diputazioak Udalarari 1.717.000 euroko dirulaguntza emateko konpromisoa ere jaso zen. Urtebetera, gobernu aldaketak izan ziren eta bertan behera geratu zen hitzarmena.





Martitzeneko prentsurrekoan hainbat lagunek hartu zuten parte. XABI GOROSTIDI

Hamalagarrena, herriko bi presoren egoera salatzen

Bihar egingo dute aldarrikapenez eta musikaz jositako Elkartasun Eguna. Atarian, Josu Arkauz eta Unai Parot presoek "salbuespen egoera" salatu dute -57 kartzela urte dituzte bien artean-, eta "mendekuan oinarritutako" espetxe politika amaitzea eskatu

Xabi Gorostidi ARRASATE

Bihar, zapatua, Elkartasun Egunaren (LKRTSN) hamalagarren edizioa izango da Arrasaten. Urtero azkena izateko bokazioz egin arren, "tamalez, antolatzen jarraitzeko arrazoi ugari" daukela azpimarratu dute antolatzaileek. "248 euskal preso politikoen euren sendeengandik ehunka eta milaka kilometrotara sakabanatuak eta isolatuak jarraitzen dute; orain ere, Espainiako zein Europako legedien aurka doazen albuespen neurri zorrotz pean. Iheslari eta errefuxiatuek ere etxera baldintza duinetan itzultzeko aukerarik gabe jarraitzen dute", azaldu dute agerraldi hasieran.

Josu Arkauz eta Unai Parot

Jarraian, Arrasateko bi presoren egoeran jarri dute fokua. "Herriari, iheslari eta deportatuek gain, bi preso ditugu, baldintza jasanezinak sufritzen: Josu Arkauz: 62 urte, Murtziako kartzelan isolatua. 28 urteko kartzela-

Egitaraua

- **11:00** Umeentzako txokoa, Biterin; 12:00etan, Txerrikumeak taldea.
- **12:45** Kontzertuak: WC, Iratin; Leire eta Eider, Ezkiñan; Letagin, Montan; Tilikum, Basatin.
- **14:30** Bazkaria, Biterin.
- **17:00** Rebel Noise, DATen; Ekhiñe Casado, Iturriotzen; Lee Kore, Jai-zalen; Bloom, Taupan; Kobrazulo, Osoriken.
- **18:00** Julene eta Irati, Hoban; Lokuria, Etxosten; Libertad Condiciona, Muxibarren; No Limits, Iluntzen; Goi & Bego, Brankan; eta 18:45ean, Leike, Kajojin eta Itzalan.
- **19:30** Manifestazioa.
- **22:00** Gaztetxean: Sindy Berbenas, Crap! eta KASS taldeen kontzertuak. 02:30ean: DJak.

zigorra beteta, libre beharko luke, baina 2022ra arteko zigorra ezarrita dauka; Unai Parot: 61 urte, Puertoko kartzelan isolatuta. 29 urteko kartzela-zigorra beteta, 2031ra arteko zigorra ezarrita dauka.

Espetxe politika aldatzea

Martitzenean Kulturaren prentsa agerraldia egin zutenen izenean adierazi dute "askatasunean biziko den jendarte batean" sinesten dutela, eta "giza eskubideen errespetuek" batzen dituztela. Hala, "mendekuan oinarritutako espetxe politika aldatzea" eskatu dute, baita hori lortzeko herritarren "bultzada eta konpromisoa". Horretarako, lau lehentasun markatu dituzte: urruntze politika amaitzea, presoak Euskal Herrira hurbilduta; Europako legediaren aplikazioz, Frantziako eta Espainiako zigorraren batura; presoek aplikatzen zaien lehen gradua kentzea; eta larriki gaixo dauden presoak duintasunez artatzea.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Txaetan, zaborra ontzietara bota gabe



Hona irakurle baten kexa: "Jendeak ez du zaborra dagokion tokira botatzen, eta poltsak ontzietatik kanpo uzten dituzte. Altzariak ere ez dagokien egunetan ateratzen ditu jendeak"

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

'Purito' omenduko dute, bihar, Red Dragons-en festa solidarioan

Janaria batzeaz gain, 25 urtetik gorako ibilgailuen erakusketa egingo dute goizean Arizmendiarieta plazan

X.G. ARRASATE

09:00etan hasiko dira izen-emaiteak, eta 11:00etan, ibilbidetxo egingo dute ibilgailu klasikoak martxan ikusi ahal izateko. Ordu berean, Arrateko UCAS taldekoek salbamendu-txakurren ikusizuna egingo dute Arizmendiarieta plazan bertan.

Ibilbidea amaitu ostean, 12:30ean itzuliko dira gurgildun harribitxi guztiak, eta plazan bertan utziko dituzte ikusgai. 13:00etan, pintxo-potea egingo dute, bazkalurreko egarria asetzeko, eta 14:30ean, ordea,

bazkaria. Ibilbidea eta pintxo-potea egiten dutenek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta trukean oparitxo bat ere jasoko dute. Horrez guztiaz gain, bazkarira joan nahi dutenek, ordea, 10 euro gehiago. Bazkalostean, 17:00 aldera, Xabier Fernandez *Purito* pilotua omenduko dute. Azkenaldian, Jarama eta halako zirkuituetatik rally eta rallysprintetara egin du salto, eta ez da batere gaizki aritu. Gogoratu behar da egun osoan Bergarako elikagai bankurako janari bilketa egingo dutela.

AREDHANA YOGA - GESTALT TERAPIA

Encarna Mendez: Yoga irakaslea eta terapeuta. 616 96 57 95 • aredhana2@gmail.com

Ainhoa Garai: Feldenkrais irakaslea. 620 60 19 59

Gaizka Mena: Mindfulness instruktorea. 653 70 84 09

Yoga eta meditazioa
konbinatzeko aukerak

Yoga taldeak

Yoga terapeutiko
pertsonalizatua

Gestalt terapia
kontsulta

Feldenkrais-a

Mindfulness meditazio
taldea



RFPS: 145/16 Ez da osasun zerbitzua.

Lezama merkataritza-gunea, Santa Kurtz 24 • Aretxabaleta

Kide ugariko familien egoera arintzeko hiru neurri proposatu dituzte

2020ko ordenantza fiskaletarako proposamenetan kide ugariko familiak laguntzeko hiru neurri sartu ditu Udal Gobernuak, Hirukide elkartearen eskariz. Oposizioak bi aste izango ditu ekarpenak egiteko, eta urriko osoko bilkuran onartzea da asmoa

Xabi Gorostidi ARRASATE

Oposizioko kideei aurreko astean azaldu ostean, Udal Gobernuak astelohenean eman zituen aditzera 2020ko ordenantza fiskaletarako egin nahi dituen aldaketak. Horietako hiru kide ugariko familien egoera arintzera bideratuta daude eta beste bat, berriz, Erdi Aroko ondarea zaintzera.

Kide ugariko familiak

Hirukide elkarteak kide ugariko familien interesen alde egiten du lan, eta euren eskariz sartu dituzte kolektibo horri laguntzeko hiru neurriak.

Lehenak zerikusia du Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergarekin. Orain arte, 160.000 euroko balio katastratik gora ez zen hobaririk aplikatzen, eta muga hori 250.000ra igotzea proposatzen du Gobernuak. "Kide ugariko familiek etxebizitza handiagoak izaten dituzte, eta horrek balio katalal handia edukitzea eragiten du. Horrek hobari gutxiago izatea eragin die orain arte, eta hori arindu nahi dugu" azaldu du Ogasun zinegotzi Ander Garayk. Udal Euskaltegian fa-

milia ugariko kideek langabeen tarifa bera aplikatzea ere proposatu dute, eta baita hobari bat autoen udal zergan –teknikoki trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga izena duena–.

"Ibilgailuen zerga kuota ibilgailuaren potentziaren arabera ezartzen denez, horrelako familiek zerga altuagoa ordaindu behar izaten dute, auto handiagoak erabiltzen dituzte eta. Egoera horren aurrean, beraz, Gobernu taldeak, berdintasunez jokatzeko aldera, kide ugarien familientzako hobariak planteatu ditu zerga honetan".

Azkenik, bi seme-alaba dituzten guraso bakarrek familiak kide ugariko familia bezala hartzea ere planteatuko du Udal Gobernuak. Demagun bi guraso eta bi seme-alaba dituen familia batean gurasoetako bat hil egi-

ten dela, eta guraso bakarra geratzen dela bi seme-alaben kargura. Kasu horretan, hiru seme-alaba dituen kide ugariko familia baten trataera emango litzaioke. "EAE mailan hasiak dira era honetako familiak kide ugarikoak bezala kontsideratzen. Arrasaten oraindik ez zaie trataera hori ematen, eta guk hori aldatzea proposatzen dugu".

Hain zuzen, hobariak aplikatzeko taula batzuk erabiltzen ditu Udalak, kide ugariko familiak seme-alaba kopuruaren eta diru-sarreraren arabera sailkatuta.

Ondarea babesteko hobaria

Bestalde, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergan (EIOZ), Erdi Aroko aztarna arkitektonikoak mantentzen dituzten etxebizitza edota eraikinak berreskuratzeko obrei hobaria ezartzea ere planteatu du

KIDE UGARIKO 272 FAMILIA DAUDE HERRIAN; HORIETATIK 30, BOST SEME-ALABATIK GORAKOAK

BI SEME-ALABAKO GURASO BAKARREKO FAMILIEK KIDE UGARIKO IZAERA IZATEA NAHI DUTE



Garay, Ubarretxena eta Garcia, asteloheneko prentsurrekoan. XABI GOROSTIDI

Gobernu taldeak. AZE elkarteak proposatu zuen ideia, eta Udal Gobernuak begi onez ikusi du ekimena.

Zergak eta tasak, %1 gora

Gainontzeko zergak eta tasek KPIak markatzen duen igoera izango dute; "%1 eta %1,1 artean" egongo dela adierazi du Oscar Garciak. Ur hornidura zerbitzuaren tasa ur kontsurtzioak adierazitako irizpideen arabera egokitzea proposatu du Gobernu taldeak.

272 familia Arrasaten

Hirukide elkarteak, berriz, oharra kaleratu du Udal Gobernuaren jarrera "eskertzeko".

Horrez gain, Arrasateko kide ugariko familien datuak eman dituzte aditzera. Izaera orokorreko –lau seme-alaba, gehienez– 242 familia daude eta izaera berezikoak –bost seme-alaba edo gehiago–, aldiz, 30. Aipatutako 272 familia horien herena pasatxo –98– Hirukide elkarte-kideak direla ere jakinarazi dute.

OHARRAK

Pentsiodunak

Astelohenean, elkarretaratzea egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan.

Udala, hizlari bila

Hileta zibiletan borondatezko hizlari izateko jende bila dabil Udala. Hizlariak ez lukete ordainsaririk izango, ezta Udalarekin lan harremanik. Interesa dutenek BAZera jo behar dute, urriaren 1era arte.

BIODANTZA EUSKAL HERRIAN Iraila 2019
Zabaldu gorputza Bizitzara

626 66 12 92

ASTELEHENA 23
ARRASATE, 19:15
La Merced ikastetxea
Esther Fernandez 685 75 42 94

BERGARA, 18:30
Mariaren lagundia ikastola
Mentxu Arjonilla 626 66 12 92

ASTEARTEA 254
ELORRIO, 18:30
Txindirri ikastola
Mentxu Arjonilla 626 66 12 92

www.biodanzaital.com
www.biodanzaesuelainficial.com

Zu hemen zaude, AEK ere bai

100 euskaltegi baino gehiago Euskal Herri osoan

EUSKALTEGI BERRIA
herriko plazan

EUSKARA-IKASTAROAK

Debagoieneko AEK

"Komunikazioa da gure metodoa"

EUSKARA TITULU OFIZIALAK

Iturriotz 21, behea Arrasate · 943 77 03 69
arrasate@aek.eus



Arrasateko kristau komunitateko kide batzuk AMAIA ZABALA

Arrasateko elizkoiak, Munillarekin "minduta"

Arrasateko parroko Horazio Argarate Oñatira lekualdatzeko Munillaren erabakia dela eta, "arrazoiak justifikatzeko eta aldaketaren epea luzatzeko" eskatu dio Arrasateko kristau komunitateak; gotzainak, ordea, "ez die jaramonik egin" euren eskaerei

Amaia Zabala Tolosa ARRASATE

Uda hasieran jakinarazi zuen Joxan Larrañaga Oñatiko parrokoak, parkinson gaixotasuna dela eta, ez duela karguan jarraituko. Hori jakin eta berehala iritsi zen Jose Ignacio Munilla Donostiako gotzainaren erabakia: Horazio Argarate, Arrasateko parrokoak ordezkatuko zuela esan zuen.

Munillaren erabakia harri-duraz hartu zuten arrasatearrek, eta, bereziki, kristau komunitateak; ondorioz, uztailearen 8an egindako batzarrean, Munillari Arrasateko kristau komunitatearen aurrean agertzeko eskaera egitea erabaki zuten, "aldebakarreko erabaki hori" justifikatzeko azalpenak eman zitzaizkien: "Horrez gain, trasladoaren gertutasunagatik genuen kezka jakinarazi genion, eta martxan zeuden proiektuen transferentzia mailakatua eta antolatua egitea proposatu genuen, proiektu horiek ez dezaitez porrot egin".

Gotzainaren ezezkoa

Goztzenak uko egin zion, ordea, eskaerari, eta, ondorioz, batzarrek izendatutako lagun talde bat Donostiara joan zen uztailearen 4an harekin hitz egitera: "Parrokoaren berehalako aldaketa dela eta, Arrasaten abiatutako proiektuak ongi burutzearekin genuen kezka azaldu genion eta azpimarratu genuen nahitaez denbora behar genuela aldaketak egiteko eta eskualdaketa gure parrokiaren beharretara hobeto egokitzeke".

Munillak, baina, ez zituen euren proposamenak onartu eta erabakia positiboa izango zela eta martxan dauden proiektuei ez diela kalterik egingo erantzun zion.

Horren aurrean, kristau komunitateak gotzainarekiko desadostasuna aditzera eman du: "Gure mina adierazi nahi dugu, ekarpenei erakutsitako interes faltagatik eta gu aintzat ez hartzeagatik eta erakutsitako sentimenduetatik kristau

komunitateari bere erabakien partaide izaten ez uzteagatik, eta, batik bat, gardentasun faltagatik. Ez dugu onartzen gotzainak nahi duena eta nahi duen bezala egitea guri beharrez eragiten diguten gaietan. Are gutxiago, azken hamar urteetan Arrasatera bisita pastoral bakar bat ere egin ez duela. Uste dugu guk ere iradoki eta ekarpenak egin ditzakegula, batez ere, zuzenean eragiten badigu. Edo men egin eta isildu besterik ez dugu?".

Parte hartzea eta adostasuna

Gaineratu dute garai bateko gestio autoritario eta indibidualistak ez duela lekurik XXI. mendean, eta Munillak egungo

"GURE MINA ADIERAZI NAHI DUGU, EKARPENEKIKO ERAKUTSITAKO INTERES FALTAGATIK"

errealitateara egokitu behar duela: "Egun, erabakiak parte hartuz eta adostuz hartzen dira; are gehiago, espiritu kooperatiboak balio berezia duen eta komunitatean hain errotuta dagoen herri batean. Elizaren artzain zuhur batek, besteen zerbitzura dagoelarik, ez dio ezikusiarena egin behar zerbitzatzen duen komunitateari. Artzain baten jokamolde horrek ez du estimulatzen eta motibaziorik eza sortzen digu. Ezin da etengabe predikatu Elizaren komunioa, lankidetzak eskatu eta, gero, harrokeriaz, komunitatearen partaidetza gutxietsi eta baztertu".

Gaineratu dute ez direla gotzain eredu hau errebendikatzen duten bakarrak, eta aita santuak ere mezu bera helarazi ziela gotzain berriei 2017ko irailean.

Gaineratu dute ulertzen dituztela Oñatin eskatutako aldaketaren motiboak eta bertako parroko Joxan Larrañagari onena opa diotela: "Jakitun gara Larrañagak herrian lan bikaina egin duela, baina ez dugu ulertzen Horazio Argaratearen hutsunea betetzeko hartutako erabakiaren mugimendu bikoitza, orain arazoa Arrasatera ekarri delako; izan ere, logikoena eta ulergarriena litzateke Oñatin hutsik geratu den lekua izendapen berri batekin betetzea".

Parroko "maite eta preziatua"

Azkenik, gotzainaren jokabide "penagarriak sortutako pena eta tristura" alde batera utzi eta maitekiro zuzendu zaizkio Horazio Argarate Arrasateko parrokoari: "Horazio maite eta preziatuak, 2009tik, Juan Mari Uriarte gotzainak bidalita gure arteko ibilbidea hasi zuenetik, Arrasateko herriari eman dizkion gauza ugari eta onekin geratu nahi dugu, hamar urte horietan atsedetik gabe egindako lanarekin. Ez da kasualitatea bere lana aitortua izatea, kristau komunitatearen aldetik ez ezik, baita ere beste eragile, talde sozial, estamentu ofizial, eta abarren aldetik, hainbeste proiektu sozial ezagunetan erakutsitako dedikazio, inplikazio eta bokazioagatik. Bere martxa sentitzen dugun arren, ereindako haziak fruitu emankorrek ematen jarraituko du luzaroan, eta bere aztarna ezabaezina izango da. Helmuga berrian Arrasaten bezainbesteko arrakasta izatea opa diogu".



NIRE USTEZ

NEREA MAKAZAGA

Kulturatik garenera

Izan garen edota nor garen uste horretan kulturak gudan izan duen eragina ezinbestean hausnartzeko ondarea da. Zer-nolako kulturaren hasi eta hezi, hala nola sentitu, pentsatu edo ekingo diogu datorrenari. Izan ere, kulturen heterogeneotasunean arau eta balore ezberdinak barneratzean perspektiba ezberdinekin egiten dugu bat.

Nor garen ulertzeko pentsamendura salto egitean estruktura eta bide desberdinez baliatzen gara. Badirudi ezaugarritzen gaituen kultura geroz eta indibidualistago honetatik, pentsamendu analitikoetik areago, kontestua eta objektua banatu beharrek objektuaren ezaugarrietan oinarritzea eta kontestua alboratzera eramaten gaituela. Logikaren, eta ez esperientziaren, legeetan oinarritzeak kontrako proposizioetara garamatza, eta honek erdibideko puntuak zailtzen ditu. Halaber, aldaketak beharrezko diren uneetan onuragarria litzatekeen malgutasunaren kontra dator hau. Onargarria denaren eta ez denaren arteko mugetan kokatzeko jarreraren, onaren eta txarraren aurrez aurreko epaiketa tinkoei eutsi aurretik, oreka puntu berri batean sinistu dezakegu, eta zergatik ez, kontraesanetan erori behar barik.

Baserritarren azoka eta Birzikleta azoka zapatuan

Bihar, irailak 21, zapatua, hileko hirugarrena izanik, Baserritarren Azoka egingo dute Seber Altube plazan, 09:00etan hasita.

Zapatu honetan bada beste nobedade bat, ordea, handik gertu dagoen Mondragones kalean Mugikortasun Astearren barruan antolatu duten Birzikleta azoka egingo baitute. Azoka 11:00etan hasiko da.

Goikobaluko Gazteluaren jaia, hilaren 28an

"Santa Barbara parkearen balio historiko, botaniko eta ludikoa aldarrikatzea eta berreskuratzea" izango da jaiaren helburua, festa giroan, betiere; horretarako, egitarau zabala antolatu dute herriko hainbat eragilek, Udalaren laguntzarekin

Eneko Azurmendi ARRASATE

Urteroko ohitura bihurtu da jada Goikobaluko Gazteluaren jaia, eta aurten ere ez du hutsik egingo. Izan ere, herriko hainbat eragilek egun osoko egitaraua antolatu dute hurrengo zapatu-rako, Udalaren laguntzarekin.

Egunari hasiera emateko, 11:30ean, Anabel Ugalde historialari arrasatearrak gidatutako ibilbidea egingo dute, Ferrerías kaleko Arotz plazatik abiatuta. Gero, 12:00etan elkartuko dira Herriko Plazan, Goikobalura kalejiran igotzeko –plazan furgoneta bat egongo da bazkari-zorroak gora eramateko–.

13:00etan, umeentzako jolasak eskainiko ditu Txatxilipurdik, eta ordu berean dantzaldia egingo dute. 13:45ean, herri olinpiaden txanda izango da, eta, gosea egin ostean, 15:00etan bazkalduko dute, *Heuk eruen, heuk jan!* lelopean. Hori horrela, bazkaria norberak eraman beharko du etxetik, baina antolatzaileek

sagardo kupela eta taberna jarririko dituzte, SUDCen laguntzarekin.

Bazkalostea girotzeko, kantaldi herrikoia egingo dute, 15:45ean hasita, eta, amaitzean, Idoia Azurmendi musikari aramaioar gaztearen emanaldiaz gozatzeko aukera egongo da.

17:15ean, *Borobileko dantzak* egingo dituzte, eta haurrek zein nagusiek parte hartu ahal izango dute. Jaiari bukaera emateko, dantzaldia egongo da, 17:45ean hasita, eta 18:45ean izango da jaitsiera Arrasatera.

Antolakuntzan, hainbat talde

Hauek dira egitaraua antolatzen ibili diren talde eta eragileak: Arrasateko Bertso Eskola, Arrasate Euskaldun Dezagun (AED), Txatxilipurdi, Trikitixa Eskola, Udalaxpe, Txistulari Elkarte, Portaloi elkarte, Ttakun txalaparta taldea, Albokariak, SUDC, Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostitz.



Goikobaluko erromeriako irudi bat, iaz. IMANOL SORIANO



AITZIBER ARANBURUZABALA

MUGIpuzkoa, urritik aurrera

Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astearen baitan, Arrasateko Udalak MUGIpuzkoa ekimena aurkeztu du, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzarekin batera. Hala, urritik aurrera, garraio publikoko Mugi txartela kargatzeaz gain, tramitazio zerbitzua ere eskainiko da herrian. Garraio publikoaren erabilera erraztea eta sustatzea da helburua.

Hipermerkatuetan soilik

EROSKI clubekoa
bazara

50€

-raino

Opari
deskontu-txarteletan

Irailak
21
larunbata

5€

5-6 euro beartutako 40-45 euro gordinen erakundeetan

10€

10-15 euro beartutako 15-20 euro gordinen erakundeetan

20€

15-20 euro beartutako 20-30 euro gordinen erakundeetan

50€

30-40 euro beartutako 40-45 euro gordinen erakundeetan

Nik aukeratzen dut
**aurrezteko
okasioa
aprobetxatzea**

Aurrezki gehiago bazkide izateagatik

Txartetako baldintzak:

- Bata hilekotan 2019ko irailaren 23tik irailaren 27ra.
- Batako erabilera 50€ baino gutxiago.
- Batako erabilera 50€ baino gehiago erabiliz, 100€ baino gehiago erabiliz, 200€ baino gehiago erabiliz, 300€ baino gehiago erabiliz, 400€ baino gehiago erabiliz, 500€ baino gehiago erabiliz, 600€ baino gehiago erabiliz, 700€ baino gehiago erabiliz, 800€ baino gehiago erabiliz, 900€ baino gehiago erabiliz, 1000€ baino gehiago erabiliz.

ERABAKI TXIKI HANDIAK

Nik aukeratzen dut kalitate-prezioa

ARRASATE

Musakola z/7 ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30

"Urte itzela izaten ari da, baina badut zer ikasi"

IÑIGO ALZOLA MENDI KORRIKALARIA

Intza-Ttuturrun lasterketa bertikalean txapela lortu berri du, fisikoki nahi bezain ondo ez heldu arren; urte berezi hau amaitzeko, Anbotoko kilometro bertikala du begiz jota

Xabi Gorostidi ARRASATE

Urte berezia izaten ari da Iñigo Alzola mendi korrikalariarentzat. Euskal Selektzioko partaide izateaz gain, emaitza garrantzitsuak lortu ditu.

Berriki txapeldun izan zara Intza-Ttuturrun lasterketa bertikalean; zorionak!

Ez nuen lasterketa ezagutzen, baina Euskal Herriko Txapelketako proba bat zenez, joatea erabaki nuen. Abuztuan eman nuen izena, baina zalantza ez bezain ondo nintzen probara.

Oker ez banago, osasun aldetik ez zinen %100ean heldu...

Granadan egindako Espainiako Kopako lasterketatik belauneko lesio batekin itzuli nintzen. Hori dela eta, udan lasaiago entrenatzen aritu naiz, bizikletan gehiago ibilita. Baina errekeruperatzen nabilenean, eztarriko arazo batzuk sentitzen hasi nintzen: ahotsa oso urratuta nuen, eta esfortzu aldetik topera joaterakoan traba egiten zidan. Lehen proba batzuk egin nituen, eta hots kordetan paralisi bat nuela esan zidaten; hasiera batean, ez oso larria, baina, tira, hor zegoen. Horren eraginez, bi astez egon naiz entrenamendu espezifikorik egin gabe, baina pena eman zidan lasterketa ez egiteak, eta animatu egin nintzen.

Zer-nolako lasterketa da Intza-Ttuturrun? Eta nola bizi izan zenuen?

Proba bertikalak bi eratakoak izaten dira: partaide guztiak aldi berean irtetekoak, edo erlojupeko estilokoak; eta Intza-Ttuturrun erlojupeko estilokoa da. Kurioso izan zen, zeren eta faboritoak, orokorrean, azkenetarikoak izaten dira irteten. Kasu honetan, lehen hirurak, Iban Murua irabazlea, bai Aitor Ugarte aramaiarra eta bai ni, nahiko hasieran irten ginen, preferentziarik gabe.

Bigarren denbora onena egin zenuen, baina zu izan zinen txapelduna. Zergatik?



Iñigo Alzola, Santa Barbara parkean aterako argazkian. XABI GOROSTIDI

"ASTEAN SEI EGUN ESKAINTZEN DIZKIOT ZALETASUN HONI; MOTIBATUTA EGOTEA DA NIRE GASOLINA"

Mendi lasterketek aukera ematen dute federatu gabe egonda parte hartzeko. Baina, ostean, ez zara lasterketa sailkapenean agertzen. Kasu honetan, Iban Murua izan zen denborarik onena egin zuena, minutu bateko aldearekin, baina sailkapenean ni izan naiz txapeldun.

Igotzen beti zabilta trebe. Proba bertikalak dira zure espezialitatea? Egia esan, bai. Beherantz asko dut hobetzeko, eta hobetzen nabil. Baina, nire baldintzekin, igotzean ematen dut maila onena. Pisuak ere eragina du, argala naiz... Hori kontuan hartuta, proba bertikalak oso ondo egokitzen dira nire ezaugarrietara.

Gazteak indartsu datoz...

Hala da. Aitor Ugarte sekulako maila ematen ari da, nahiz eta kadetea izan. Niretzako, benetan albiste pozgarria da hori.

Urte berezia izaten ari da zuretzako: Euskal Selektzioa, Espainiako Kopako probak...

Urte itzela izaten ari da: Selektzioko parte izatea, eurekin Granadan, Castellon, Malagan edo Andorran aritzea... Hiru orduetik gorako probak izan dira, nire baldintzetarako egokienak ez direnak, baina pozik nago emaitzekin; txukunak izan dira. Hala ere, badut zer ikasi eta hobetu. Sekulako talde giroa izan dugu. Espainiako Kopako taldeko partaideetako asko berriak ginen, baina primeran moldatu gara. Hau zaletasuna da guretzako; asteburu osoa kanpoan egin ostean, astelehenean lanera itzultzen gara; giro atsegin horrek asko laguntzen du hori arintzen. **Zer-nolako esfortzua eta dedikazioa dago zurea bezalako errendimendu baten atzean?**

Astean sei egun eskaintzen dizkiot zaletasun honi, eta bat hartzen dut atsedenerako. Astean 10-12 ordu izango dira; udan, akaso, gehiago. Oporretan ez da hain gogorra, baina irailetik aurrera, bai: lana, eguraldia, eguzki ordu gutxi... Baina motibatuta egotea da klabea; hori da nire gasolina.



Artistak eta Udaleko ordezkariak erakusketaren aurkezpenean. AMAIA ZABALA TOLOSA

Arrasatear ukituarekin hasiko da, gaur, 'Itzuli barik' erakusketa

Alazne Zubizarretaren, Natalia Suarezaren eta Daniel Llariaren lanak urriaren 20ra arte izango dira Kulturaten

X.G. ARRASATE

Itzuli barik erakusketak hilabete egonaldia egingo du Kulturateko klaustroan, irailaren 20tik urriaren 20ra. *Harriak* eta *Eremuak* programen barruan kokatzen den erakusketa honetan, Leire San Martin aritu da koordinatzaile, eta erakusteaz harago interakzioa bilatzen duen erakusketa dela azaldu du. "Erakusketa erakustaretotik harago planteatu nahi duen proiektua da *Itzuli barik*, artea lantzeko hainbat tresna elkarbanatzeko espazio kolektiboa sortzea du xede".

Hiru artista

Alazne Zubizarreta arrasatearrak EHUn Arte Ederretan graduatu ostean Diseinu Grafikoko master egin zuen, eta, besteak beste, Gipuzkoako artista berrien programan parte hartu du. Natalia Suarez gas-

teiztarra margolanetan zentratzen da. Hau ere Arte Ederretan graduatua da, eta, besteak beste, *Markak* erakusketa kolektiboan parte hartu izan du. Daniel Llarria da hiruren artean beterranoena. Logroñoko ikusmen artista honek Ameriketako Estatu Batuetan egin zituen master ikasketak, *Fullbright* bekari esker. Euren lanez gain, Ttak! taldeko kideek egindako publikazio kolektibo bat ere ikusi ahal da, duela bi aste egindako arte laborategi saio baten emaitza dena.

Estreinaldi 'arrasatearra'

Erakusketa gaur estreinatuko da, 19:00etan, Kulturaten. Bertan Maider Arregi, Maddi Gallastegi eta Miren Artetxe bertsolariak arituko dira, Ttak!-eko partaide Ekhiñe Casadok kontzertu akustikoa joko du eta Ana Isabel Ugaldak, bisita gidatua.

Goikobalu Txikin parte hartzeko izen ematea zabalik dago

Hiru talde dituzte: Izartxoak – Haur Hezkuntza 4. eta 5. mailak–, Txikiak –Lehen Gezkuntzako ikasleak– eta Gaztetxoak –DBHko ikasleak–. Entseguak Gaztelupe gunean egin dituzte, eta kantatzea maite duen gaztetxo oro ongietorria izango da. Interesdunek, deitu 669 83 34 38 telefonora edo idatzi *goikobalutxiki@gmail.com* helbidera.

Ane Zuazubiskar, bihar, Gipuzkoako Txapelketan bertsotan

Ordiziako Herri Antzokian egingo du estreinakoa –17:00etan– Gipuzkoako Txapelketan. Aurretik sailkatze fasean aritu izan da, eta aurten final-zortzirenetan egoteko txartela lortu du. Ainhoa Agirreazaldegia, Aitor Urbieta, Asier Azpiroz, Beñat Lizaso eta Manex Mujika izango ditu alboan. "Gogotsu nago; ea ariketak ondo irteten zaizkidan", azaldu du.


Duela 13 urte, Oñatin ekin zion bideari Speaking Globally ingeles formakuntza zentroak. Ordutik hona, eta orain Arrasateko Garaia enpresa-gunean kokatuta, ehunka pertsonak ikasi edota hobetu dute hizkuntza, metodologia "bakar eta motibagarri" bati esker. Lan horretan zeresan handia dute, hain zuzen, Dave Forrest, Gilen Gomez Urzelai eta Barrie Olabarria Murphy formatzaileek. Urteetan zehar nazioarteko enpresa munduan aritu ostean, bertan batutako jakintza irakaskuntzan islatu dute.

Enprekin lan handia egiten duzue, baina ingelesa trebatu nahi duen edozein gerturatu daiteke zuenera?

Bai, hala da. Enprekin lanean hasi ginen, 2007. urtean. Orduan Oñatin geunden eta, gehienbat, helduentzat ingelesa lantzen genuen, teknikoak, eta profesionalki lagungarria izan daitekeena. Oraindik ere ildo berean lan egiten jarraitzen dugu, eta arrakasta handiz, gainera, baina ikasleen beharrak ere aldatu egin dira eta guk ere horretara moldatu nahi izan dugu Speaking Globallyn. Egun, edonor etor daiteke gurera, betiere, ingelesa hobetu edota ikasteko prest egonda. Hori da baldintza bakarra.

Hortaz, zein da zuen ikasleen profila?

Azaldu bezala, ikasle asko enpresen bidez iristen dira gurera; lantokiak bere langileen hizkuntza maila hobetzeko aukera eskaintzen duelako. Haien kontura ere profesional asko etortzen dira, gero eta gehiago, baina ez soilik helburu profesionalekin; jendeak jada ez du hizkuntzen jakintza behar profesional bezala soilik antzematen, pertsonaren beraren garapenerako



Barrie Olabarria, Dave Forrest eta Gilen Gomez, Garaia gunean. JONE OLABARRIA

"Gure ikasleen beharrak beti dira lehen helburu"

DAVE FORREST SPEAKING GLOBALLY-KO FORMATZAILEA

Irakaskuntza metodo klasikoak hautsiz, ingelesa "trebatzeko" aukera eskaintzen du Speaking Globally; enpresa, profil profesional zein partikularrentzat

ezinbesteko tresna da ingelesa egun. Hain zuzen, hori da gure leloa: *Ingelesa, nahi dudalako*. **Helduen kasuan, zein da hizkuntza bat ikasterakoan aurre egin beharreko arronka nagusia?** Orokorrean, jende askok konplexua du hizkuntzarekiko eta

"GIROA APROPOSA IZAN DADIN, TALDE TXIKIEKIN LAN EGITEN DUGU BETI"

ez da seguru sentitzen. Aspaldi ikasi zutenen kasuan ere, metodo zaharkituak erabili zituztelako, edo dena delakoagatik, ez dute hizkuntza ondo barneratuta, eta, ingelesa *ikasten* urte ugari eman zituzten arren, egun ez dute euren burua elkarriketa bat mantentzeko gai ikusten. **Hori da, hain zuzen, Speaking Globally bilatzen duena? Irakaskuntza metodo klasikoak haustea?** Zalantza barik. Metodologia berri batekin landu nahi dugu, ikaslea ingelesera gidatuz. Gure

ikasleak trebatu egiten ditugu: Zerbait gaizki esan eta behin zuzenduz gero, ikasleak ez du jakintza hori bereganatuko. Errepikatu egin behar da, behin eta berriz, hizkuntza trebatu, era naturalean erabiltzeko. Elkarriketa bidez egiten dugu

"ENPRESAGINTZAN IKASITAKOAK IRAKASKUNTZARA EKARRI DUGU"

lan, entzunez eta hitz eginez. Hala, demagun ikasleetako batek akatsa egin duela elkarriketa batean; taldean denon artean berrikusten dugu, eta, aukera aprobetxatuta, atal jakin hori lantzen dugu.

Metodologia hori jarraitzeko, zer baldintza bete behar dira?

Talde txikia izatea ezinbestekoa da. Lau edo bost pertsonako taldeak eratzten saiatzen gara beti. Era horretara, irakasleak bere denbora eskaini ahal dio ikasle bakoitzari eta, era berean, ikasle guztiei. Enpresen kasuan, askok lantokira bertara joatea eskatzen digute, langileei lana erraztu eta desplazamenduan denbora aurreztu dezaten. Horretaz gain, badira beraien kabuz, enpresatik kanpo, datozen ikasleak ere, edota beste ordutegi batean etorri nahi dutenak. Haiendako ere zabalik daude gure Garaia bulegoko ateak, bertan klaseak jasotzeko aukera dute. Hainbat espazio eskaintzen digu Garaiak, eta gure profil profesionala ikusita ezinbesteko kokalekua du, bailara erdialdean eta profesionalez beteriko gunean. Dena den, hizkuntzek denbora behar dutela argi izan behar dugu, ez da nahiko astean ordu bat egin eta gero bi astez ahaztea. Gurean, hain zuzen, behar duen denbora ematen diogu ikasle bakoitzari.

Zuena, baina, ez da irakasleen ohiko profila, ezta?

Ni neu estatubatuarra naiz, Barrie eskoziarra eta Gilen euskalduna. Azken honen kasuan, baina, urte ugari eman ditu kanpoan bizi eta lan egiten. Are gehiago, nazioarteko enpresa munduan ibilbide luzea dugu hirurok eta esperientzia hau guztia gure irakaskuntza prozesuetara ekartzen dugu.



speaking globally.

ENGLISH FOR ADULTS

HELDUENTZAKO INGELESA
ingurune erakargarri eta profesionalean

- Ingelesa, nahi duzulako, edo lanerako
- Zure behar pertsonalen araberako *coach* bat
- *Real English* zure *coach* pertsonalarekin
- 10 urteko esperientziadun irakasle profesionalak
- Jatorrizko hiztunak eta atzerrian 10 urte baino gehiago bizi izandakoak
- Talde txikiak: 5 pertsona gehienez
- Maila guztietako eskolak

Matrikula zabalik Informa zaitetz!

Negoioetarako eta lanerako ingelesa

Ingelesa, nahi dudalako

Ingeles akademiko eta teknikoak

Garaia Parke Teknologikoa
Goiru, 1 - A eraikuntza - 3. solairua • 20500 Arrasate

info@speakingglobally.com
943 253 611

Papargorri, egokitzen jakin izan duen korua

Ikasturte berrian buru-belarri murgilduta dabil abesbatza. Larraitz Arriolabengoaren zuzendaritzapean, baina koru ikuskera bera duen taldetxo du gidari, eta txikitatik ekimena eta konpromisoa erakusten duten abeslariak; 30 bat lagun dira, denera

Julen Iriondo ARAMAIO

Arrakastatsua izan zen oso aurreko ikasturte amaieran, jai bezperatan, egindako musikala, meritu handikoa, beste behin, kontuan izanda taldeko kideen artean egiten dutela dena, hasi abestetik eta arropetaraino, adibidez. Eta datorren urteko jailetako ikuskizuna ere dagoeneko buruan, kideei taldeak sorrazten dien ilusioa eta harkikiko duten inplikazioaren adibide: "Udako oporretan etorri zaizkit ideia batzuk", dio Larraitz Arriolabengoak.

Arriolabengoak dio abesbatza ez dagoela "duela hamar urte" zegoen lekuan, eta lan egiteko moduak "desberdinak" direla; hamarkada hasieran hartu zuen zuzendaritza, eta abesbatzak jakin izan du gaingitzen bere baitan bizi zituen zenbait *eten*: batetik, abesbatzaren ardura daraman taldeko kideek diote gaur egungo garaietara egokitu beharra zegoela, etena zegoelako ordura arteko koru ikuskera eta jarduteko moduaren eta gaurko joeren artean; adin etena, bestetik, bi talde zeudelako, umeena eta nagusia-goena, "lan egiteko, musika ulertzeko eta korua ulertzeko modu oso desberdinekin", orduko nagusien taldean zebilen Maria Izagaren esanetan.

"Umeek seigarren maila bukatzen zutenean, abesbatza utzi egiten zuten, eta nagusiek segi egiten zuten, baina segitzen zuten euren bidetik, eta ez zen inor berririk sartzen", dio Arriolabengoak. Bost urteko etena egon zitekeen talde batetik bestera; hala jarraituta, nagusien taldera jende berririk sartu ezean, handiagotu egingo zena, halaber, abesbatzaren jarraipena bera ere zailduz: "Gure helburua da hau mantentzea; hau da guk jaso dugun zerbait, eta utzi behar duguna, eta, ahal bada, jaso genuena baino hobeto".



Larraitz Arriolabengoa, Idoia Asumendi, Miren Aretxaga eta Maria Izaga. J.I.

KORUA ULERTZEKO MODUA GAURKOTZEA ETA ADIN ETENA GAINDITZEA LORTU DU PAPARGORRIK

Dinamika berriarekin lortu dute jarraikortasuna egotea eskola garaia amaituta ere, denak sentitzea talde bereko kide – abestuz gehiagotan edo gutxiagotan parte hartuta ere, beste hainbat zeregin bai baitaude, entseguetan, ikuskizunetan...– eta ekimena, inplikazioa, konpromisoa eta halako balioak izatea taldekideen ezaugarri. Eta horren erakusle garbia da jaietan egin ohi duten musikala: "Oso aberasgarria da eta, nire ustez, asko indartu du taldea", dio Arriolabengoak; eta Izagak: "Badago adin jakin bat, urte bukaeran pentsatzen duzuna adin horretako kideek ez dutela jarraituko. Baina gauzak eta musika talde moduan egiten ditugunetik, etortzen dira ikasturte amaieran eta: 'Zer, hurrengo urtean zer?'. 16 urteko neska batek hori esatea... ze, da

adin kritikoa, lagunekin irteten hasten zarena, eta abesbatza ez zen gauza polit moduan ikusten. Hori aldatzea taldeak lortu du".

Eta jarraitzen du Izagak: "Koru baten egon ez denak ez daki zer den, estigma asko daude. Laguntasun mota bat lantzen da, harreman mota bat, beldur batzuk gaingitzen...".

Eta adin jarraikortasun horrek ekarri du, baita ere, taldearen gidaritza moduan aldaketa gertatzea, eta Papargorriekin garai batean beste abesteko aukerarik ez izan arren taldean jarraitzen duten nagusienak hor daude Larraitz Arriolabengoarekin batera; ezinbestekoa, zuzendariaren esanetan. 30 lagun inguruk osatzen dute abesbatza, eta bakoitzak du bere rola.

Gauza berriak eta desberdinak egin arren –hasiak dira, eta horrela segitzeko asmoa dute–, herritar guztiek gaur egungo Papargorri ezagutzen ez dutela uste dute taldeko kideek: "Jendeak duen ideia da orain dela 20 urteko abesbatza batena, baina orain gauza oso desberdinak egiten ditugu". Hori bai, Papargorri bizirik egotea lehengoan meritua ere badela argi dute.

'Begiz jotako koplak' liburua aurkeztuko dute gaur Sastiñan

2010etik 2017ra Alex Mendikutek aramaioarrei ateratako ehun argazki ingururi bertsoak jarri dizkie Manex Agirrek, eta liburua osatu dute horrela. Gaur aurkeztuko dute –19:30ean Sastiñan–, eta aurkezpenean, liburuan bezala, argazkiak eta bertsoak izango dira. Salmentako dirua *Aita Mari* ontziarendako izango da.

Gorbeialdeko argazki lehiaketarako lanak, urriaren 16ra arte

Kuadrillarekin zerikusia duten argazkiak izan beharko dira –ingurune naturala, soziala eta artistikoa, eraikinak, ohiturak, ekitaldi kulturalak, azokak eta jaiak, pertsonak, esperientziak, gastronomia...–, bertako udalerrietako baten ateratakoak. Oinarriak: *Gorbeialdekokuadrilla.eus*. Gehienez, hiru argazki aurkez ditzake bakoitzak.

OHARRAK

Ospakizuna: Alaiak

Erretiratu elkarteko eguna, domekan. 12:00etan, meza. 14:30ean, bazkaria.

Pilates ikastaroa


Izena, hilaren 23ra arte, udaletxean. Ikastaroa, goizez edo arratsalde, astean bitan.

Eguneko zentroa

Ate irekiak hilaren 27an. Izena, 23rako, udaletxean.

Kadeteetan nagusi, eta denak kontuan izanda, hirugarren

Denboraldiari amaiera bikaina eman dio Aitor Ugartek. Kilo metro Bertikalen Euskal Herriko Txapelketan, 37.53 denbora eginda, kadete mailan sei minututik gora atera zizkion bigarrenari. Korrikalari guztiak kontuan hartuta, hirugarren izan zen, Euskal Herriko txapela jantzi zuen Iñigo Alzolaren-gandik 11 segundora, adibidez.



NIRE USTEZ

PERU ABARRATEGI

Mendi martxa Aramaion

Irailaren 28an, Orixol mendi elkartek antolatutako mendi martxa izango dugu Aramaion.


Bi ibilbide ezberdin egiteko aukera izango dute partaideek: luzeena, 23 kilometrokoa –Tellamendi, Orixol, Durakogain, Ganboralde eta Asentzio tontorrek dituen–, eta laburra –Orixol jaitzi ostean Kruzetatik kalera jaitziko dena–.

Gasiteon artean antolatuko dugu mendi martxa, elkarteko kideez gain hainbat eta hainbat boluntario egongo dira-eta beraien laguntza emateko prest, eta hori beti da eskertzekoa.

Inskripzioa ordaindu beharra egongo da, baina Aramaioko diseinatzaile ospetsu batek diseinatu dituen kamiseta berriak egongo dira trukean opari.

Kilian Jornet, Oihana Kortazar eta Aitor Ugarte, Azkenaldian guztion ahotan dabilen hiru izen handi hauek beraien parte hartzea konfirmatu dute.

Besterik gabe, animatu Aramaion izango den mendi martxan apuntatzera, eta hiru horietako norbaiten aurretik iritsiz gero, harategiko san jakoboa ordainetan.



Aitor Ugarte. ARAXES KIROL TALDEA



2016ko Sagardo Eguneko irudi bat. XABI GOROSTIDI

Zortzi etxetako sagardoa dastatu ahalko da etzi

Domekan izango da Sagardo Eguna, eta iaz baino bi etxe gutxiago izango dira aurten bertara euren zukuia eramango dutenak, 2018a ez baitzen sagar urte ona izan. Dena den, 160 litro inguru izango dira, denera; aramaioarren ezarriak asetzeko adina

J.I. ARAMAIO

13:00etan hasiko da domekan Aramaioko Sagardo Eguna, Aitor Ugarte mendi korrikalariak egingo duen txotx irekierarekin. Orduetik aurrera egongo da sagardoa batetik eta bestetik dastatzeko aukera, eta baita jatekoa ere. Ugarterekin eta sagardogileekin batera, Lagun Artean dantza taldeak ere izango du protagonismoa festan.

Txirritola euskara elkarteari lekukoa hartu eta Udala da orain Sagardo Eguna antolatzen duena. Urteak daramatzate egunarekin; udal ordezkari moduan lehena izango du Kirol eta Kultura batzordeko buru Ana Martiarenak, eta berari egokitu zaio, besteak beste, antolaketan jardutea: "Egun hau da ikusteko, ezagutzeko, Aramaion sagardogile asko daudela, bertan sagardoa egiten dutenak".

Domekan plazara doan aurkituko dituen sagardoei dagokienez, Martiarenak dio ez direla ohiko sagardotegietatik sortzen

dena bezalakoak: "Sagardo desberdina izaten da. Inoiz ez baduzu sagardo hori probatu, litekeena da gogorragoa iruditzea, desberdina, baina ondo dago. Gauza polita da herrian halako ekoizpena edukitzea". Zukua dastatzeko aukera ere egongo da.

20 litro etxe bakoitzeko

Etxe bakoitzeko hogeit hamar litro inguru eramango dituzte, eta zortzi izango dira aurten plazan batuko diren sagardo desberdinak, iaz baino bi gutxiago: "Iazko edizioan baino gutxiago izango dira, iaz sagar gutxi egon zelako. Baina 160 litroekin dene-dako adina egongo da, bai sagardoa eta baita taloa ere", dio Martiarenak.

AITOR UGARTE MENDI KORRIKALARIAK EGINGO DU AURTEN SAGARDO EGUNEKO TXOTX IREKIERA

Azpiko Racing taldea –urte luzeetan ralliesprinta antolatzen ibiltzeagatik– iaz eta Aramaioko Pelota Elkartea duela bi urte –hamar urte betetzen zituelako– izan dira, adibidez, azken urteotan txotx irekieraren ohorea izan dutenak; aurten, berriz, Aitor Ugarteri proposatu zioten, eta gustura eman du hark baiezkua. Martiarenaren hitzetan, ohorea herriarena da: "Edozein herritan ez dago munduko txapeldun bat, eta halako gaztea, gainera".

Edanarekin batera jateko, aurten ere taloak izango dira Sagardo Egunean. Lagun Artean dantza taldeko kideek izango dute mokadu tradizionala prestatzeko ardura. Horrekin batera, dena den, dantza ere egingo dute, sagar dantza, hain justu, egunari dagokion moduan.

Ana Martiarenak gonbidapena egin die herritarrei domekako festan parte har dezaten: "Jendea datorrela eta proba ditzala herriko sagardoak".



2017ko mendi martxako irudia. ARAMAIOKO UDALA

18 eta 23 kilometroko ibilbideak aukeran hurrengo zapatuan

Orixolek antolatuta, Aitor Aranaren omenezko 23. mendi martxa izango da, 08:00etan kiroldegitik irtenda

J.I. ARAMAIO

Hilaren 28an bertan eman behar da izena Orixol Mendizale Elkartek antolatutako mendi martxarako; 07:30etik aurrera egongo da horretarako aukera. 8 euroko kostua izango du izen-emateak, eta parte-hartzaileek kamiseta jasoko dute opari.

Hasiera bera

Ibilbideei dagokienez, bi egongo dira aukeran: laburren 18,8 kilometroko luzera izango du eta luzeenak, 23,4koa.

Bi ibilbideen hasiera bera izango da. Ibarran, kiroldegian, abia-

tu eta Tellamendi igoko dute –Lurgorri inguratuz–; Zabalandin hornidura postua egongo da, handik Orixoleko tontorrera joko dute, eta Kruzetan egongo da beste hornidura postu bat. Ibilbide laburrekoak zuzenean jaitsiko dira handik berriz ere Ibarrara, eta luzeok Durakogain, Ganboralde eta Asentsio kateatuko dituzte, eta Azkoagatik bueltan Ibarrara jaitsiko dira.

Parte-hartzaileek izena ematearekin jasoko duten kamiseta tekniko hiru koloretan egongo da: arrosa, urdina eta berdea, S, M, L eta XL neurrietan.

GORA ETA BEHERA



"Aramaioko irisgarritasuna"



Izenburu hori jarri dio herritar honek bere protestari, iradokiz egongo zela eskolako arrapalaren lanak egiteko beste modurik: "Aramaion zegoen sahas negarti bakarretakoa bota dute".

Azokaren bueltan datoz aurten ere sanmigelak

Kantu afaria, azoka, ganadu feria, euskal dantzak, bolo-txapelketa eta Aretxabaleta Abesbatzaren kontzertua izango dira, besteak beste, jaietako protagonista; eta berritasun bat ere badago: nerabeei bideratutako alkoholik gabeko DJ festa

Mirari Altube ARETXABALETA

San Migel jai bete-beteak aurkeztu dituzte Udaleko Kultura Saileko kideek. Beste behin zapatuko azoka izango da izarra eta horren bueltan beste ekitaldi mordoa. Baserritar jantziarekin soinean ospatzera egun hori gonbidatu ditu herritarrak Unai Elkoro alkateak, eta azpimarratu du jaiak "berdintasunean eta errespetuan" oinarritu behar dutela.

Aretxabaleto eta Bergarako erraldioen konpartsen kalejirak emango die hasiera sanmigele irailaren 27an. Kantu afaria ere izango da egun horretan, urtetik urtera arrakasta handiagoa duen ekitaldia. Izena emateko epea dagoeneko zabalik dago, Arkupen.

Oihan Vega nerabeendako

Aurten bada berritasunik: nerabeei bideratutako festa, hain zuzen ere. "Alkoholik gabeko DJ festa izango da eta Oihan Vegak gidatuko du", adierazi du Ainhoa Cabero zinegotziak. 12 urtetik gorako gaztetxoendako antolatutako eta komentuko lorategian elkartuko dira –eguraldi txarra bada, barruan–. "Nerabeek aste bukaeretan zein jaietan eurentzako aisialdirako ekintzarik ez dutela ondorioztatu du ikerketa batek eta horregatik jai guztietan sartzea zerbait da Udalaren asmoa", jakinarazi du Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak.

60 postutik gora azokan

Jaietako egun nagusia zapatua izango da, irailaren 28a. Aurten, 60 postutik gora izango dira Aretxabaleto Artisautzaren eta Nekazaritza Ekologikoaren 25. Azokan; batzuk Durana kalean eta beste batzuk Herriko Plazan. Hogei postu egongo dira ikusgai nekazaritza ekologikoari dago-kionez, eta 41 artisautzaren kasuan; horietatik hamabi aretxabaletoak izango dira.



Udal ordezkariak eta ekoizle batzuk sanmigeletako egitarauarekin. MIRARI ALTUBE



LUIS MARI ALBERDI
ABERE EKOIZLEA

"Bertako ganadua ekarriko dut, arriskuan dauden arrazak dira asko: behiak, ardiak, pottokak, ahuntzak, oiloak... Okela ere izango dugu dastatzeko".



NEREA MASKARIANO
ARTISAU

"Azoka garrantzitsua izaten da eta laugarrenez egongo naiz ni. Apaingarriak eta osagarriak egiten ditut: eskumuturrekoak, paparreko orratzak, kaxak...".

Horrekin batera bertako ganaduen bosgarren feriak Arlutzeko kantxa aberez beteko du. Eta goiz parte girotuko dute txistulariek, trikitilariak, joaldunek, txalapartariak eta bertsolariak, besteak beste; Lekaixoka bertso eskolak gonbidatuta, Igor Elortza eta Alaia Martin izango dira balkoitik balkoira bertsoan. Tril emakume elkar-tekoek egindako taloek ere ez dute hutsik egingo. Arratsaldean, osterara, Beinke-Loramendi dantza erakustaldia eta bolo-txapelketa izango da protagonista.

Azken urteotan legez, jaiak bukaera emango die Aretxabaleto Abesbatzak. Aurten, Andra Mari kontsumo kooperatiba bultzatu zutenak omenduko dituzte musikaren bidez.

Gazte Mugimenduak ere bai

Atxabaleto Gazte Mugimenduak ere girotuko ditu jaiak: "Egubakoitzean kontzertua egongo da, zapatu arratsaldean elektrotxaranga eta gauean pintxada kolektiboa", adierazi dute. Gainera, taberna jarriko dute udaletxe zaharrean.



NIRE USTEZ

IDOIA SANCHEZ

Gerritik gora markarik ez

Hondartzan bikiniaren goiko alde ez erabiltzeko erabakia hartu dut aurten, eta hala bete. Baina, ai lagun, ekintza xume honek ondorioak izango ez zituela pentsatu nuen unean etorri zitzaidan burura ondorengoa bizi izan nuenean. Mallorcako kala batean, fruta saltzaile bat ondoan jarri zitzaigun lagunari eta bioi, eta harrotasunez bota: "Taparse, ¡que me ponéis malo!". Gizonak askatasun osoa sentitu zuen gurea zapaltzeko, gure erabakiak bera erdigune izango balu bezala. Gure gain eskubideak izango balitu bezala. Berarekin zorretan egongo bagina bezala. Baina ez du, ez ditu eta ez gaude. Poztu behar, gainera, behin bakarrik izan delako. Niri, baina, eta uda osoan behin bakarrik.

Nik plaia giroan lasai egotea baino ez nuke nahi, eguzkiak azalean oreztak nola sortzen dizkidan ikusi eta argazkiak inoren sentsibilitatea urratu gabe aurrealdetik ateratzea. Bularretakorik ez badut nahi, nola nahiko ditut loretxo zein pixelak?

Tira, behintzat, iaz idatzitako zerrendatik ezabatu dezaket: gerritik gorako markarik ez. Helburua lortuta, beraz.

Kamerak jarriko dituzte hiru gunetan, zaintza-lanetarako

Komentuko lorategian, pilotalekuan eta futbol zelai berrian kokatuko dituzte, "ekintza bandalikoak ekiditeko"

M.A. ARETXABALETA

Udal Gobernuak erabaki du zaintza-kamerak jartzea Udalarenak diren hiru gunetan; helburua da segurtasuna bermatzea. Unai Elkoro alkateak gogorarazi du Santa Rita komentuko eraikinean sartu zirela ekainean, Kurtzebarri institutukoek erabiltzen duten gela batean: "Teknologia tailerra dute han, eta materiala apurtu eta lapurtu zuten, baita inguru guztia zikindu ere pinturarekin". Hain zuzen, gertaera horren ondorioz, itxita dago komentuko lorategia. .

Komentuko lorategian bideozaintzarako bi kamera jarriko dituzte, sarrera bakoitzean bana, eta kontrol-zentroa udaltzainen bulegoan egongo da. Beste bi gunetan ere bina kamera jarriko dituzte: Iturrigorri pilotalekuan –pintadak saihesteko– eta zarpiko futbol zelaian.

Horretarako 10.000 euroko aurrekusi dituzte, eta aste honetan bertan hasi dira kamerak jartzen. Zaintza-sistema hori hilabete bukaerarako edo urri hasierarako martxan egotea gurako lukete udal arduradunek.

Tomateari eskainitako asteak goia joko du bihar azokarekin

Tomatearen Astearen egun nagusia biharkoa izango da; Durana kalean egingo den azokaren bueltan elkartuko dira ekoizleak zein erosleak (11:00-14:30).

Bigarrenez egingo den azoka berezi horretan hogeit hamar postu jarriko dituzte, era guztietako barazkiekin, beti ere izarra tomatea izanda. Ekoizle asko izango dira herrikoak, eta gehienek

ekoizten dute Aretxabaleto tomateak.

Tokiko tomateen gainean inork baino gehiago dakien Marc Badal ikerlariak hazia lortzeko tailerra eskainiko du (11:30). Eta hiru lehiaketako sariak banatuko dituzte: tomate erakusketako fruiturik onenari, ortu dotoreenari eta gastronomia elkarrekin gertatutako zopa hotz gozoenari. Gainera, herriko ha maika tabernak egin du bat astearekin, eta tomate pintxoak gertatuko dituzte.



Durana Hartz Klinikako lantaldea: Ainara Oribe, Nagore Agiriano, Miriam Garcia eta Azahara Huelmos. XABI GOROSTIDI

"Implanteak gora doaz, eta hemen adituak gara"

AZAHARA HUELMOS DURANA HORTZ KLINIKAKO DENTISTA

2017an, klinika berriua inauguratu zuten, Durana kale erdialdean, bezeroei zerbitzu hobea eskaintze aldera; espezialistak dira ortodontzietan eta inplanteetan

Azahara Huelmos 2015a ezkerodabil Aretxabaletan lanean.

Noiztik duzue klinika Durana kalean? 2015ean hasi nintzen Aretxabaletan lanean. Hasieran, kabina bakarreko lokal bat nuen Arrasateko sarrera inguruan, baina txiki geratzen hasi zitzaidan, eta lokal handiago baten bila hasi nintzen, bezeroak hobeto eta epe laburragoan artatzeko.

Zein motatako ortodontziak eskaintzen dituzue?

Hiru motatakoak: brakets metalikodunak, zirkoniozko braketsak eta baita ortodontzia ikusezina ere. Zirkoniozko braketsak haragi kolorea imitatzen dute, eta bistara askoz leunagoak dira metalikoak baino; disimulatuagoak, hein batean. Baina, azkenaldian, ortodontzia ikuse-

zina gorakada izaten ari da, eta adituak gara teknika honekin. Ez du braketsik behar, eta horren ordez ferula fin batzuk erabiltzen ditugu. Ferula horrek haginak mugiarazten ditu, guk nahi dugun posizioa har dezaten. Prozesuan zehar ferulak aldatu egiten dira, periodikoki, eta oso emaitza onak ematen ditu. Braketsak baino askoz estetikoagoa

den tratamendua da eta gero eta jende gehiagok eskatzen du.

Umeentzako ortodontzia asko egiten dituzue?

Bai; ortodontzia funtzionala deritzona, batez ere. Adibidez, masailezurra hazten ari denean, haginek posizio konkretu bat hartzea erraztu dezakegu aparailu txiki batzuekin. Teknika hauek oso gomendagarriak dira, adibidez, hozkada gurutzatua duten umeentzat, behin betiko haginrentzat espazio falta duteentzat edo atzamar lodia zurruptatzeko ohitura dutentzat. Haginak eta hezurdura ondo hazteko balio du, eta etorkizuneko ortodontziak saihesteko balio dezake. Batzuetan, ortodontziak egin behar izaten dira geroago, baina, orokorrean, aurrean horrekin, etorkizuneko ortodontziak saihestu daitezke.

Endodontziak eta bestelako interbentzio klasikoak ere egiten dituzue?

Bai, noski. Endodontzia asko egiten ditugu. Hemen lanean ari garen bi dentistak adituak gara endodontzietan, eta, nire kasuan, gehien gustatzen zaidan zeregin da. Horrez gain, enpasteak eta garbiketak ere egiten ditugu, eta baita inplanteak. Azken hauek gero eta gehiago eskatzen dituzte bezeroek. Master bat dut inplanteekin lotuta, eta elkarlan estua izaten dugu zirujau aditu batekin.

Zer onura dituzte inplanteek?

Oso bogan daude, eta oso teknika eraginkorra da. Ondo dauden haginak bakean uzten dituzu, eta gaizki dagoen horretan zentratzea ahalbidetzen dute. Protesi mota guztiak lantzen ditugu. **Teknologia aldetik, zein motatako makinak dituzue?**

Ortopantomografiak eta teleerradiografiak egiten ditugu: lehen, aho osoko erradiografiak

egiteko; eta bigarren, batez ere, ortodontziak egiteko. Zerbitzu hauek klinikan edukita, pazientek kanpora bidaltzea saihesten dugu, eta hori asko eskertzen digute. Lehengo lokalean, adibidez, ez genituen zerbitzu hauek, eta oso erosoa da; bai guretzako, eta baita pazienteentzako ere. Hala ere, beti gabilta puntako teknologiak klinikan edukitzeko ahaleginak egiten.

6-7 urteko haurrentzako PADI programa ere lantzen duzue?

Hala da, bai. Haurren hortzak zaintzeko programa garrantzitsua eta beharrezkoa da aho-hortzen osasuna bermatzeko; hain zuzen ere, erabakitzaileak diren adinetan, hortzeria on bat garatzeko eta hori bizitzan zehar osasuntsu egon dadin izan beharreko zainketa ohiturak hartzeko programa da. Bi atal bezala ditu: alde batetik, hortz erorkorrak ez diren hortzen tratamendua Osakidetza hartzen du bere gain, ortodontziak izan ezik; eta bestetik, umeek hortzak zain ditzaten ohitura osasungarriak lantzen ditugu: egunean hiru aldiz garbitzearen garrantzia, urtean behin dentistarenetik pasatzea berrikuspenera egiteko... Umeengan oso ohikoa izaten da medikuekiko beldur puntu bat izatea, eta medikuak diodanean, dentistak ere talde horren barruan gaude, tamalez. Beraz, beti ahalegintzen gara konfiantzazko giroa sortzen, harreman ona egoteko, eta beldurra galtzeko.

"ORTODONTZIA IKUSEZIN ASKO JARTZEN DITUGU; ESTETIKOAGOAK ETA ERAGINKORRAK DIRA"



Odontologia estetikoa
Endodontzia
Inplantologia

Ortodontzia
PADI zerbitzua
Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55
www.duranahortzklinika.eus

Pilota taldeak gogotsu hasi du denboraldia

Aretxabaleta kirol elkarteko pilota taldearen bueltan 60 gaztetxotik gora elkartu dira aurten eta dagoeneko hasita daude lanean; kadeteek eta gazteek Gipuzkoako txapelketa jokatzeko dihardute eta errendimendukoek urrian hasiko dute txapelketa

Mirari Altube ARETXABALETA

Denboraldia hasi berri da eta 66 gaztetxo inguru dabilta pilota esku artean hartuta lanean Iturrigorri pilotalekuan, horietatik hiru neskek. Aritz Zugasti eta Unai Errasti dituzte gidari eta guztien buru, Juan Mari Errasti. "Ordu-tegiak zehaztea kosta zaigu, baina dagoeneko martxan gaude", dio hark.

Gipuzkoako txapelketa

Joan den egubakoitzean hasi zuten hiru bikotek Gipuzkoako pilota txapelketa eta hasiera gazi-goza izan zela adierazi du Juan Mari Errastik. Bigarren mailako kadeteek –Uribarren eta Uribetxebarria– irabazi egin zuten Intxurrekoen (Alegi) aurka, 22-10; lehen mailako kadeteek –Etxabe eta Lanzos– ere irabazi egin zuten Zazpitturrikoen (Amezketeta) aurka, 22-10; eta lehen mailako gazteek –Igartua eta Lasa– galdu egin zuten, 4-22, Ilunpekoen kontra (Azpeitia). "Bikote indartsua da azpeitiarra, eta lehen partidua zen, gainera", dio Errastik.

Asteburu honetan, kanpoan jokatu dituzte partidua: Urretxun, Lazkaon eta Astigarragan, hurrenez hurren.

Errendimenduko txapelketa

Urriaren 20an hasiko dute txapelketa errendimendukoek. Bigarren urteko alebinen artean sei mutikok hartuko dute parte, eta infantiletan zortzik, lau lehen mailakoak eta beste lau bigarrenekoak. "Gehiago balira hobeto baina... 2005ean jaiotakorik, adibidez, ez dugu", dio Errastik, eta gaineratu du txapelketak gogoko izaten dituztela: "Hain zuten horregatik egubakoitzetan partidua antolatzen ditut bertan, Iturrigorrin, euren artean joka dezaten. Gaztetxoek ere, zuriz jantzita, gustura jarduten dute, entrenamenduak zerbaitetarako direla igartzeko dutelako".



Benjaminak eta infantilak Aritz Zugasti entrenatzailearekin. MIRARI ALTUBE



Kadeteak, gazteak eta hainbat infantil Unai Errasti entrenatzailearekin. M.A.

Senior mailan, oster, pilotari bakarra dago: Aritz Zugasti. Bikoterik ezin osatuta eskuz banakako eta lau eta erdiko txapelketak jokatu ditu.

Orduak sartu behar pilotalekuan

Pilotalekuan orduak sartu behar direla ondo jokatzeko nabarmendu du Errastik, "umetatik bada, hobeto", eta gogoratu du sasoi baten entrenatzaile barik jarduten zutela gazteek: "Pilotaleku zaharrean euren kontura

jarduten zuten. Haiengana joaten nintzen ni eta han zebiltzane galdetzen nien Debarroko Txapelketa edo Herri Artekoa esaten zutenei lizentzia bideratzen nien. Hori bukatu zen kiroldegia eraiki zutenean, pilota desagertu egin zen kaletik, eta orduantxe hasi nintzen ni entrenatzaile lanetan". Kiroldegian jardun zuen lehenengo, eta gero, Iturrigorri pilotalekuan, orain dela 36 urte eraiki zutenetik.

Gazte Egunak jai giroa eroango du Otala Zelaira bihar

Harremanak estutzeko helburuarekin, jolasak, bazkaria eta kontzertua izango dituzte, besteak beste

M.A. ARETXABALETA

Orain dela bost urte antolatu zuten Gazte Eguna azkenekoz –eta 2015ean, Kuadrillen Eguna–. Eta Atxabaltako Gazte Mugimenduak horri berriz heltzea erabaki du: "Andramaixen harira, gazte mugimendua asko indartu da eta horren emaitza da biharkoa. Gazteak elkar ezagutu, harremanak estutu eta batzeko beharra dagoela ikusi dugu. Andramaixetan sortutakoari jarraipena eman nahi diogu", diote.

Otala Zelain elkartuko dira bihar, zapatua; betiko formatue-

tatik irten nahian hautatu dute: "Horretarako leku oso aproposa da, eta halako txokoak gehiago aprobetxatu beharko genituzke". Goiz erdian (11:00) igoko dira eta gazte jolasak egingo dituzte han (13.00). Bertan bazkalduko dute (14:30) eta bazkalostea girotuko die Upeide taldeak –herriko hainbat gazte–. Jaitsitakoan (18:30) jai giroan jarraituko dute elektrotarangarekin. "Hilabeteetan egindako lanari jarraipena eman nahi diogu, hortaz, honen ostean erabakiko ditugu hurrengo pausak. (H)aria ez da etengo!"

Erretiratuen Kultura Asteak ekintza mordoa dakar Basotxora

Sanmigelen bezperan ospatuko dute eta gazta dastaketa, moda desfilea eta txokolate-jana izango dituzte, esaterako

M.A. ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak, urtero legez, Kultura Astea antolatu du San Migel jaietan murgiltzeko. Domekan hasiko da, komentuko lorategiko dantzaldiarekin –oraingoan, 17:30ean izango da, eta ez 18:00etan–, eta irailaren 29an bukatuko da, doke txapelketa jokatu.

Osasunaren gaineko hitzaldia

"Arrakasta handia" izan ohi duten ekintzak urtero errepikatzen dituzte. Astelehenean, esaterako, Otxandioko Felix Ajuria gazta-

gilea etorriko da Idiazabalgo gaztaren dastaketa gidatzera. Martitzenean, moda desfilea izango dute, eta Basotxoko kantu taldearen emanalditxo. Eguaztenean, Getaria eta Donostia aldera joango dira egun-pasa. Eguenean, paziente biziaren gaineko hitzaldia izango dute Osa-kidetzako adituen eskutik; eta egubakoitzean, txokolate-jana sanmigele ongietorria egiteko.

Ekintza guztiak Basotxon izango dira (17:30) eta zuzendaritzako kideek erretiratu guztiak gonbidatu dituzte horietara.

OHARRAK

Saskibalo txapelketa

Hiruko saskibalo txapelketa antolatu du Aresko elkarteak 2006 eta 2009 artean jaiotako neska-mutilentzat; gaur, egubakoitza, izango da, Mitarte kalean (17:30-19:00).

Pailazoak domekan

Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek Txirinbolo ikuskizuna eskainiko dute domekan, Arkupen (17:00).

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia I - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Mugikortasun Astearren barruan, martitzenean, patineteetan modu seguruan aritzeko ikastaroan batutakoak. IMANOL BELOKI

Segurtasuna izan da aurtengo ardatza

Mugikortasun Astearren barruan, zenbait ekintza izan dira aste osoan. Hala ere, bi hitzordu geratzen dira: patinetean eta patinetan ibiltzeko ginkana, gaur, 17:30ean plazan izango dena, eta domekan, bizikleta martxa, 10:00etan, plazatik irtenda

Imanol Beloki ESKORIATZA

Europako hainbat herrirekin bat eginez, Eskoriatzan ere Mugikortasun Jasangarriaren Astea ospatzen ari dira aste osoan. Izan ere, haurrentzako eta helduentzako askotariko ekintzak izan dira, ekimenarekin herriarrak sentsibilizatzeko, mugikortasun iraunkorra eta kirola sustatzeko helburuarekin, betiere, ardatza segurtasunean izanda.

Oinez, patinetez zein bizikletaz segurtasunez ibili da aurtengo leloa, eta ikastaroak izan dira nagusi asteko egitarauan. Edozelan ere, oraindik ez dituzte ekintza guztiak egin. Izan ere, gaur egingo den ginkanarekin –umeentzako, patinetean eta patinetan ibiltzeko, 17:30ean, Fernando Eskoriatza plazan– eta domekan egingo den Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate bizikleta martxarekin –10:00etan, Fernando Eskoriatza plazatik irtenda– emango diote amaiera egitarauari.

Patinetean segurtasunez

Patinetan ibiltzen ikasteko bi saioez gain, patinetean non eta nola ibili ikastaroa izan zen, martitzenean, Ainize Lizarralde Manuel Muñozeko kirol aholkulari eta koordinatzailearen gidaritzapean. Luis Ezeiza Herri Eskolako kantxan zenbait gomendio jaso zituzten bertaraturako haurrek, eta, joko batzuk egin ostean, herrian zehar ibilbide bat egiteko aprobetxatu zuten. Bira hartan, modu seguruan aritzeko arauak jaso zituzten, aurrera begira ezbeharririk ez gertatzeko.

"Urtero egiten ditugu ekintzak Mugikortasunaren Astearren barruan, jendeak autoa alde batera utzi eta beste mugikor-

tasun bide batzuk erabiltzeko. Horrekin batera, aurrean, segurtasunaren aldeko apustua egin dugu, eta ea pixkanaka-pixkanaka pausoak ematen ditugun", adierazi du Ainize Lizarralde Manuel Muñozeko kirol aholkulari eta koordinatzaileak.

Guztientzat ikasgaia

"Ikastaroak haurretara mugatu ditugu, batez ere, baina espero dugu etxera heltzerakoan gurasoei ere adieraztea ikasi dutena, aurrera begira ezbeharririk ez gertatzeko, eta zentzuaz jokatu dezaten. Hala, izan ditugun saioetara haur dezente etorri dira; martitzenean, esaterako, 17 haur gerturatu ziren, eta, beraz, balorazio positiboa egiten dugu", adierazi du Lizarralde.

Hurrengo erronka

Datorren urtera begira patinete elektrikoaren gaia jorratzea aurreikusitako dutela adierazi dute antolatzaileek, aztertzeke gai bat dela adierazita.

**MUGIKORTASUN
ASTEAREN BARRUAN,
IKASTAROEN ALDEKO
APUSTUA EGIN DUTE
AURTEN**

Eskoriatzako elizateetako ordezkariak aukeratu dituzte

Lete auzoko eta zazpi elizateetako auzo-alkateak datorren asteko osoko bilkuran izendatuko dituzte

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako Elizateen Elkarte-ko zinegotzia egon arren, elizate bakoitzak bere ordezkaria dauka, eta hilean behin batzen dira guztiak, elizate bakoitzeko beharrak identifikatu eta garrantzitsuenak zerrendatzeko. Hori horrela, lau urtean behin ordezkari horiek, auzo-alkateak, alegia, izendatu egiten dira, eta dagoeneko aukeratu dituzte zeintzuk izango diren datozen lau urteetara begirakoak.

Eskoriatza zazpi elizatez osatuta egon arren, Lete auzoko beharrak asetzeko honek ere badauka ordezkariak. Hala, honako hauek izango dira aukeratu ditakoak: Apotzagan Jesus San Vicente, Bolibarren Aitor Alarcia, Gellaon Iñigo Altuna, Marinen Irantzu Azkona, Mazmelan Iñaki Zurutuza, Zarimutzen Maria Jesus Fernandez de Arroiabe, Mendiolan Igor Etxabe eta Leten Oier Eskibel.

Elizate bakoitzak bere modua du auzo-alkatea izendatzeko. Batzuek auzotarren arteko bozketarekin egiten dute, beste batzuek txandakako eran... Horrez gain, zenbait auzo-alkatek jarraitzeko gogoia azaldu dute; hala, Bolibar,

Mazmela eta Zarimutzeko auzo-alkateek beste lau urtetan jarraituko dute. Aukeraketa eginda, ohiko osoko bilkuratik pasa ostean geratuko dira izendatuta.

Funtzionatzeko modua

Hilean behin, osoko bilkura saioaren aurreko egunean elkartzen dira auzo-alkateak Elizateen Elkarte-ko zinegotziarekin, eta, biler horretan, elizate bakoitzeko beharrak identifikatzen dituzte, eta zerrendatu. "Dauzkagun baliabideak mugatuak izanda, auzo-alkate guztien artean lehentasunak markatzen dira eta gero, batzorde egokian aurkezten ditut", adierazi du Iñaki Kerexetak, Elizateen Elkarte-ko zinegotziak.

Behar nagusiak

Momentu honetan elizateek dituzten zenbait behar ere jakinarazi ditu Kerexetak: "Kalitatezko ura bermatzea etxebizitzaren guztiei; pertsona helduek, ezinduek, edo nerabeek, garraio zerbitzu publiko bat erabiltzeko aukera izatea; Internetera konektatzeko abiadura duin bat etxe guztietara iristea; eta etxebizitzetako bideak egoera onean mantendu beharra izatea...".

Tesa Assa Abloy enpresan lan hitzarmena berri dute

ELA sindikatuak poza azaldu eta, era berean, lorturiko akordio horren balorazio positiboa egin du

I.B ESKORIATZA

Enpresa Batzordeak eta Tesa Assa Abloy enpresaren Zuzendaritzak Irungo eta Eskoriatzako lan zentroetarako hitzarmenaren negoziaketan akordioa erdietsi dute. Hitzarmena berri- tzeke akordioa, hain zuzen.

Sarrailagintzako produktuak fabrikatzera dedikatzen da Tesa Assa Abloy enpresa. 300 beharginek egiten dute lan aipaturiko bi zentroetan, eta honako hobe- kuntza hauek jasotzen ditu hitzarmenak: "Lan baldintzen hobekuntza urrats nabarmenak

jasotzen dira, lan erreformei aurre egiteko klausulak jasotzen ditu adierazietako akordioak eta funtsean langileen egoera duintzeko bidean lorpen esanguratsuek erdiesten dira. Bestetik, soldata igoerek KPI indizea erreferentziatzen hartu eta berau gaintzen dute, enpleguaren kalitatean eta egonkortasunean urrats garrantzitsuak jasotzen dira, baita langilegoaren gaztetzean ere". Guztiagatik, ELA sindikatuak bere poza azaldu du, eta lorturiko akordioaren balorazio positiboa egin.

"Oholtzan estreinatzeke ez dago modu hoberik"

JOSEBA OLMO BAXU-JOTZAILEA

Abuztuaren 31n Santurtzin izandako Eskorbuto taldearen omenaldi kontzertuan eskaini zuen bere lehenengo emanaldia baxuarekin; guztira, hiru kantu jo zituen

Imanol Beloki ESKORIATZA

Musika talde bat ez izan arren, Joseba Olmo eskoriatzarrak baxua jotzen du bere kabuz, eta abuztuaren 31n izan zuen estreinaldia oholtza gainean, Eskorbuto punk talde mitikoaren omenaldi kontzertuan. Santurtzin ospatu zen Eskorbuto Eguna, Mamariga kaleko festen barruan, eta bertan, hamahiru musika taldek Eskorbutoaren bertsioak jo ostean, Pako Eskorbuto entzuteko aukera izan zen.

Nolatan jo zenuen Eskorbuto taldearen omenaldi kontzertuan?

Rombos Negros talde gasteiztarreko kideak ezagutzen ditut, eta, beraien baxu-jolea gaixorik dagoenez, zenbait entsegu egin ostean beraiekin batera jotzeko eskatu zidaten. Baietz esan nuen, noski. Hamahiru talde batu ginen, eta bakoitzak hiru kantu jotzeko aukera izan zuen; denak Eskorbuto taldearenak, nola ez. Guk *No quiero cambiar*, *Te escupiré* eta *Ven y únete al desorden* abestiak eskaini genituen, eta, nire lehen emanaldia izateko, oso gustura geratu nintzen. **Nolatan antolatu zuten Eskorbuto Eguna?**

Los Demenciales Chicos Acelerados taldeak antolatutako eguna izan zen. Jon Mao artistak egindako muralaren inaugurazioa izan zen, lehenbizi; 27 metro dituen murala da, eta bertan, Josu, Pako, eta Juanma Eskorbuto taldeko hirukotearen aurpegiak ageri dira. Horren inaugurazioa izan zen kontzertuak antolatzeke aitzakia, eta esan beharra dago bertan izandako giroa aparta izan zela.

Eskorbuto taldearen jarraitzaile batentzat kontzertu horien parte izatea ahaztezina izango da, ezta?

Hala da, esperientzia izugarria izan zen, jendearen harrera ezin hobea, eta, niretzat, oholtza gainean estreinatzeke ez dago modu hoberik. Gainera, kalitate handiko talde ugari izan ziren, Al-



Joseba Olmo eskoriatzarra, entsegu lokal kanpoan, baxuarekin. I.B

meriatik etorritako talde bat tartean...

Lehenengo emanaldia izanda, urduri egongo zinen, ezta?

Bai, baina aurreikusitako baino gutxiago. Zenbait laguni esan nien kontzertua eskainiko nuela,

baina kuadrilla guztiari esanez gero, han agertu eta ez dakit oholtzara igoko nintzatekeen... Hemendik aurrera, berriz, entseatzan jarraitzea da asmoa, eta nork daki, agian, igoko naiz oholtzara berriro, beste batean.



Lehen aldiz oholtzara

Argazkian, eskuin aldean, Joseba Olmo Santurtzin eskainitako kontzertuan baxua jotzen, Rombos Negros taldekoekin batera. Eskoriatzarrarentzat lehen emanaldia izan zen oholtza gainean, eta Eskorbuto taldearen hiru kantu jo zituen.



Angel Oiarzabalen AGL eskolako ikasleak, areto dantza ikuskizunean. UZTARRIA

Dantza latinoak ikasteko aukera izango da urritik aurrera

Irailaren 27an, egubakoitza, ate irekien jardunaldia izango da, 21:30ean, doan, Joseba Iñurrategi frontoian

I.B ESKORIATZA

Bachata modernoa, saltsa eta txa-txa-txa dantzak ikasteko aukera izango da urritik aurrera Eskoriatzan, *Dantza latinoak* izeneko ikastaroan. Saioak Joseba Iñurrategi frontoian izango dira, egubakoitzetan, 21:30ean, eta prezioa, berriz, 30 eurokoa izango da hileko.

AGL dantza taldeko Angel Oiarzabal izango da irakaslea, eta interesa duenak aurrez probatzeko aukera izango du. Izan ere, irailaren 27an, ate irekien jardunaldia egingo dute, 21:30ean, frontoian.

Dantza saioa doakoa izango da, eta ikasturtean jarduera horretan parte hartzeko izena eman ahal izango dute bertaratzaren direnek. Horrekin batera, ikastaroaren zehaztasunak adieraziko dituzte.

Izen-ematea kultura etxean

Ikastaroan izena emateko zenbait bide izango ditu interesa duenak. Batetik, ate irekietara joanda, eta, bestetik, kultura etxera joanda, 943 71 46 88 telefono zenbakira deituz edo kultura@eskoriatza.eus helbide elektronikora idatzita.

Emozioen kudeaketa tailerrean izena emateko azken eguna, gaur

Gaztelarazko hiru saio eskainiko ditu Miriam Herbon-ek: irailaren 27an, urriaren 18an eta azaroaren 22an

I.B ESKORIATZA

Emozioen kudeaketa ahalduz bidean izeneko tailerrean izena emateko azken eguna gaur, egubakoitza, izango da. Horretarako, Gizarte Zerbitzuetara deitu beharko da, 943 71 31 36 telefono zenbakira.

Miriam Herbon izango da tailerra eskainiko duena, eta gaztelaraz izango da. Guztira, hiru saio eskainiko ditu, irailaren 27an, urriaren 18an eta azaroaren 22an; honako ordutegi honetan: 17:30etatik 20:00etara bitartean, kultura etxean.

Tailer honen helburu nagusia emakumeei bakarkako eta taldekako ahalduz bidean prozesuan laguntzea izango da, bizitza emozionalaren kalitatea hobetzeko asmoz. Horrela, hain zuzen ere, auto-onarpenaren, autozainketaren eta autoestimua bidez bakoitza bere burua ahalduz bidean joatea bilatuko da. Rol eta estereotipoak deseginez, aldaketa pertsonala eta kolektiboa egiteko motibata dauden 18 urtetik gorako emakume guztiei zuzenduta dago ikastaroa.



Herri bazkarian batutakoak. IMANOL SORIANO



Nerea Matak eskainitako Zumba saioa. ANDONI MOTO



Alegria De La Sierra taldearen emanaldia. ANDONI MOTO



DJ Motoren saioan Intxaurtxuetako plaza beteta. ANDONI MOTO

Herritarren babesarekin, emaitza hobeezina

Intxaurtxueta eta San Pedro jaien balorazio "oso positiboa" egin dute auzoetako jai batzordeko kideek. Pasa den egubakoitzetik domekara arteko ekintzak arrakastatsua izan direla adierazi dute, eta azpimarragarriena herri bazkaria izan dela gaineratu

Imanol Beloki ESKORIATZA

Hemezortzi urteren ostean, berreskuratu egin dituzte San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaiak, eta auzoan poztasuna nabaria da. Izan ere, bertako bizilagunen lana eta prestutasuna ezin hobea izan dela adierazi dute jai batzordeko kideek, eta ilusioa izan dela nagusi gaineratu dute.

"Sekulako arrakasta izan dute San Pedroko eta Intxaurtxueta festek. Jendea gogotsu zegoen, hemezortzi urteren ostean, berriz ospatzeko jaiak, eta hori nabarmen geratu da. Gogoia bakarrik ez, auzotar guztien partaidetza txalotzekoa izan da, eta baita jaiak aurrera eramateko izan ditugun babesle guztien, Eskoriatza Udalaren, eta udal langileen laguntza ere", adierazi du Antonio Regaño jai batzordeko kideak.

Ekitaldiz betetako asteburua

70eko eta 90eko hamarkaden arteko kantuen *guateke* festa,

Flamenco fusión saioa, haurrentzako eta gurasoentzako jolasak, zumba saioa, Ipurua gimnasia taldearen erakustaldia, DJ Motoren saioa... izan da asteburuan zehar, eta auzoa bizirik eta batuta dagoela nabarmendu gura izan dute antolatzaileek: "Bi auzoak batzeko balio izan duen egitasmoa izan dela uste dugu. Implikazioa oso handia izan da, alde batetik, antolatzen aritu direnengandik, eta, bestetik, ekintzetan murgildu direnengandik. Hori horrela, festak amaitu berri, datorren urtera begirakoak ditugu buruan, eta data mantenduko dugulakoan gaude; hau da, Gatzagako festen ostean, auzoko festak izango ditugu berriro..."

IZANDAKO ARRAKASTAREN OSTEAN, DATORREN URTEAN BERRIZ ANTOLATZEA DA ASMOA

Azpimarragarriena, bazkaria

Zapatuan, Partxis plazan, jendetza batu zen, karpa azpian, bazkaritarako. Guztira, 400 pertsona, eta karpa ere txiki geratu zitzairen. Hala ere, egunerako prestatu zuten itsaski-fideuak arrakasta izan zuen, eta baita bazkalosteko musika emanaldiak ere. Hain zuzen ere, Alegria De La Sierra taldea izan zen oholta gaian: "Bazkaria bikaina izan zen, jendea gustura geratu zen jandakoarekin, eta osteko kontzertuan, berriz, asko disfrutatu zuten bertaratutakoek. Musika-riak eskoriatzarrak dira, eta, zenbait lekutan kontzertuak ematen dituzten arren, Eskoriatzan urte dezente zeramatzen kontzerturik eman gabe; beraz, harrera bikaina egin zieten".

Festa ostean, garbiketa

Festetan bikain aritu arren, dena jasotzeko prestutasuna ere agertu dute auzotarrek; hala, garbiketaren eta materiala jasotzen ere izan dira egunotan.



Iaz, Gatzaren Egunean, San Migel plaza jendez beteta. GOIENA

Sanmilixanetako azoka Gatzaren Egunean izango da

Urriaren 13an ospatuko den Gatzaren Egunean postua jarri gura duten artisauek izena eman beharko dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Laugarren urtez egingo da Gatzaren Eguna Gatzagan. Urriaren 13an izango da, eta aurten, sanmilixanetan egiten den eskulangintza azoka ere izango da. Izan ere, sanmilixanetan egiten diren ekitaldi guztiak Gatzaren Egunaren barruan egingo dituzte.

35 postu, oraingoz

"Gatzaren Egunean egiten dugun azoka eta sanmilixanetakoa batu ditugu. 35 postu inguru izango dira, eta, azoka ekologikoen postu kopurua beteta, artisauek

postua jarri gura badute aukera dute oraindik, eskaera eginez. Sanmilixanetan, berriz, egingo dugu ekintzaren bat edo beste, baina urtero egiten ditugun jolasak, mendi-irteera, museoko bisitak... urriaren 13an izango dira", adierazi du Joannes Mendizabal Kultura zinegotziak.

Hori horrela, eskulangintza azokara begira postua jarri nahi duten artisauen izen-ematea irailaren 30era arte zabalik egongo da. Horretarako, *Leintz-gatzaga.eus* webguneko parte hartzeko oinarriak eta eskaera-orria bete beharko dira.



JOANNES MENDIZABAL

Harrera beroa, festa giroan

Salies herrian Gatzaren jai ospatu zuten pasa den domekan, eta gatzagarrek ez zuten hutsik egin. Autobus bat bete jende joan zen hara, eta egitarauan zeuden ekintzez gozatu ahal izan zuten. Horrekin batera, harrera beroa izan zuten, eta Juanito Bengoa Leintz Gatzagako alkateak domina eta diploma jaso zituen herritarren izenean.

Jokin Bereziartua BERGARA

Ikasturte berriak albiste on bat dakar aurten 12 eta 17 urte arteko bergarrendako: lehen Xabalote izenarekin ezagutzen zen gaztelekuak itxura berrituarekin baina bereziki nobedade aipagarri batzuekin abiatu du ikasturtea. Urtebetez itxita egon ostean, eguaztenean ireki zituen ateak Zabalotegi aretoaren gainean dagoen gaztelekuak.

Esandako moduan, 12 eta 17 urte arteko nerabeei begirako zerbitzua da, eta eraikina bera "nabarmen" hobetzearekin batera, zerbitzua hobetzeko apustua egin du Udal Gobernuak. "Lehen, aste bukaeretan bakarrik egoten zen zabalik eta orain, eguaztenetik domekara bitartean irekiko da. Era berean, apustua egin dugu bertako langileen profilak hobetzeko. Lehen, begiraleekin funtzionatzen zuen gaztelekuak eta orain, hezitzaile titulua izango dute bertan lan egingo duten guztiek. Nerabeendako eskaintza hobetzea eta arlo horretan sakontzea garrantzitsua da guretzat", adierazi du Gazteria zinegotzi Ekaitz Aranberri.

Hain zuzen, gaztelekuak urtebetez itxita egotearen arrazoi nagusia izan da bertako langileak begirale izatetik hezitzaile izatera arteko tramitea. Atzerapena izan zen hor, eta gero, Udalak erabaki zuen ikasturte berriarekin batera irekitzea.

Lau hezitzaileak, bergararrak

Eskaintza hori indartzeko apustuaren adibide da ordutegia nabarmen zabalduko dutela: astelehenean eta martitzenetan, itxita egongo da; eguaztenetan eta eguenetan, 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; eta egubakoitzetik domekara, 17:00etatik 20:30era egongo da irekita.

Eguaztenetan eta eguenetan, bi hezitzaile egongo dira eta aste bukaeretan, nerabe gehiago joango direla espero dutenez, hiru. Lau hezitzaile ibiliko dira lanean: Leire Agirre, Saioa Agirre, Markel Manuel eta Alvaro Fernandez. "Hezitzaile guztiak dira bergararrak, gertukoak, eta uste dugu erabiltzaileendako

"NERABEENDAKO ESKAINTZA HOBETZEA ARLO GARRANTZITSUA DA GURETZAT"

EKAITZ ARANBERRI, GAZTERIA ZINEGOTZIA



Lau hezitzaileak eta Gazteria zinegotzi Ekaitz Aranberri, itxura berritu duen gaztelekuaren atarian. ARGAZKIAK: ARANTZAZU EZKIBEL

Berrituta ireki dute, astean bost egunez

Urtebetez itxita egon ostean, eguaztenean ireki zituen ateak gaztelekuak, eta, itxura apur bat berritu badiote ere, zerbitzua da bereziki hobetu dena: eguaztenetik domekara dago zabalik, eta horretarako propio titulua atera duten herriko lau hezitzaile ari dira lanean



Zabalotegiko pilotalekua erabilgarri izango dute nerabeek.



Guztien artean erabakiko dute nola entretenitu, besteak beste.



Euskara izango da gazteleku berrituaren ama-hizkuntza.



Sukaldean askotariko ikastaroak egiteko aukera izango dute.

hori balio mesedegarria izango dela", gaineratu du Aranberri.

"Harremanak dira motorra"

Gaztelekuako koordinatzaile Jon Ormaetxeak, baina, espazioan baino gehiago, barruan sortuko diren harremanetan jartzen du fokua: "Lokala urrezkoa izan daiteke edo nerabeendako ez dakit zenbat mila gauza jar daitezke, baina ez da hori sekula izango gaztelekuaren motorra. Hemen motorra izango da hezitzaile talde honek nerabeekin sortuko duten harremana. Hezitzaileak konfiantzazko erreferenteak badira nerabeendako, edozer egiteko gai izango gara. Horren bila joango gara".

Gaur egun espazio gehiena hutsik dagoela adierazi du Ormaetxeak, eta gustatuko litzaiekeela beteago egotea. Hala ere, hori bera aukera moduan enfokatzeko koordinatzaileak: "Nerabeek gaztelekuak euren gustura antolatzeke aukera ematen du, euren sentitu dezaten. Nerabeekin batera joango gara betetzen gaztelekuak, ez zen hasierako asmoa dena eginda ematea. Eurekin eskutik helduta joan nahi dugu, badakigulako sekulako gaitasunak dituztela".

Nerabeen arabera ekintzak

Hezitzaile horietako bat izango da Saioa Agirre bergararra: "Etor zaitezte, ondo pasatuko dugu eta. Nerabeen interesen arabera, guztion artean, erabakiko dugu zeintzuk izango diren garatuko ditugun dinamikak. Zabalik gaude edozein proposamenetara, eta balioko du jende berria ezagutzeko. Integrazioarako tresna oso baliagarria izan daiteke, aldi berean".

Doakoa, eta izenik eman behar ez

Gaztelekuak erabiltzeko bertaratu besterik ez da egin behar, irekita dagoen ordutegian. Ez dago kuotarik ordaindu edo izena eman beharrik. Gainera, zerbitzuaz gehiago jakiteko gurasoek aukera dute bertaratu eta galdetzeko; 2011n Xabalote izenarekin ireki zen gaztelekuaren gunere berean dago.

"KONFIANTZAZKO HARREMANAK IZANGO DIRA MOTORRA, EZ ESPAZIOA BERA"

JON ORMAETXE, KOORDINATZAILEA



Desitxuratu bai, baina euriak ez zuen helduen danborrada zapuzterik lortu. ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO, IMANOL SORIANO, ERTZAK ETA J.B.



Asteleheneko umeen danborrada Barrenkalean, San Martin plazan bukatu aurretik.

Kopuruak kopuru, kalitatezko festak

Udalaren arabera, sanmartinetako ekitaldi guztiak izan dira arrakastatsuak, oso bustia izan zen helduen danborrada barne, eta, oro har, ez da intzidentziarik izan; bestalde, nobedade izan diren Aukeran eta Ertzak Bidean taldeen ikuskizunek herritar asko mugiarazi dituzte

Jokin Bereziartua BERGARA

"Ekitaldi guztiak arrakastatsuak izan dira". Hala laburbiltzen du Udalak San Martin jaien gainean egiten duen balorazioa. Ekitaldirik popularrena, 700 lagun mugiarazi zituen helduen danborrada, oso bustia izan zen. Baina partaideek "ezin hobeto" erantzun zuten; hazten doa, eta ikusteke dago non duen sabaia. Umeen danborrada, berriz, beherantz doa. Iaz ez ziren 300 partaide izatera heldu eta aurten 250 bat ume izan dira. "Aztertuko dugu zergatik egin duen behera", dio Kultura zinegotzi Kristina Markinak.

Ikusi, entzun, jan, dantzan egin...

Beste ekitaldiei dagokienez, aipatzekoa da egubakoitzeko 34. dantza suelto txapelketan Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bergararrak izan zirela onenak:

"Seminarixoa bete egin zen, eta Bergarako bikotea izan zen txapelduna. Ezin da gehiago espero". Zapatuko feria, bestalde, "oso ondo" egon zela dio: "Jende ugari, giro aparta eta salmentak ere ondo". Beste klasiko bat da Simon Arrieta pintura lehiaketa: "Kalitatezko lanak aurkeztu zituzten, baina, zoritxarrez, hamabi artistak bakarrik hartu zuten parte". Joselu Anaien eta bandaren kontzertuek ez zuten hutsik egin, eta ikusleek ederto gozatu zuten.

Nobedadeen artean, Aukeran dantza taldearen *BizHitza* ikuskizunak 460 ikusle erakarri zituen

**DANBORRADETAN IA
1.000 KIDE, AUKERAN
TALDEAREN SAIOAN
460 IKUSLE, XAXAUREN
BAZKARIAN 90 GAZTE...**

frontoira zapatu gauean eta domeka eguerdiko Ertzak Bidean ikuskizun bergararra ere "sorpresa handia" izan zen. "Oso berezia izan zen. Publikoak asko lagundu zuen, feedback ederra sortu zen. Proposamen ezberdina denez, ikusle asko harrিতuta geratu ziren", adierazi du taldeko kide Aritz Alustizak.

Xaxauk, berriz, egitarau zabalak izan du; bereziki, zapaturako. "Bazkarirako txartel guztiak agortu ziren, 90 lagun elkartu ginen. Bazkalostean, bingoa izan genuen; gero, sekulako giroa jarri zuen txarangak; eta egun amaierako erromeriarekin eta No Limits talde bergararren kontzertuarekin txiki geratu zen Munibeko txosnagunea".


Amaitzeko, Udalak adierazi du jaiek iraun duten lau egunetan ez dela intzidentzia aipagarririk izan.



Eguraldia lagun, jende asko bildu zen zapatuko goizeko ferian, Oxirondon.



Ertzak Bidean-en ikuskizuna, Muniben.



Murgiondo eta Galarraga txapeldun.



Xaxauk antolatutako bazkarian 90 gazte elkartu ziren, Munibeko txosnagunean.

"Asko ikertu behar da oraindik korten inguruan"

ANDONI LARRAÑAGA BERGARAKO KORTEN GAINEKO HITZALDI SORTAKO HIZLARIA Antzina mendian ohikoak ziren borobil formako guneen gainean duen ezagutza partekatzen dihardu, eta ekarpenetara zabalik dago: 'bergarakorta@gmail.com'

Jokin Bereziartua BERGARA

Jaioterriko iraganaren gainean kuriositatea izan du betidanik Andoni Larrañagak (Bergara, 1964), eta interes horren ondorio moduan ulertu behar da *Bergarako kortak* izeneko hitzaldi zikloa antolatu izana. Lehenengo esperientzia du hizlari moduan –irailaren 12an eman zuen lehen saioa, Irizarren, eta 70 bat lagun elkartu ziren– eta GOIENARI aitortu dio esperientzia ederra izan zela. Bihar eskainiko du bigarren saioa, San Juan auzoko ermitan (11:00), eta hilaren 25ean beste hitzaldi bat emango du Angiozarko eskolako Arbiaska aretoan (18:30). Baina asmoa da aurrerago beste saio batzuk ere egitea.

Bergarako kortak dute izenburu saioek. Zer aurreratu dezakezu?

Ehunka urtetan zehar gure mendietan borobil handi batzuk egon zirela, oso garrantzitsuak izan zirela abeltzaintzaren eta mendiaren ustiapena antolatzeko eta baserrien iraupena ziurtatzeko. Leku bereziak ziren. Borobil horiek neurri jakin batzuetakoak ziren, erabilera arautua zuten, eta kokapen aldetik ere ondo aukeratutako lekuetan eraikitzen ziren. Borobil horien jabeak edo esku-bidedunak bakarka edo taldeka antolatzen ziren. Horietakoa asko baserrien jaioleku izan ziren geroago.

Erabilera arautua zutela kortek? Zer esan nahi duzu horrekin?

Ba, korta edo borobil formako gunen horien inguruko lurak libreak edo edozeinek erabiltzeko modukoak baziren garai haietan, kortek beste jabetza edo erabilera eskubide batzuk aitortzen zituztela, pertsona jakin batzuei bakarrik zegozkienak. **Ze gariaz ari gara berbetan?**

IX. menderako aipatzen dira Nafarroako dokumentu batzuetan. Aurretik ere egongo zirela pentsatzekoa da, baina hori arkeologiak zehaztu beharko du.



Andoni Larrañaga Mendizabal. A. L.

"GAI EZEZAGUNA DA ASKORENTZAT; EZAGUTU DEZAGUN GURE HISTORIA, EZAGUTU GAITEZEN"

Kortek, besteak beste, *kortarri* izeneko mugarriz berezi batzuk zituzten; aurkitu diren *kortarri* batzuetan indusketa arkeologikoak egin dira eta harriaren azpian aurkitutako aztarnei karbono-proba egin zaie antzinatasuna jakiteko, baina emaitzek ez dute zehaztasun handirik eman; kristo aurreko 1000. urtetik Erdi Arora artekoak izan daitezkeela ondorioztatu da. Emaitza zabalegia da, eta, beraz, indusketa gehiago egin behar dira. Bergaran ez dugu aurkitu *kortarri*-rik, oraingoz.

Nolako harrera izan zuen irailaren 12ko lehen hitzaldiak?

Oso ona. Harrituta gelditu ziren asko. Gai ezezaguna da, eta aspaldi euren ondoan dauden eta horrenbeste ezagutzen dituzten baserrietan edo mendietan horrenbeste gauza pasatu direla jakiteak harriztasuna laga zituzten.

70 bat lagun elkartzea bada zer bait. Zerk uste duzu piztu zuela interesa?

Agian, erabili nuen materiala Bergarako kortei buruzkoa izateak. Ez nuen erabili Bergaraz kanpoko irudirik, maparik edo dokumenturik. Guztiek ezagutzen zituzten mendien argazkiak aurkeztu nituen, baina kortekin, han zegoen edo egon zen eta ezagutzen ez zuten zerbaitekin. Ikusle batek esan zidan ez zela egon galderarik egiterik inork ez zekiela zer galdetu, sorpresa itzela izan zelako, kortei buruz ez zekitela ezer ordura arte.

Askotan gertatzen zaigu norberaren herriko historia ez dugula ezagutzen...

Esaerak dio izan zirelako garaia eta garelako izango direla. Aspalditik gaude errotuta lur honetan eta horregatik historia luzea daukagu, eta gertaerez betetako iragana. Ezagutu dezagun. Ezagutu gaitezen.

Ezer gaineratu nahiko zenuke?

Oraindik, asko ikertu behar da Bergarako korten inguruan. Honako hau lehen hurbilketa besterik ez da izan, asko dago egiteko. Norbaitek parte hartu nahi badu, idatz diezadala honako helbide honetara: *bergarakorta@gmail.com*.



NIRE USTEZ

ASIER ELORZA

Arazo puntuala

Normalian nere idatzietan umore tokia emotia gustatzen jat, baina oraingo honetan serio jarri behar naiz, asuntua serixua da-eta: puntualitatea. Onartu biharra daukat ez naizela perfektua, defektu bat badaukat gutxienez: puntuala naiz.

Ez dakit zer gertatzen jaten... ezin dot ebitatu... denetik egin dot puntuala ez izateko: tila supositorixuak, barraskilo moko infiltraziñuak... baina ezer be ez... Talde terapia baten parte hartzeko ere apuntatu nintzen, baina geratutako orduan agertu nintzianan bilera bukatzen zegoen –ni baino okerrago zeuden seinaleztat hartu neban–. Konturatzen naiz nere gaixotasun berdina daukazuen gutxi batzuk bazaudetela –denok medikauta–, esan nahi dotsuet ez zaudetela bakarrik eta denon artean lortuko dogula 10 minutu hoiek gure ordulariari gehitzea. Azkenengo asteetan hobeto sentitzen hasi naiz eta batzutan lortzen dot ordua ez betetzia. Momentu hoietan, gizartean onartua nagoela sentitzen dot... Bide onean noia eta laister guztiz sendatua egongo naizela uste dot. Eskerrik asko zuen ulermenagatik eta laster arte...edo berandura arte...

Atzerritarrek euskara ikasteko aukera dute Udal Euskaltegian

Atzerritik etorri eta euskara ikasteko interesa dutenei "eskaintza berezi bat" egin zaie Aisa izeneko ikastaroen bidez. Euskara ikasten hasteko 60 orduko ikastaro bat antolatu du Udal Euskaltegiak, HABErekin eta Udalarekin elkarlanean. Izena eman behar da irailaren 27a baino lehen, Irizar jauregian dagoen Udal Euskaltegiara joan-

da edo telefonoz deituta: 943 76 44 53. Hain zuzen, 16 urtetik gorakoendako da eta astean lau ordu izango dira, bi egunetan banatuta: astelehen eta eguazten edo martitzen eta eguen. Egunak eta orduak aukeran utzi dituzte, zein komeni den adierazi beharko du interesatuak eskaria egiteko orrian. Eta eskariak jaso ondoren erabakiko dute zein egun eta ordutan izango diren eskolak. Ikastaroaren prezioa hamar euro da; gutxieneko asistentzia, berriz, %85.

OHARRAK

1939an eta 1942an jaiotako ospakizuna

Duela 80 urte jaiotakoek urriaren 5ean Lasa jatetxean bazkalduko dute (14:30). Izena emateko: 943 76 13 30 (Rosarito) edo 943 76 24 79 (Eulali). 1942koek urriaren 5ean Zumelagan bazkalduko dute, eta 30 euro aurreratu behar dira irailaren 27a baino lehen: ES04 3035 0009 11 0091155205 (Laboral Kutxa).

Hizkuntza taldeen osaketa, irailaren 30era arte

Edozein hizkuntza praktikatzeko taldeak sortu nahian dabil Udala; taldeak autonomoak izango dira, ez da irakaslerik egongo. Gehienez, zazpi lagun; eta gutxienez, lau. Izena eman behar da hilaren 30a baino lehen, *www.bergara.eus* webgunean.

Jardun: eskolaz kanpoko euskara errefortzuak

LHko ikasleei zuzendutakoa da, astelehenetik egubakoitzera. Urrian hasiko dira, eta umeen mailaren arabera ordutegi ezberdinak izango dituzte. Izena eman behar da Jardunen egoitzan –Udal Liburutegia– edo 943 76 36 61 telefono zenbakian.

Oparitu Zuhaitz Bat ekimena irailaren 26an

Udal Liburutegian izango da (19:30). Aztergaiak: lan istripuak, kooperatiba energetikoak eta Fiare banku etikoa.



Mendiko txirrundulari bat domekako probaren berri emateko argazkian. PALMERAKUAK

"Lan handia egin dugu ziklistek gozatu dezaten"

Domekan egingo da Palmerakuen mendi bizikleta martxa, eta, euria iragarrita badago ere, antolatzaileek espero dute 200dik gora ziklista erakartzea; aldaketak izango dira prestatu dituzten bi ibilbideetan eta Agorrosingo helmugan parrilada izango dute zain ziklistek

Jokin Bereziartua BERGARA

Badator bergarar eta bisitari askorendako urteroko zita bihurtu den martxa, badator Palmerakuen mendi bizikleta martxa. Domekarako antolatuta dute; zazpigarren aldian du. Agorrosin Kirol Gunetik irtengo dira, 09:00etan, eta helmuga Agorrosin bertan egongo da.

Helmugan, gainera, sari ederra izango dute ziklistek: "Martxa festa bat izatea nahi dugunez, bukaeran parrilada eder batekin indarberritzeko aukera izango duzue. Beraz, eman gogor!", adierazi dute sare sozialen bidez. Urtero moduan, Elosu, Trekutz eta Irimo inguruan ibiliko dira ziklistak, baina aldaketak iraga-



Mendiko txirrundulari bat. PALMERAKUAK

ri dituzte ibilbidean. Gaur arte, *Kirol probak* webgunean eman daiteke izena, eta etzi Agorrosin ere egongo da horretarako aukera; gehienez, 300 ziklista onartuko dituzte. Aldez aurretiko izen-ematearen prezioa 12 euro da federatuendako eta 15 euro ez federatuendako. Domekan izena ematen duenak 20 euro ordaindu beharko du.

Jaitsiera berri bi ibilbidean

Bi ibilbide izango ditu martxak: luzeak 40 kilometro eta 1.600 metroko desnibel metatua izango ditu eta laburrak, berriz, 30 kilometro eta 1.200 metroko desnibel metatua. "Ziklista baikoitzak erabakiko du, zailtasun

teknikoaren arabera, ze ibilbideetatik joan", adierazi du antolakuntza taldeko Alex Gardokik. Hark dio "lan handia" egin dutela ibilbidea garbitzeko: "Sekulako garbiketa-lanak egin ditugu, bide bazterrak ahalik eta garbien egon daitezten eta ziklistek gozatu dezaten. Zapatuan egingo ditugu markaketa-lanak".

Ibilbideko aldaketei dagokienez, bi jaitsiera berri iragarri ditu Gardokik: "Bat teknikoa izango da eta bestea, errazagoa, baina bi jaitsiera horiek berriak izango dira; amaieran, nahi duenak Antzuolako DH [Downhill] jaitsieraren zati bat izango du aukeran; hori egin nahi ez duena PR ibilbidetik jaitsi ahaliko da lasai-lasai". Gardokik aitortu du eguraldia "klabea" izan ohi dela partaide kopuruan: "Iaz, 216 txirrundulari izan ziren eta espero dugu aurten antzeko kopurua izatea. Ea eguraldiak laguntzen duen".

Kirola Kalean, bertan behera

Mugikortasun Asteko autorik gabeko eguna aprobetxatu ohi du Udalak Kirola Kalean eguna antolatzeko. Domekako da autorik gabeko eguna, baina eguraldi iragarpenak "oso txarrak" direla-eta Kirol Zerbitzuak erabaki du ekimena bertan behera uztea. Hala ere, ekintza batzuk mantendu egingo dira. Palmerakuen martxa da horietako bat eta baita Hankaluze Trail-ekoek Hiru Tontorretara antolatu duten mendi irteera ere; Labegaraletatik irtengo dira, 09:00etan, eta bertan eman ahaliko da izena. Amaitzeko, Bergara Hiria xake txapelketa ere jokatu da, Agorrosingo gela handian, 10:00etan hasita. Domekan hasi eta bukatuko dute, eta 100 bat lagun aurreikusten dituzte.

Futbol federatua eta futbol eskolan izena emateko azken egunak

Bergara Kirol Elkarteko futbol saileko zuzendaritza taldeak aditzera eman du 2019-2020 denboraldirako futbol federatua eta futbol eskolan izena emateko azken egunak direla. Izan ere, irailaren 23an, 24an, 25ean eta 26an irekita egongo da Agorrosin futbol zelaiko bulegoa, arratsaldeko seietatik gozte-tara. Futbol Eskolatik gazte mailara arteko gurasoak daude deituta. Gogorarazi dute izen-ematea gauzatzeko derrigorrezkoa dela seme-alaben datuak eta bankuko kontu korrante zenbakiak eroatea. Izen-emateaz gain, legeak hala eskatuta, hainbat baimen eta irudi eskubideak onartzea sinatu beharko dute.

Pilota: Bergara Hiriko finalerdiak jokatu dira irailaren 24an

Emakumezkoen Bergara Hiria txapelketaren bigarren edizioko finalerdiak hilaren 24an jokatu dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Lehenengoan, Barrocalek eta Agirrek Etxegarairen eta Galeanoren aurka neurtuko dituzte indarrak eta bigarrenean, Salsamendi eta Mendiburu Zubizarretaren eta Osesen kontra lehiatuko dira. Final handia urriaren 1ean jokatu da, 19:30ean. Ordu horretan, erakustaldi partidua hasiko da: Arrate Bergara eta Nora Mendizabal Leire Garairen eta Olatz Ruiz de Larramendiren aurka lehiatuko dira. Partidu hori amaitzen denean jokatu da II. Bergara Hiria txapelketako final handia.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

UGARTE
AROSZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak - Koltxoak
Horma-armairuak
Altzariak neurria
Ateak - Eskailerak
Leihoak - Tarimak
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugarte-aroztegia.com

21 K
KALITATEA

Enpresa Registrada V100/025

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA



Kultura Kalera, iaz, Bergaran. IMANOL SORIANO

Hamazazpi elkarte kultura kalera ateratzeko

Herrian martxan diren kultura elkarteak izango dira protagonista iraileko azken aste bukaeran. Egubakoitzetik domekara, zer eta nola egiten duten ikusteko aukera izango da Udalarekin elkarlanean gertatutako erakustaldietan eta emanaldietan

Larraitz Zeberio Lekuona BERGARA Urteroko hitzordua da Kultura Kalera, eta badator aurtengoa ere. Herriko hamazazpi kultura elkarteak iragarri dute parte hartzea. "Ekimenaren helburua da herriko kultura elkarteak ezagutzera ematea eta jarduerak kalera ateratzea", ekarri du gogora Kultura zinegotzi Ekaitz Aranberrik. "Gauza asko egiten

dira herrian, eta, askotan, ez dugu horren berri. Elkarteek domeka goizean eta eguerdian ipiniko dituzte mahaiak kalean, eta herritarrek aukera izango dute informazioa jaso eta, nahi izanez gero, izena emateko", gaineratu du Mainer Osa teknikariak.

Egitarau zabala aurkeztu dute, eta ekintza gehienak San Martin plazan izango dira. Egubakoi-

tzean, hilak 27, umeendako jolasak izango dira, Jardunen eskutik. Zapatuan, bisita gidatua izango da, eta izen-ematea zabalik da Laboratoriumen. Domekan, berriz, elkarten tailerrak eta erakustaldiak izango dira. Aste bukaera berezia izango da eta *foodtruck* edo janaria saltzen duten furgonetak ere egunero izango dira herrian.

'Agur, Etxebeste!' pelikularen sei emanaldi Seminarixoan

Eguaztenean egingo dute lehenengoa, eta osteko solasaldirako izango dira bertan Altuna eta Esnal

L.Z.L. BERGARA

Domekan estreinatuko dute *Agur, Etxebeste!* Donostia Zinemaldian. Beste bi emanaldi izango dira Zinemaldiaren barruan: bata Victoria Eugenia eta bestea Antigu Berrin. Irailaren 27tik aurrera izango da pelikula zinema-areto komertzialetan.

Bergararako sarrerak, salgai

Kontuan hartuta pelikula herrian eta herriko protagonista askorekin egin dela, Bergarako Seminarixoan ere emanaldiak egingo dituzte.

Eguaztenean, hilak 25, izango da lehena, 20:30ean. Bertan izango dira Asier Altuna eta Telmo Esnal zuzendariak.

Irailaren 27an eta 28an, emanaldi bana egingo dute, 22:00etan. Domekan, hilak 29, 17:30ean eta 19:30ean izango da pelikula ikusgai. Azken emanaldia, berriz, hilaren 30ean izango da, 20:30ean. Azken bi proiektzioak gazte-erazko azpituluekin izango dira. Sarrerak gaur jarriko dituzte salgai *Tickets.kutxabank* plataforman eta Seminarixoko txar-teldegian, 18:00etatik 20:00etara.

Jardun antzerki eskola martxan izango da urrian

Zabalik da izen-ematea. Haur eta gazteendako saioak egubakoitzetan izango dira eta helduendakoak, berriz, martitzen. Antzerkia hezkuntza tresna garrantzitsua da eta tailerrak ludikoak direla gogoratu dute antolatzaileek. "Ahozko eta gorputzeko adierazpena modu dinamikoan lantzen da, eta metodologia parte hartzaileak talde-lana, elkartasuna eta hausnarketa bultzatzen ditu". Helburuen artean daude gorputza ezagutzeko, pentsatzeko, arrazoiatzeko eta kritikatzeko gaitasuna eskuratzea; ahozotasuna eta komunikazioa lantzea; eta noski, hizkuntzan eta hiztegian sakontzea.

Sorkuntza artistikoa lantzeko tailerrak egubakoitzetan

Bigarren urtez, sorkuntza artistikorako tailerra gidatuko du Amaia Santamaria arte graduatu bergararrak, Beart elkarteren egoitzan. Saioak egubakoitzetan izango dira, 17:30etik 20:30era, eta marrazketa, pintura, eskultura eta argazkilaritza landuko dira. "Sorkuntza prozesuak garatzea izango da helburua, ez hainbeste gauzak kopiatzea. Eskura ditugun materialekin esperimintatuz nor bere interesetatik eta motibazioetatik lan egitea bultzatuko dut lan giroa sortuz", adierazi du. Garrantzia ematen dio irudimenari eta adierazi du helduendako dela. "Denok heldu gaitzeko gustuko zerbait sortzea".

Musika saioek, garrantzi berezia

Egubakoitzean, 20:30ean, entsegu irekia egingo du Bergarako Orkestra Sinfonikoak Musika Eskolan. Zapatuan, berriz, kontzertu berezia eskainiko dute Bergarako Orfeoiak, Orfeoi Gazteak, Aritzeta abesbatzak eta San Xoxepe abesbatzak, 19:00etan. 106 ahots elkartuko dira. Alai taldearen kalejira domeka eguerdian izango da.



Alai taldearen kalejira, iaz. IMANOL SORIANO

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu erizimera

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

Hamabost bat postu izango dira plazan bihar

Herriko baserriarrek eta artisauekin egitekoa den azoka 10:30ean zabalduko dute, eta, eguraldiarengatik, aurtan iazkoa baino uzta hobea izan dutela adierazi dute ortuzainek. Umeendako tirolina, Intxortako igoera eta txaranga ere izango dira, plazan

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Irene Bolinaga, Jose Antonio Ojanguren, Rosa Unzetabarrenetxea eta Sebastian Arantzabal plazan izango dira bihar, etxean ekoiztutako produktuekin. Herriko baratze parkeko ordezkariek osatuko dute barazkien eta fruten eskaintza. Bestelako jakiak ere izango dira. Marokoar gozoein bi postu, bertako produktuekin egindako pintxoekin beste postu bat eta seigarren mailako ikasleak bizkotxo eta mota askotariko postuekin.

Artisauen atalean, Pili Arinek, Lorena Ibeasek, Camila Andrea Diazek eta Igor Hercek baieztatu dute parte hartzea. Hercek burdin-lantze erakusketara egingo du. Ekogunek eta Udal Liburutegiak ere ipiniko dute postua.

Azoka amaieran, bertako produktuekin osatutako otarre bat zozketatuko dute antolatzaileek, erosketak egin dituztenen artean.

"Aurrekoa baino urte hobea izan da honako hau, eta uzta hobea izan da", adierazi du baserriarra eta baserriarren batzordeko buru den Sebas Arantzabalek. "Iaz, hezetasun handia izan zen, eta aurtan, esaterako, tomate gehiago egon da. Fruta aldetik ere hobeto ibili gara. Sagarrak, madariak, okaranak... gehiago eta hobeak etorri dira".

Bertako produktuen erakusleihu

Udalak antolatzen du urtero azoka. Baserriarrek eta artisauekin elkarlanean herriko ekoizten diren produktuak ezagutzera ematea da helburu nagusia. Urte osoan ekoizten dira produktu horiek, eta saltzeko dituzte gainerako hilabeteetan ere. Baratze produktuaren kasuan garaian garaikoa, noski. "Azoka erakusleihu bezala egiten dugu, jendeak jakin dezan zer dagoen hemengo baserrietan eta nahi duenak urtean zehar erosketak bertan egiteko aukera hori izan dezan. Zein baserriar



Baserriarren azokako postu bi orain urte batzuk. L.Z.L.

BERTAN EKOIZTUTAKO PRODUKTUEI IKUSGARRITASUNA EMATEA DA HELBURUA

zein produktu lantzen diren ezagutzera emateko ere bai", azaldu du Arantzabalek.

Artisauek ere urte osoan ekoizten dituzte euren sorkuntzak. Eskaripeko enkarguak ere onartzen dituzte, eta, hain zuzen, produktu guztiz pertsonalizatuak egiten dituzte.

Tirolina eta Dunbots txaranga

Azokara adin guztietako publikoak gerturatzeko, aurtan ere tirolina bat izango da Mendizaleen plazan. Udaletxeko goiko solairutik plaza barrenera zintzilik joateko aukera izango dute neska-mutikoek. Iaz, harrera ona izan zuen tirolinak, eta aurtan ere horrela izango delakoan daude antolatzaileak.

Festa giroa ziurtatzeko, berriz, Dunbots txarangak kaleak eta plazak alaituko ditu bere musikarekin.

Intxortako igoera, 11:00etan

Azoka egunarekin jokatu da aurtan ere Intxortako igoera. 10:30ean zabalduko dute izen-ematea, plazan, eta, aurrekoetan moduan, hiru kategoria izango dira: 12 urtera artekoak, 12-16 urte bitartekoak eta 16 urtetik gorakoak. Gazteenendako lasterketa Salvador ermitara joan-etorria egitea izango da.

Intxortako Ahuntzak elkarteak kideek taldeko elastikoak estreinatuko dituzte lasterketan. Atera dituzten kamisetak saltzeko mahaia ere ipiniko dute. Indarrean dauden markak hobetzeko erronkak hor jarraitzen du. Eleder Lozanok 16.14 egin zuen 2015ean eta Argider Txurrukak, berriz, 27.00 2018an.



TXOMIN MADINA

19 langileak, greba mugagabeen

Lau hilabeteko negoziazioen ostean mahai ganean dagoen birkokatze planteamendua bermerik gabekoa dela iritzita, greba mugagabeen dira astelehena ezkererako Cie Alurecyko langileak. "Multinazional handia da, eta, zuzendaritzak benetako borondatea balu, konponbidea erraza litzateke", esan du LABeko Zorion Ortigosak. Zuzendaritzak ez du adierazpenik egin.

'Baile en el sindicato' filma, memoria jardunaldien barruan

Eguaztenean Eztizen Mirandak egitekoa zuen hitzaldia bertan behera gelditu da. Horren ordez, irailaren 27an, *Baile en el sindicato* aurkeztuko du Sergio Balchada *Satxa* gidolariak. 1936tik 1937rako negua da eta Arabako Maroño herriko Rosaritok hurreman estua egingo du Alicia miliziano anarkistarekin. Filmak 100 minutu irauten du, eta on-

doren, galdera-erantzunen txanda izango da. Emanaldia udaletxean izango da, 19:15ean, eta *Elgeta erresistentziaren memoria* jardunaldien barruan kokatzen da. Hurrengo astean, hitzaldi bana egingo dute Manolo Cainzosek eta Txema Barrutiak. Antzetzutako bisita gidatua ere iragarrita dago urriaren 6rako. Boluntarioak behar dira antzezle lanetarako; batez ere, emakumeak. Herria girotzeko, berriz, marmitak eta banastak falta direla adierazi dute antolatzaileek.

Bidaiatzeko gomendioak erretiratuendako

Elgetako Xalbadorpe erretiratuaren elkarteak Kontsumobiderek elkarlanean antolatuta tailer berezia izango da eguaztenean, irailak 25. Bidaiatzerakoan pertsona orok dituen eskubideen eta betebeharren berri emango du Begoña Olabarrieta kontsumo hezitzaileak. Saioa 17:00etan izango da, udaletxeko areto nagusian.

OHARRAK

Mendi irteera

Domekan, irteera Larranora, Kantsatzekek antolatuta. Taldea 08:00etan abiatuko da.

Kirol zerbitzuak

Jarduerak doan ezagutzeko aukera irailaren 23ko astean.

Baserriko plastikoa

Mankomunitatearen bilketa zerbitzua, hilaren 24an. Eskaerak: 943 76 25 47.

Gabonetarako erabilgarri egongo da Torresoroa

Hiru hilabete iraungo dute Torresoroa aretoa konpondu eta berritzeko lanek. Aseguruen Kontsortzioak hartu du bere gain eurite bortitzek eragindako kalteen gehiengoa. Udalak, baina, zenbait hobekuntza egiteko 50.000 euro bideratuko ditu

Maidar Arregi ANTZUOLA

Uztailean hasi ziren Torresoroako lanak; abuztuko geldialdiaren ostean, irail hasieran ekin zioten lanei berriro. Hirigintza teknikari Valen Moñuxek espero du konponketa eta berrikuntza lanak hiru hilabetean eginda egotea. "Irailean, urrian eta azaroan zehar egingo dira lanak. Espero dugu urte bukarrerako amaituta egotea. Epe hori aprobetxatuko dugu hondatutako altzariak eta azpiegitura erosteko, gero dena prest izateko eta denbora aurrezteko. Gabonetarako gura dugu Torresoroa guztiz erabilgarri edukitzea", argitu dio GOIENARI Valen Moñuxek.

Gainera, Antzuolako Udalak Aseguruen Kontsortzioarekin adostu berri du kalte-ordainen kopuru zehatza zein izango den. "Kalteak eurite bortitzek eragin dituztela egotzita, erantzule Aseguruen Kontsortzioa egin da. Adostasuna lortu da eta, beraz, 326.000 euro ordainduko du aseguruak indemnitzazio gisa", argitu du.

Liburutegia, 'zero gunea'

Kalte handienak lehen solairuak jasan zituen 2018ko ekainaren 3an; batez ere, liburutegiak. "Ura lehen solairutik sartu zen eta



Langilea, urak hondatutako paretia zatia zulatzen. MAIDER ARREGI

ASEGURUEN KONTSORTZIOAREKIN 326.000 EUROKO KALTE-ORDAINA ADOSTU DU UDALAK

kalte handienak ere bertan gertatu ziren. Auditoriuma, zorionez, ez da guztiz hondatu".

Hobekuntzak

Torresoroako lanak aprobetxatuta, 50.000 euroko kostua duten

hobekuntzak egingo ditu Udalak. "Lehen solairuan, aldaketak eta hobekuntzak egitea erabaki du Antzuolako Udalak. Hobekuntza dezente izango dira, gainera".

Torresoroa berrituak izango dituen hobekuntzak hauexek izango direla jakinarazi du Udalak: bi ate berri jarriko dira eraikinean –bat automatikoa–; ikasteko zona berregokitu egingo da; antzokiko argiteria ere ipiniko da; eta segurtasun neurriak hartzeko, kamera jarriko da Gizarte Laguntzailearen bulego inguruan.



Pausokako presidentea, eskolako irakasleak eta Antzuolako alkatea. PAUSOKA

Eskolaren pedagogia defendatu dute Eusko Legebiltzarrean

Herritarrek eskola ereduari erakutsitako babesa sinaduretan islatuta eroan dituzte Legebiltzarrera

Maidar Arregi ANTZUOLA

Herri Eskolako bi irakasle, Antzuolako alkate Beñardo Kortabarria eta Pausoka Guraso Elkarte Nora Legorburu presidentea Legebiltzarrean izan dira asteen.

Gaur egun Antzuolako Herri Eskolaren pedagogiak bizi duen egoeraz jardun dute Legebiltzarreko politikariek, eta herritarren babesa adierazten duten sinadurak eroan dituzte. "Ondo joan da agerraldia. Inpresio onarekin irten gara. Orain, ikusi egin behar da zerbait egiten duten", azaldu du Pausoka el-

karteko presidente Nora Legorburuk.

Pedagogia propioa defendatuz

Udaberrian egin zuen Pausokak eskola pedagogiaren egoera zein den azaltzen zuen bilera informatiboa gurasoekin. Eta bertan, pedagogia propioak jarraipena eta etorkizuna izan dezan lan egin gura dutela azaleratu zen.

Eta babes horren isla ere bada herritarrek erakutsitako babesa. Izan ere, sinadura kanpainako lehen hiru egunetan 500 sinaduratik gora batu zituzten Antzuolan.

OHARRAK

BTT martxa domekan

Bergarako Palmerakuak MBT taldeak mendi bizikleta martxa antolatu du irailaren 22rako, domeka. Antzuolako lursailetatik pasako dira parte hartzaileak: Trekutz eta Lizarriturriko inguruetatik. 13:00etarako txirrindulari guztiak igarota egotea espero dute antolatzaileek.

Eskulanen ikastaroa

Edurne Uribealgoren eskulan ikastaroetan izena emateko epea irailaren 27ra arte dago zabalik. Interesa dutenek –heldu zein haur– udaletxean bete beharko dute izen-emate orria.

Luzaketa ikastaroa

Asteko lanegunetan eskainiko dira, Olarango areto nagusian, luzaketa saioak, 09:30ean hasita. Doakoak dira eta edonorendako daudela atek irekita adierazi dute Landatxopeko kideek.

Europako mendietara irteera

Arrolak urriaren 12 eta 13ko astebururako atzeratu du Europako Mendietara irteera. Hogei plaza daude aterpetxean. Beraz, izena eman beharko dute interesa dutenek, arrolamt@gmail.com helbidera mezua idatzita.

Aretoko lur guztia altxatu beharko da

Torresoroako auditoriumak kalteak jasan zituen, baina, zorionez, ez liburutegiak jasan zituenaren adinakoak. "Ura ate azpitik sartu zen auditoriumera. Baina metro batera iritsi zen ura eta almeneko material guztia hondatu zuen –bafleak...-. Kalte handiena, baina, auditoriumeko lurra jasan zuen, eta aldatu beharra dago", argitu du Hirigintza teknikariak.



Langilea Torresoroako aretoan lanean. MAIDER ARREGI

"Herritarrei kirola gerturatu gura diegu"

IBON GEZALAGA AKE-KO PRESIDENTEA

Denboraldi berriko taldeak aurkeztuko ditu Antzuolako Kirola Elkarteak hilaren 27an, 19:00etan, Herriko Plazan. Kategoría guztietan banatuta, 170 jokalaria ditu klubak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Denboraldi berria aurkezteko eta herritarrei kirola gerturatzeko asmoz, lehenengoz festa bat antolatu du AKEk, irailaren 27rako. Aurkezpenaren gainean eta klubaren egoeraz berba egin du klubeko presidente Ibon Gezalagak Goiena telebistan.

Denboraldi berriko aurkezpena antolatu duzue lehenengoz.

Egia da AKE Egunarekin denboraldiari bukaera ematen diogula; aurtan, pentsatu dugu hasiera ere ematea eta herrira zabaltzea. Hala, talde guztiak banan-banan aurkeztuko ditugu Herriko Plazan eta pintxo batzuk ere banatuko ditugu. Eztalara igotzen ez denak aukera izango du egiten duguna ikusteko.

Zein da helburua?

Helburua da kirola herrira zabaltzea; gure klubetan jokatzen duten neska-mutikoak gustura sentitzea eta kirolaz gozatzea. Hurrengo denboraldian ere parte hartzeko gogoia izatea, alegia.



Ibon Gezalaga, AKEko presidentea, Goiena telebistan. MAIDAR ARREGI


Zenbat talde daude?

Kategoría guztietan ditugu taldeak. Infantiletan, gainera, bi talde izango ditugu. Horrez gain, futbol eskolako talde mistoak ditugu. Nesken taldea ezin izanda osatu, ordea, jokalaria falta-

gatik. Baina infantiletako talde bat mistoa da.

Futbol eskolak indarra du.

Bai. 2016an hasi ginen eta urte-urtera parte hartzea handiago da. Aurtan, 80 bat gaztetxo espero ditugu futbol eskolan.



Aldagelak eta taberna irudikatzen dituen proiektua. AKE

Jokalariendako lau aldagela

Onartutako proiektuak epailearendako aldagela, masaje gela eta jokalariendako lau aldagela izango ditu. Eraikinak taberna alboan du itsatsita, espazioa aprobetxatzeko helburuarekin. Lanak otsailean hasita, datorren denboraldirako prest izango dira.

Kluba osasuntsu dago.

Boluntario-lan handia egin da eta gurasoen inplikazioa ere handia izan da –autoekin aurrera eta atzera, ekintzak antolatzen...-. Egun, 350 bazkideetik gora gara. 170 bat neska-mutiko ditugu jokatzen. Kopuru handiak dira herri txiki batendako.

Aldagela berriak egiteko hitzarmena sinatuta dago. Baina noiz izango dituzue aldagelak erabilgarri?

Une honetan, esleipena martxan dago. Administrazio kontuek urtarilerara arte iraungo dute eta otsailean eraikin zaharra

botako dute. Orduan, berria egiteko lanak hasiko dira. Guk abendurako eskatuta dugu aurrerabizirik behin-behineko aldagela. Nahiz eta otsailean aldagela zaharrak bota, aurrez lotuta izan gura dugu. Aldagela berriak datorren urteko denboraldirako martxan izango dira.

Bihar, derbia, Eztalan.

Lehen taldeak bihar 16:30ean Mondrarekin neurtuko ditu indarrak. Baina gazteek eta kade-teen ere Mondra izango dute aurkari asteburuan.



NIRE USTEZ

ALAITZ JAUREGI

Plastikoa bai, baina ondo erabilia

Gaur egun, besterik ez da entzuten: ez erabili plastikorik! Ba, ni ez nago ados, zeren plastikoa badauka bere funtzioa, baina modu egokian erabilia. Dena etortzen da plastikoa batuta; batzuetan, ogia bera baita ere. Arazoa ondoren norberak ematen dion erabileran ere badago.

Gutxitzearen alde nago, beharrezkoa denean bakarrik erabiltzea da egin genezakeen onena. Baina poltsei prezioa jartzea multak ez kobratzeko ez dut uste mentalizatze modu egokiena denik. Gure

dendan saiatzen gara beharrezkoa denean bakarrik eskaintzen poltsak, baina ez da erraza guztiz kentzea. Pentsatu igande arratsalde batean pasean zabiltzala, goxokiak erostea okurritu, eta etxera joan behar duzu poltsa hartzera? Bost xentimoko poltsa maskal bat erosi, gero ez erabiltzeko?

Gai honi buelta asko eman diogu dendan. Saiatu gara irtenbideak topatzen, baina, oraingoz, topatu dugun irtenbide onena da: bakoitza arduratu dadila gero poltsari ematen dion erabileraz. Guk,

ahal dugun heinean, birziklatu egiten ditugu. Laster egongo da denda jarrita kaxa bat erabilitakoak batzeko. Zertarako izango diren?

Txakurren kakak batzeko, adibidez. Opor sasoiko arratsaldeetan, gaztetxoek poltsa handiak hartu eta herriko bazterretan zakarra batzen jardun dute –poltsa txikiak eskularru gisa erabili dituzte-. Hori bai dela borondate eta kontzientzia maila ona! Hori bai dela plastikoa gaiari beste buelta bat emateko konponbide ona!



@JIRABIRA

Tarteko helmuguen saria Altsasun

Euskalduna Sariko azken lasterketan, Aritz Kortabarriak tarteko helmuga saria eskuratu du, Altsasun. Grupo Eulen-eko txirindulariak domekan Zaldibian amaituko du denboraldia: "Pertsonalki, ez zait nahi bezalako urtea atera; aurrean ibili bai, baina benetako momentuan ez dut asmatu errematatzen; nahiko gogorra egin zait buruarentzat".

Badatoz San Migel eta Errosario jaiak

Txantxikua hilaren 28an jaitsiko da, betiko moduan, baina aurretik izango dira ekitaldiak Oñatin. Etxeetan banatu dituzten egitarauak QR kodea dute, gura duenak telefono mugikorrera jaitsi eta egitaraua eskura izan dezan

Oihana Elortza OÑATI

Adin guztietarako ekitaldiz betetako San Migel eta Errosario jaien egitaraua aurkeztu du Oñatiko Udalak, "norbanakoen eta herriko talde eta eragileekin batera osatutakoa", Iñaki Olalde Kultura zinegotziak adierazi duen moduan.

Errespetuz gozatu

Maiatzaz geroztik auzo eta kaletako festak ospatzen ibili ostean, ate joka dira dagoeneko Oñatiko jai nagusiak, San Migel eta Errosario jaiak. Eta horren adierazgarri da dagoeneko banatu dutela etxeetan jaien egitaraua, aurten Xanti Ugartek diseinatutako azala daramana.

Udal ordezkarien esanetan, askotariko ekintzekin adin guztietako herritarrendako egitaraua prestatu dute, ahal izan den heinean, parekidea, eta herritarren iradokizunak eta proposamenak aintzat hartuaz. Txosna batzordearekin koordinatuta



Udal ordezkariak jaien egitaraua aurkezten. T.M.

prestatutako egitaraua da, Olalderen esanetan.

Izaro Elorza alkateak jaietz gozatzeko aukera izatea nabarmentzen zuen: "Denon ardura da jaietz gozatzea, bakoitzak gura duen moduan, errespetuz eta

inolako beldur barik. Udalak baliabideak jarriko ditu, gune moreak, esaterako, eta telefono mugikor bat ere jarriko da, egoeraren baten aurrean laguntza izateko". Hauxe da zenbakia: 688 62 12 13.

Ibilgailuendako itxita dago Udana bi noranzkoetan

Mendatearen azpitik dago itxita eta Udana bestalde joateko edo handik etortzeko Bergaratik joan behar da

O.E. OÑATI

Lau zubi daude Udana mendate azpitik Oñatiko herri sarreraraino, eta zubi horiek indartzeko obrak hasi zituen eguaztenezan Gipuzkoako Aldundiak. Obra hori egiteko, errepi-dea itxi egin behar dute, ezin da errepi bat zabalik egon. Horregatik, lanek iraungo duten lau hilabeteetan, Udana itxita egongo da mendatearen barretetik, bai Oñatitik joateko bai Legazpitik etortzeko.

Bi fasetan egingo dituzte lanak eta Udana aldera dauden zubiak

konpontzetik hasi dituzte. Lan horiek bukatu bitartean, Olabarrietako auzoko erdigunera joateko arazorik ez da egongo. Mendate barreneko baserrietara joateko baina, Aiastui aldera adibidez, auzoko bidea erabili beharko da. Mendateaz beste aldera joateko edo handik etortzeko, Bergara aldetik joan edo etorri behar dute auto gidariek.

Olabarrietako auzotarrek eta hango enpresetako langileek baimen berezia izango dute Legazpira Udantatik joateko. Udalarekin eskatu behar dute.

Laboral Kutxak utziko dio dirua Udalar kiroldegia berritzeko

Zubikoa eraberritzeko eta handitzeko lanak ordaintzeko, zortzi milioi euroko mailegua eskatuko dio Oñatiko Udalak Laboral Kutxari. Zortzi finantza erakundek dute bulegoa Oñatin eta seik egin diote eskaintza. Egokiena Laboral Kutxak egingo proposamena dela onartu zuen Ogasun Batzordeak irailaren 3an, eta udalbatzak aho batez onartu zuen iritzi hori atzo. Uztailean egingako osoko bilkuran, inbertsioen berrantolaketa egitea onartu zuen udalbatzak. Kiroldegirako hamaika milioi euroko mailegua beharko zela esan zuten: hiru Oñatiko Ur Jauziak enpresak emango dizkio eta zortzi, banketxeak.

Asteburu honetatik aurrera

Jaietako deialdi batzuk zabalik daude dagoeneko eta hainbat ekitaldi asteburu honetan bertan dira.

- **Umeen danborrada.** 180 bat umek hartuko dute parte zapatuan, 18:00etan, egingo den umeen danborradan. *Itsasoa eta piratak* da aurtengo gaia eta pirataz mozorrotuta joateko dei egin dute. Karroza bat ere aterako da aurten.
- **Pintura lehiaketa.** Oñatiko margo taldeak antolatuta, domeka goizean, 09:00etan hasita egingo da aire libreko pintura lehiaketa. Ume, gazte zein nagusiendako.
- **Artzain-txakur txapelketa.** 60 urte betetzen ditu aurtengo nazioarteko artzain-txakur txapelketak. Hamahiru txakur lehiatuko dira, euren artzainekin, 10:30ean, Santa Lutzian.
- **Atsolorra.** Domekan, 12:00etan, udaletxean. Urtean zehar jaietako haurrei ongietorria emango diete udal ordezkariak, musika eskolako musikaz girotutako ekitaldian.
- **Musika Bandaren kontzertua.** Emanaldi bat baino gehiago egiten ditu Oñatiko Musika Bandak herriko jai nagusietan eta horietako bat domekan izango da, 13:00etan, Foruen plazan. Iñaxio Ibarrodok zuzenduko du.
- **Erraldoien konpartsa.** Aurtengo jaietako berrikuntzetako bat da. Urteetan ez da antolatu, eta jaiak antolatzeke egindako batzarretan egindako proposamenetako bat da hau. Kanpantxo kultur elkarte berriak antolatu du. Herriko bi konpartsak —herrikoa eta Atzeko kalekoa— aterako dira dantzan, Oñatz dantza taldearen eta Arrasateko gaiteroen laguntzaz. Basurtoko konpartsa izango da talde gonbidatua. Kanpantxotik aterako dira, 18:00etan, eta, herriko kaleetan ibili ostean, plazan bukatuko da, konpartsen bala eta Polinesia-dantzekin. Eguraldi txarra eginez gero, kontzejuean izango da bukaerako ekitaldia.
- **Berakatz-zopa lehiaketa.** Irailaren 30ean egingo da aurtengo berakatz-zopa lehiaketa, baina parte-hartzaileek aurrez eman behar dute izena. Irailaren 26ra arte egin daiteke, kultur etxean bertan edo posta elektronikoz zein telefono bidez: 943 78 03 53 edo kultura.idazkaritza@onati.eus.
- **Herri bazkarirako txartelak.** Herri Egunean —urriaren 5a— egingo den herri bazkarirako txartelak salgai daude Arrano eta Izarraitz tabernetan eta kultura etxean. Haurren menua —12 urtetik beherakoentzat— hamar euro eta helduena, hogeituro.



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Bakardadea

Gutako asko jendez inguratuta jaiotzen, lagunez inguratuta bizi gara, eta, beharbada, norbaiti eskutik helduta hilko gara. Aldi berean, bakarrik jaiotzen, bizi eta hilko garela ere esan dezakegu, gizakiok dugun bakartasun eta bakardade pertsonalaren kontzientzia kontuan hartuta. Aizkorri-Aratz parketxekeko mural batean hauxe irakurri dut: *Bakardadea ederra da, norbaiti kontatzeko aukera duzunean*. Eta esaldi honen harira galdera sortu zait: pertsona izateak ez al du eskatzen norberaren bakardadea onetz onartzea, eta honen sakoneko edertasuna bilatzea eta ezagutzea?

Bazterketa egoerak eta laguntasun faltak sortzen duen bakardadea bestelakoa da, saihestu beharrekoa, alegia, tristea: lagunik ez duen gaztearena, senarra hil zaion emakumearena, etxetik irten ezin den gaixoarena, baserrian bakarrik bizi den adinekoarena, etorkinarena, kartzelatuarena, negar egiteko sorbaldarik aurkitzen ez duenarena...

Bi aurpegi eta bi errealitate hitz beraren bueltan: ederra eta tristea, bakardadea!



Apostoluak eta pietatea, Jorge Oteizaren lanak, Arantzazuko basilikaren fatxadan. GOIENA

Oteiza eta Arantzazu ulertzeko jardunaldia

2019an, 50 urte bete dira Arantzazuko Santutegian Jorge Oteizak egindako fatxada jarri zutenetik. Ekainaz geroztik erakusketa bat dago ikusgai Arantzazuko Gandiaga Topagunean, eta zapatuan, irailaren 21ean, oroitzapen jardunaldia egingo dute

Oihana Elortza OÑATI

Bihar, zapatua, topaketa berezia egingo dute Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Jorge Oteiza artistaren lanak Arantzazun duen pisua eta bien arteko harremana izango da gaia eta mahai ingurua eta bisita berezia antolatatu dituzte.

Lau aditu


Gorabeherak izan zituen Oteizaren eta Arantzazuko basilikaren proiektuaren harremanak eta hori ere izango dute hizpide mahaiaren bueltan eseriko direnek. Izan ere, modu ezberdinetara garai hartan proiektua jarraitu zuten lau adituk hitz egingo dute 11:00etan hasiko den mahai inguruan: Miguel Angel Alonso del Val arkitektoak, Javier Gonzalez de Durana historialariak, Juan Ignacio Larrea frantziskotarrak eta *Oteiza eta Arantzazuko estatuaria* proiektuaren komisario eta Oteiza Museoko kontserbatzaile Elena Martinek. "Elena Martinek,

basilikan, irakurketa azalpen bat egingo dute. Kanpoaldean izango da, eta tarteka dantza batzuk egingo ditu Kukai dantza taldeak. Fatxadaren azalpena egingo du Oteizaren hitzekin...", dio ekitaldia antolatzen ibili den Arantzazu Gaur fundazioko Juan Biainek. Mahai inguruan, berriz, Jorge Oteizak Arantzazun egindako lanaren garrantzia aztertuko dute, une hartako testuinguru kultural, sozial eta politikoan. Ekitaldiak irekiak dira, baina izena aurrez eman behar da, Gandiagan tokia mugatua delako. Horretarako bide zuzenak hauexek dira: 954 71 65 75 zenbakia edo info@arantzazugandiaga.com helbidea. Gaur da azken eguna.

**KUKAI TALDEAK
DANTZA EGINGO DU
BASILIKAREN
AURREAN, AZALPENEN
EKITALDIAN**

Debekuak eta baimenak

1950. urtean, Arantzazuko basilika berria egitea erabaki zuten frantziskotarrek, ordukoa txiki gelditu zitzaielako. Lehiaketa publiko bat deitu zuten eta aurkeztu ziren hamalau proiektuetatik, Francisco Saenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoek egindakoa hautatu zuten. Proiektu hartan artista batek parte hartzea proposatu zieten biek frantziskotarrei eta haiek zazpi artistaren artean Oteiza aukeratu zuten. 1951n hasi zen eskultore nafarra harako lanean, baina 1953an gotzaindegiari ez zitzaion askorik gustatu lana hartzen ari zen itxura, eta Italiako artistengana bidali zuten txostena: behin-behineko debekua jarri zuten 1954n. Urtebete geroago, behin betikoa iritsi zen eta Oteizaren eta Arantzazuren arteko harremana eten egin zen. 1966an, baimena eman zuten, baina orduan Oteizak esan zuen ezetz. 1968an berreskuratu zuten erlazioa artistak eta basilikak.



GOIENA

"Debekuak onura ere ekarri zuen"

JUAN BIAIN
ARANTZAZU GAUR FUNDAZ.

Arantzazuko Gandiagan eta Alzuzako Oteiza museoan daude erakusketak jarrita urriaren 27ra arte.

Ekainean zabaldu zituzten bi erakusketak. Ze harrera izan dute?

Oso ona, batean zein bestean. Oteiza ezagutu zuten asko pasa dira eta euren testigantzekin aberastu egin dira erakusketak.

Nolakoa litzateke Arantzazuko fatxada Oteizaren lanik gabe?

Egun, ezin dugu imajinatu espazio hori hutsik, zaila zaigu hori irudikatzea, baina urte batzuek halaxe egon zen. Frisoan dauden hamalau apostoluak errepide bazterrean egon ziren hamalau urtez, hari eta lanak berriz hasi arte.

Diozu egondako debeku hark onura ere ekarri zuela, neurri batean.

Jorge Oteizak bere lana zuzenean burutu izan balu, fatxada horren lana erliebe negatiboz beteta egongo zen, Ama Birjinaren historia kontatu gura zutelako. Debekuak, nolabait, garrantzia eman gura izan zion frisoari eta pietateari, eta horregatik dugu egungo fatxada.

Noiz arte daude zabalik erakusketak?

Urriaren 27ra arte. Haren 200 piezatik gora daude Alzuzakoan, eta gertaeren, historiaren, irakurketa kronologikoa egin daiteke.

Zapatu goizean egingo da Birzikleta azoka, plazan

Mugikortasun Astearen barruan, Birzikleta azoka egingo dute bihar, zapatua. Bigarren eskuko bizikleta eta patineteak egongo dira bertan, baita osagarriak ere; babesak eta kaskoak, esaterako. Astean zehar egin dute materialaren bilketa eta zapatuko azokan salgai egongo da. Foruen plazan izango da azoka, 09:00etatik 14:00etara.

Izena eman daiteke Pake Lekuko ikastaroetan

2019-2020 ikasturteko ikastaroetarako izen-ematea zabalik dute Pake Leku elkarteak. Aretoko dantzak, solfeoa, orratz lanak, bitxigintza, euskara, informatika, pintura, yoga, irakurketa taldea, ingelesa, memoria tailerra, dantza eta antzerkia dira antolatutako tailerrak. Izena elkarteak bertan eman behar da hilaren 24a aurretik.

Komunikazio ez bortitzari buruzko hitzaldia

Eskola Kirolak antolatuta, komunikazio ez bortitzari buruzko hitzaldia egingo dute datorren astean. Errespetuzko komunikazioari buruz egingo du berba komunikazio ez bortitzeko hezitzaile Nerea Mendizabalek. Hitzaldia irailaren 25ean izango da, hurrengo eguaztenean, kultura etxeko zinema aretoan, 18:00etan.

OHARRAK

Ehunkien azoka

Barrakak heldu dira, eta datozen bi zapatuetan Santa Marinaran egingo da ehunkien azoka. Herri Egunean, urriak 5, ez da azoka hori egingo.

Odol ateratzea

Gaur, egubakoitza, egingo dute irailko odol ateratzea. Euskaldun Berria gelan izango da, Bidebarrietan, 17:00etatik 19:00etara.



Oñatiko V. Mendi Martxako anoa-postu bat. GOIENA

Jendetsuena gaindituta, seigarrenari begira

Zapatuko mendi martxako ibilbide luzea egin zuten batzuk kexu agertu dira bidea ez zegoelako ondo markatuta, baina egin zuten gehienek diote inongo arazorik gabe amaitu zutela bide motza zein luzea, eta antolatzaileen lana zoriondu eta txalotu dute

Maialen Regueiro OÑATI

Oñatiko V. Mendi martxak helburuak bete zituen, zapatuan, beste urte batez. 1.000 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte, 1.040k, bosgarren edizioan, bi ibilbidetan banatuta: luzea -32 kilometro eta 1.758 metroko desnibela- eta laburra -22 kilometro eta 1.045 metroko desnibela-. Parte-hartzaileek "gustura" aritu izana eta "asko disfrutatu" izana adierazi zieten antolatzaileei, ibilbidea amaitu eta unibertitate ingurura iritsi ostean. Antolakuntzako kideez gain, 70 boluntario aritu ziren bezperan ibilbidea markatzen eta anoa-postuetan laguntzen, besteak beste. Horregatik, antolakuntzako kideen zein boluntarioen lana "zoriontzekoa" eta "txalotzekoa" dela adierazi dute parte hartu zuteneko askok. Are gehiago, bada lehen aldiz mendi martxara joan denik, eta, zapatuan hainbeste disfrutatu ondoren, hurrengo urtean errepikatu egingo duela adierazi duenik.

Irteera ordua

Irteera ordua aurreratu izana ere eskertu dute mendizaleek. Izena eman zutenei aurrez jakinarazi bezala, txartela hartu bezain pronto abiatu ziren herriko plazatik, eta erabaki hori ideia ona izan dela deritzo ibilbidea egin zuen batek baino gehiagok. Orain arteko martxaririk jendetsuena izan da aurtengo, eta joandako guztiei erostasuna bermatze aldera hartu zuten erabaki hori antolatzaileek.

Ibilbide luzea

Mendi martxan izena eman zuten gehienek ibilbidea motza egin bazuten ere, izan zen ibilbide luzea egitera animatu zenik. Horietako batzuk kexu agertu

TXARTELA HARTUTAKOAN ABIATZEA IDEIA ONA IZAN DA, HAINBAT MENDIZALEREN USTEZ

ziren ibilbide hori ez zegoelako behar beste ondo markatuta eta *track*-ean ibilbidea ondo zehaztuta ez zegoelako. Antolatzaileek adierazi dute bezperan ibilbide guztia egiaztatzen izan zirela bi lagun, eta *Gara* egunkariko zintez eta Aloñako Igoerako bandera horiekin markatutako bideari kasu egiteko gogorarazi zietela parte hartu zuten guztiei. Hala ere, antolatzaileek barkamena eskatu diete galduta ibili ziren parte-hartzaileei. Ibilbide bera egin zuten beste batzuek, berriz, adierazi dute ez zutela inongo arazorik izan martxa amaitzeko, "orain arteko politena" izan dela gaineratuta.

Balorazio positiboa

"Erronka" izan da antolatzaileendako mila lagunetik gora hartzea, eta eskerrak eman gura dizkiete prestatzen eta laguntzen aritu diren guztiei. Gaineratu dute datorren urtera begira prest daudela iritziak eta ekarpenak jasotzeko.

Mekalki Aloña Mendi bigarren maila nazionalean lehiatuko da

Aitor Ugarteren mutilek urriaren 12an emango diote hasiera denboraldiari eta prest daude erronka berrirako

M.R. OÑATI

Mekalki Aloña Mendi taldeak bigarren sailkatuta eman zion amaiera 2018-2019 denboraldiari, maiatzean. Atletiko San Sebastian taldea izan zen onena txapelketan, baina honek uko egin zion mailaz igotzeari; beraz, Federazioak talde oñatiarrari helarazi zion mailaz igotzeko proposamena, bigarren maila nazionalean jokatzeko, alegia: "Federaziotik proposamena iritsi zitzaigunean, elkartean zein taldean ideia baloratu genuen eta guztion artean erronka honi aurre egitea erabaki genuen, eta jokalarien erantzuna oso positiboa izan zen", aipatu du Mekalki Aloña Mendi taldeko entrenatzaile Aitor Ugarterek. Era berean, hau aipatu du: "Taldea kontziente da mailaz igotzeko duen eragin eta erantzukizunaz, baina horretarako prest gaude".

Denboraldi-aurrea

Ugarteren mutilek urriaren 12an emango diote hasiera denboraldiari, baina abuztuko oporrak geroztik lanean dihardute erronka berria prestatzen: "Taldeen min hartuta dauden hainbat jokalaria ditugu eta horrek den-

boraldi-aurrean eragina izan du; hala ere, urriaren 12ra bitartean badugu denbora denboraldia prestatzeko", adierazi du Ugarterek.

Hainbat nobedade

Mailaz igotzeak eragina izango du oñatiarren jokatzeko moduan. "Gipuzkoako txapelketan ez dago 24 segundoko mugarik eta orain, muga horren barruan jokatu beharko dugu. Horrez gain, taldeen maila ere hobea izango da", aitortu du Ugarterek.

Zortzi talde, guztira

Aloña Mendi saskibalo sailak zortzi talde izango ditu lehian 2019-2020 denboraldian: bi talde seniorretan, talde bakarra gazte mailan, bi talde kadete mailan eta hiru infantiletan. Federatutako jokalariez gain, saski eskolak beste urte batez jarraituko du. "Jokalaria kopuruak gora egin du eta hori da denboraldi honetan bi talde gehiago izatearen arrazoia. Saskibalo sailetik, gainera, positiboki baloratzen dugu igogera eta kirol honekiko interesa", aipatu du Iñigo Zabaletak, Aloña Mendiko saskibalo saileko zuzendaritzako kideak.

Finalerdietako eta finaletakoko partiduak jokatu dira pilotan

San Migel txapelketako finala irailaren 26an izango da; herriko pilota txapelketakoa, berriz, urriaren 6an

M.R. OÑATI

Aloña Mendiko pilota sailak antolatuta, 37. San Migel txapelketa jokatzeko ari da, Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan. Kiroldegiko eraberritze-lanen eraginez, gainera, aurtengo finalerdietako eta finaletakoko partiduak jokatzeko aukera izango da soilik. Finalerdietako partiduak bi egunetan jokatu dira eta horietako batzuk atzo jokatu ziren. Euskal Herriko kadete, gazte eta promes mailetakoko partiduak jokatu zituzten atzo, eta hurrengo hitzordua irailaren

26an izango da. Txapelketa honetako finala, berriz, urriaren 6an, Errosarixo Egunean, jokatuko da, 17:00etan hasita.

Aloña Mendiko pilota sailak antolatutakoaz gainera, herriko pilota txapelketa ere jokatzeko ari da, eta, kasu horretan, finalerdietako partiduak gaur jokatuko dituzte, 18:00etan hasita. Guztira, lau partidu izango dira, plazako pilotalekuan jokatuko direnak, eta gaurko partiduetan sailkatzen diren bi bikoteak irailaren 28an aurrez aurre ari tuko dira finala jokatzeko.

Urteetako esperientzia eta intentsitatea oholtzara

Barakaldoko Parabellum eta Oñatiko Lokuria taldeen kontzertua izango da gaur, 22:30ean hasita, gaztelekuan. Hala, punk-rock eta hardcore estiloetako abestiak izango dira entzungai. Emanaldia ikusteko sarrerak zortzi eurotan daude salgai

Maialen Regueiro OÑATI

Hainbat urtez Oñatin kontzerturik eskaini gabe egon badira ere, gaur, Parabellum Barakaldoko taldea ikusteko aukera egongo da gaztelekuan, 22:30ean hasita. Aurrez, Lokuria talde oñatiarraren txanda izango da, zeinek aurten taldearen izen bera izango duen lehen diskoa argitaratuko duen.

Oñatira buelta

Josu Korkostegi Parabellum taldeko bateria-jole eta ahotsak honako hau adierazi du: "Urte batzuk pasa dira Oñatin azkenegoz kontzertua eskaini genuenetik. Emanaldietako bat

Eskorbutorekin batera eskaini genuen kiroldegian eta bestea plazaren batean izan zen". Hiru hamarkada baino gehiagoko esperientzia duen talde honek, beraz, jarraitzaile oñatiarrek topo egiteko aukera izango du gaur: "Geldialdi baten ostean, berriz hasi gara kontzertuak eskaintzen, eta gaurko emanaldirako prest eta gogotsu gaude".

Urte gorabeheratsuak

Musika munduan urteetako esperientzia duen taldea da Barakaldokoa, baina gorabeherak ere izan dituzte bidean: "2000. urtean geldialdia hartu genuen, momentuko egoera politikoak

baldintzatuta. Ondoren, taldekide baten gaixotasuna eta heriotza gainditu behar izan genituen", aipatu du Korkostegik. Hala ere, azpimarratu du jarraitzaileen animoei esker oholtzara bueltatzea erabaki zutela.

Lokuria talde oñatiarra

Gaur gaueko emanaldia hiru kote oñatiar batekin hasiko da, Lokuria taldearekin, hain zuzen. Hauek ere hainbat urtez dihardute musika munduan eta gaur egun, lehen diskoa izango dena prestatzen ari dira eta laster ikusiko du argia. Intentsitate eta abiadura handiko zuzeneko eskainiko dute.

Bizipenak, musika eta dantza, 'Oroimenean' proiektua aurkezteko

Hots abesbatzak, Ganbara orkestrak, Andoni Salamero narrazaileak eta Manex Alberdi dantzariak hartuko dute parte bihar Ganbara Faktoriak aurkeztuko duen *Oroimenean* proiektuan. Emanaldia 22:00etan izango da, Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan.

Alzheimerren eta endekapenezko gaixotasunen inguruko kontzientzia bultzatzea helburu duen proiektu honetan, euskal musikariak izango dute lekua eta propio sortutako piezak ere izango dira emanaldian, dantza-ekin batera. Hala, bizipen eta sentipenetan oinarrituta egongo da; ardatza demenzia duen pertsona bat izango da.

Biharko emanaldirako sarrerak eskuragarri daude, hamabi eurotan, *Oñati.eus* atarian, txarteldegitaldean eta Txokolateixan -12 urtetik beherakoek, zortzi eurotan-. Sarreretatik batutako diruaren zati bat Alzheimer gaixotasunaren ikerketara bideratuko da.

Dokumentalaren estreinaldia eta solasaldia asteburuan

Oxigenoa euskarari 6.000 metro-tan ere dokumentala estreinatuko da gaur, 22:30ean, zine aretoan. Ikus-entzunezkoarekin batera, gainera, solasaldia izango da protagonisten eskutik. Era horretan, dokumentala asteburu osoan zehar ikusteko aukera egongo da, ohiko ordutegian. Azken emanaldia astelehenean izango da, 19:30ean.

Olaitturri antzezlanaren prestatzen ari da hilaren 29rako

Urtero bezala, Olaitturri Kultura Elkarteak antzezlanaren prestatu du irailaren 29rako. Aurten, *Oñatiko ituna lehen Karlitudan* antzezlanaren taularatuko dute. Emanaldia 19:00etan izango da, Santa Ana antzokian. Aurre-estreinaldia, berriz, irailaren 26an izango da, ordu berean. Sarrerak dagoeneko salgai daude Txokolateixan, zazpi eurotan.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conef.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

GARRAILAN

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es


ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com




15 UDAKO ARGAZKIEN .GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Irailaren 23ra arte bidal
ditzakezu zure argazkiak!




ILLEDERE, FRANTZIA | Argazkia: Idoia Ilarduia



HOLLAND (MICHIGAN, AEB) | Argazkia: Oier Yaniz



OURENSEKO BAZKALOSTE NORMAL BAT | Argazkia: Miguel Angel Alvarez



AIZKORRI | Argazkia: Irati Azpeitia



AILLA DE AROUSA | Argazkia: Ana Sebal Agirregabiria



ACATENANGO SUMENDIA | Argazkia: Eneritz Larrea



KANARIAR UHARTEAK | Argazkia: Maddi Parra Alonso



RUTA VICENTINA, ODECEIXE (PORTUGAL) | Argazkia: Mari Carmen Albes


ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

ARRASATE BIDAIAK



DONOSTIA JAJETAN | Argazkia: Nerea Zugasti Iñarra



LAC DE CHESERYS | Argazkia: Agustin Badiola



DEBA | Argazkia: Martin Uriarte Askasibar



PORTOKO KABINA GORRIAN | Argazkia: Juan Rodriguez Salinero



URKULULAINOPEAN | Argazkia: Jose Luis Madina



UYUNIKO GATZAGA | Argazkia: Olatz Urrutia



GRAN CAÑON | Argazkia: Aritz Igartua Kerejeta

Sariak

LEHENENGO SARIA: Xiaomi Redmi 6A smartphonea, Eroski Arrasateri esker.

BIGARREN SARIA: Bi pertsonarendako bazkaria edo afaria Gure Ametsa jatetxean.

HIRUGARREN SARIA: Zumaiako Zelai Talasoterapian bi pertsonarendako zirkuitu termala eta Zelai menua, Arrasate bidaiei esker.

PUBLIKOAREN SARIA: Bergarako Ereindajan-en eskutik bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

Oharra: Publikoaren saria bozkatzeko epea irailaren 27tik urriak 2ra zabalduko da 'Goiena.eus'-en.

Egin klik eta bidali **poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin edo tabletarekin ateratako udako argazkiak!**

Posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!



Argazki guz-
tiak hemen:
[https://labur.
eus/15](https://labur.eus/15)



Aranguren aita-sumeak goitibeheran, kurba bat hartzen. GOTZON ARANGUREN

Aranguren aita-sumeak, maldan behera azkarrenak

GOITIBEHERAK Ioritz Arangurenak eta Gotzon Arangurenak Euskal Liga irabazi dute, domekan egutegiko azken proban, Galdakaon, nagusitu eta gero. Espainiako txapelketa ere irabazi dute. Bergarako Markez anaiak izan dituzte kontrario gogorrenak

Xabier Urzelai OÑATI

Ioritz Arangurenak (Oñati, 16 urte) hiru urte daramatza goitibeheretako pneumatika kategorian lehian. Aitarendako, Gotzonendako, debut urtea izan da kopilotu. Eta, hala ere, urte borobila egin dute: "Hasierako asmoa ez zen ni ere goitibeheran ibiltzea, baina semeak kopiloturik aurkitzen ez zuela-eta,

azkenean, animatu egin nintzen, niri ere harra sartu zait. Eta bai, gure irudiak kanpotik ikusten ditugunean... uf, kontziente zara tramu batzuetan 90 kilometro orduko hartzen ditugula, baina barruan horren sartuta joaten gara lasterketan, konturatu ere ez gara egiten".

Ondo, oso ondo ibili dira aurtun, eta *dobletea* lortu dute, Eus-

kal Liga irabaztearekin batera Espainiakoa ere irabazi dute eta: "Benetako helburua Euskal Ligan aurrean ibiltzea zen. Baina Legazpiko lasterketa Espainiako Txapelketarako puntuagarria izan zen, eta baita Europako koparako ere. Hala, Legazpin ondo ibili ginenez, Espainiako Txapelketako bigarren proba puntuagarrira ere anima-

Euskal Kopan aurrera egiteko garaipena behar dute bai ala bai

SASKIBALOA Mondragon Unibertsitateak Zarautzen kontra jokatuko du domekan, Iturripen (18:30)

X.U. ARRASATE

Euskal Kopako lehenengo jardunaldian Baskoniaren kantxan galdu eta gero, MUK garaipena behar du txapelketan aurrera egiteko. Hala, domekan (18:30), EBA mailako MUK Euskal Ko-

pako bigarren partidua jokatuko du, Zarautzen aurka, eta partidua irabazten duenak lortuko du txartela lauko finalerako. Hala, arrasatearrendako partidua garrantzitsua da, kontuan hartuta irailaren 28an eta 29an

Euskal Kopako lauko finala Iturripera ekarriko duela Ointxe!-k. "Horregatik, zale guztiak animatu nahi ditugu oraingo domekan Iturripera gerturatzerara", adierazi dute klubeko ordezkariek.

Hastera doa Euskal Liga

Bestalde, asteburuan hasiko dituzte Euskal Ligak, eta hor, MUK harrobiko lau talde ditu, guztira, bi talde kadete mailan eta beste bi gazte mailan, gizonetzkoetan eta emakumetzkoetan.



Arangurendarrak –erdian–, aurtun irabazitako lasterketetako batean. G.A.

Debagoiendarrak, aurrealdean

Arangurendarrek hamaika lasterketetatik lau irabazi dituzte –Etxebarri, Alegia, Donostia eta Galdakao– eta hirutan bigarren sailkatu dira: "Julen Markez eta Gorka Markez anaia bergararrekin oso lehia polita izan dugu, pare-parean egon dira indarrak".

tu ginen, Burgosera joan ginen, eta podiumera igo ginen. Ondoren, Euskal Ligan jarri genituen indarrak; borroka oso estua izan dugu eta Espainiakoa alboratu egin genuen, ez ginen hirugarren probara joan. Eta, hala ere, lehenengo bi proba haietan podiumera igo ginenez, Federaziotik deitu ziguten esanez Espainiako txapeldun ginela.

Euskal Ligan, indartsu

Euskal Liga irabazteak, baina, meritu handiagoa izan du: "Erregularitasuna behar da, eta, parte-hartze kopuruari dagokionez azken urteotan gorakada handirik izan ez bada ere, pneumatika kategorian indarrak oso parekatuta daude", dio Gotzonek.

Hamaika lasterketa horietako batean ere ez dute hutsik egin, eta kurioso da: Debagoieneko –Bergara, Oñati eta Eskoriatza–

lasterketa batean ere ez dira podiumeko lehen postura igo, nahiz eta puntuak batu dituzten. Hala, joan den domekan Galdakaon lortutako garaipenari esker poltsikoratu dute Liga: "Azken probara arte estutu behar izan dugu, Galdakaon dena zegoen-eta jokoan".

Zaletasuna, semearekin batera

Gustura ibili dira aita-sumeak elkarrekin: "Polita da halako zaletasun bat semearekin partekatzea. Bide batez, gure babesleari, Krix Krax erretegiari, eskerrak eman gura dizkiogu".

OÑATIARREN ETA BERGARARREN ARTEKO LEHIA ESTUAK EMOZIOA EMAN DIO LIGARI



Balanzategi, baloia defendatzen, ligako partidu batean. GOIENA

Ilusio berrituekin datoz ibarreko bi erreferenteak

ESKUBALOIA Euskadiko txapelketan beste denboraldi bati ekiteko prest daude Fagor Industrial Aloña Mendi eta Ford Mugarri Arrasate. Asteburuan, etxean jokatu dute biek; oñatiarrek aldaketa dute aulkian: Aitor Garcia izango da entrenatzailea

Xabier Urzelai ARRASATE

Euskadiko Txapelketan liga hasiko dute asteburuan, eta, azken urteotan moduan, aurten ere bailarako bi ordezkari izango dira bertan: Ford Mugarri Arrasate eta Fagor Industrial Aloña Mendi. Hain justu, etxean hasiko dute biek denboraldia, arrasatearrek Hondarribia-Bidasoaren kontra -domeka, 12:00, Iturripe- eta oñatiarrek Basauriren kontra -zapatua, 18:00, Zubikoa-.

Entrenatzaile aldaketa Oñatin

Oñatiko senior mailako talde nagusiak entrenatzailea estreinatuko du, Aitor Garciak beteko du-eta azken urteotan Aitor Aranburuk bete duen tokia. Garcia oñatiarra da, eta ondo ezagutzen du etxeko taldea, nahiz eta egun Zarautzen bizi den: "Jokariendako ez dut uste aldaketa nabarmena izango denik, askorekin oso harreman estua daukat eta. Lehenengo territorialera igo ginen urtean orduko jokalaria batzuk taldean daude oraindik". Ondoren, Zarautzen, harrobiko taldeekin ere lanean ibili da, eta Euskal Selektioarekin ere izan du hartu-eman.

Garciak ondo ikusten du taldea, eta ilusio berrituekin: "Basauri hartuko dugu bihar, kategoriao oilarretako bat. Inoiz ez dago



lazo denboraldiko partidu batean. GOIENA

OÑATIARREK HIRU IGOERA FASE JOKATU DITUZTE JARRAIAN; ARRASATEK MAILARI EUSTEA DU HELBURU

jakiterik halako talde baten kontra noiz komeni den jokatzeari, liga hasieran edo aurrerago. Baina, etxean jokatu, zaleen babesa izatea espero dugu, Zubikoako harmailetatik ere bul-tzada jasotzen dugu eta".

Ford Mugarri ere etxean

Arrasateko taldeko aulkian Patxi Garciak jarraituko du, baina taldean, normala den moduan, aldaketa batzuk egongo dira. Esaterako, urteetan arrasatearren atea defendatzen ibili den Axier Valle taldea utziko du, eta hutsune hori igarri egingo dute, seguru. Hala, azken urteotan kategoriako talde indartsuetako bat izan eta gero -oñatiarrek batera-, iaz belaunaldi aldaketara egokitu eta helburuak ere moldatu egin zituzten; mailari eustea da erronka nagusia.

Ligako bigarren jardunaldian dator denboraldiko lehen derbia

FUTBOLA Mondrak Bergara hartuko du domekan Mojategin (16:30). Puntu barik daude bi taldeak

X.U. ARRASATE

Mondrak eta Bergarak bailarako taldeen arteko ikasturteko lehenengo derbia jokatu dute domekan -16:30, Mojategi-. Eta, lehenengo jardunaldian esku hutsik geratu eta gero, biek ala biek gura dute lehenbailehen puntuak batzen hasi.

Aretxabaletak, berriz, joan den astean Eibar Urkoren kontrako puntua ontzat eman eta gero, Deban jokatu du, Errotazar plaza zailean, zapatuan -16:30-.



Sanchez, baloiaz, iazko derbian. GOIENA

Gorengoen mailan ere derbia

Kategoria bat beherago, Antzuolak ere derbia jokatu du Mondrako bigarren taldearen kontra, zapatuan, Estalan -16:30-. Eta Aloña Mendik Idiazabalen jokatu du -17:00-. Azkenik, Aretxabaleta UDak domekan hartuko du Villabona, etxean (16:30).

Neskak asteburuan hasiko dira

Emakumezkoen Ohorezko Erregionalen asteburuan hasiko dute liga. Leintz Arizmendik Zumaian jokatu du bihar -11:00-, eta Bergara da etxean jokatu duena, zapatuan -17:30-, Añorgaren kontra.



Udalan behera, iaz. GOIENA



Gaztediren kontra. GOIENA

Soraluce BKEk, urriaren 6an

Bergarako eskubaloitako taldeak Gipuzkoako lehenengo mailan jokatu du, eta Josetxo Muniategiren mutilendako ere mailari eustea -sufritu barik- izango da lehentasuna. Iaz, baina, liga erditik aurrera ondo ibili ziren, eta, atzeko postuetatik ihes eginda, igoera faserako sailkatu ziren mahoneoak. Urte hasieran gutxi esperotakoa lortu zuten.



Soraluceren kontra iaz jokatu partiduaren une bat. GOIENA

MENDI BIZIKLETA Gaur da enduro proban izena emateko azken eguna

Geroago eta gutxiago geratzen da irailaren 29an egingo duten Arrasateko enduro lasterketaren laugarren edizioarako, eta aurtengo Espainiako Openerako puntuagarria izango da -txapelketako azken proba izango da; erabakigarria, horrenbestez-. Dagoeneko 170 lagunek eman dute izena lasterketan, eta gaur, hilak 20, amaituko da izen-emate epea: *Rfec.com*.

ERRUGBIA Hiruko torneo, bihar, liga prestatzen joateko

Iraileko azkeneko asteburuan hasiko dute Euskal Ligako Bigarren Maila, eta ARTko seniorrek Iruñea RCren zelaian jokatu dute lehen jardunaldia. Hala, denboraldi-aurrea borobiltzeko, bihar, zapatua (16:30), Julen Barrutia entrenatzaile berriaren mutilek lagunarteko hiruko torneo jokatu dute Mojategin, Gaztediren eta Zornotzako Urgozorekin batera.

"Saria baino garrantzitsuagoa da jendearengana iristea gure filmak"

AITOR ARREGI ETA ASIER ALTUNA ZINEMAGILEAK

67. Donostia Zinemaldia hasiko da gaur, eta, irailaren 28a bitartean, askotariko 205 film erakutsiko dituzte; horien artean, Debagoieneko sortzaileen hiru film luze daude

Imanol Gallego ARRASATE

Handiak jaialdiko epaimahaia- ren sari berezia eskuratu eta bi urtera, Aitor Arregi bueltan da, *La trinchera infinita* filmarekin, historia erakutsi eta egiteko asmoz. Arregi eta Asier Altuna batu ditu GOIENAK, *Aupa Etxebeste!* film arrakastatsuen sortzaileetako bat; epaimahai gaztearen saria lortu ondoren, etxebestetarrei bigarren bizitza bat eman die azken horrek *Agur, Etxebeste!* filmean. Bi sortzaile, bi istorio, hamaika pasadizo eta estreinatzeke dauden bi filmen milaka amaiera posible.

Zer da Zinemaldia?

Aitor Arregi: Munduko zinemaldi garrantzitsuenetako bat da, eta guretzat, funtsezkoa da. Aurreko lanetan estrategikoa izan da, eta hemen hasi dugu gure pelikulen lasterketa. Gure filmak ez dira handiak eta horrelako zinema-jaialdi bat etxean izatea luxua da. Jende asko etortzen da eta hemen erlazio oparoak egin ditugu.

Euskaldunak kontziente gara Zinemaldiak duen garrantziak?

Asier Altuna: Nik baietz uste dut. Zinemaldia beti goraka joan da eta A+ maila horrek oihartzun handiagoa izaten laguntzen dio. **Beti esan ohi da euskal zinemaren egoera ez dela ona. Zer falta du industriari?**

Arregi: Nire ustez, egoera ez da horren txarra. Egia da hobeto egon gintezkeela, baina tira... Sortzaileek, ekoizleek, erakundeek... zinemagintza hauspotzea lortu dute. Lehen mugarrira *Aupa*

Etxebeste! izan zen, eta hortik aurrera film ugari etorri dira, oso desberdinak elkarren artean, eta horrek sektorea indartu du. Ikuslea ere ongi egin dagoen gauza bat ikustera ohitu da eta jendea ez da militantzia hutsagatik joaten zinemara.

Eta jendeak badaki zenbat lan egin duzuen euskal zinemaren alde?

Altuna: Sekula ez dugu konplexurik izan eta gure helburua zinema ona egitea izan da, eta egun, bide berean jarraitzen dugu. Egoera aldatu egin da, teknikari familia potentzia izatea lortu dugu eta pelikula bakoitzarekin pauso bat gehiago ematen dugu. Ibilbide horretan, *Handia* aipatuko nuke; duela urte batzuk, pentsaezina zen horrelako aurrekontu eta efektuak izan zituen film bat egitea. Film bakoitzak ate berri bat zabaltzen du eta gazteak ere indartsu datoz. Lan egiten dugun heinean, film berriak eta arrakastatsuek egingo ditugu.

Jaialdia profesional ala ikusle bezala ezagutu duzue?

Altuna: Ikusle moduan ezagutu nuen Zinemaldia, Andoaingo zinema eskolan nengoela etortzen nintzen. Zinema asko ikusitakoa naiz eta Zinemaldiak film zaharrez edo areto komertzialetara iritsiko ez diren filmez gozatze-ko aukera eman dit.

Gaur egun, Zinemaldiaz gozatzeko aukerarik izaten duzue?

Arregi: Jende asko aste pare bat lehenago guztia antolatzen hasten da, baina nik ez dut horrelakorik egiten, sorpresarekin

jolastea gustatzen zait. Nire ustez, Zinemaldia da film batek aho zabalik utziko zaituen toki bakarrenetako bat.

Mitorik ezagutu duzue hemen?

Altuna: Holako gauza kuriosoak gertatzen dira. Politika da horrelako gauzak era naturalean bizitzea, ondoko mahai batean aktore ezagun bat izatea...

Duela bi urte jaialdian izandako arrakastak lagundu ala presioa jartzen dizue?

Arregi: Zinemaldia ezagutzen dugu, eta horrek lagundu egiten du. Egia da oraindik ez dakigula filmak zein harrera izango

duen eta bizirik ala indartuta irtengo den, baina, momentuz, lasai gaude. Badakit estreinaldi eguna gerturatzen den heinean urduriago egongo naizela, baina, momentuz, animoso eta ilusio- natuta nago.

Aurten ere estreinaldian Zinemaldia hankaz gora jartzeko prest?

Altuna: Ez dut gai hori lantzeko astirik izan, baina filma asteartean estreinatzen da, eta ostiralean areto guztietan egongo dela kontuan izanda... Nik uste dut zarata handia ateratzea komeni zaigula. Dena den, gure helburua jendearengana iristea eta ikusleek filmarekin ongi pasatzea da.

Zer dute etxebestetarrek istorioari bigarren zati bat egiteko?

Altuna: Lehenengo filmak izandako arrakastaren ondorioz etorri da bigarren zati hau. *Aupa Etxebeste!* estreinatu eta gutxira, ekoizleek bigarren zati bat egiteko eskatu ziguten, baina beste proiektu batzuk garatzeko asmoa genuen. Eta orain, hamalau urte geroago, istorioa berreskuratu dugu Telmo eta biok. Erroka polita izan da eta gidoia idazteko orduan asko gozatu dugu.

Bigarrenarekin, presio handia izan duzue?

Altuna: Apustua pelikula ona egitea zen, eta bai, presio apur bat izan dugu. Baina prozesuaz asko gozatu dugu eta urteekin hartutako esperientziak asko lagundu digu. Istorioarekin as-

matzea izan da konplexuena, uste baino gehiago kostatzen zaitzun hori.

Hamalau urte hauetan, zenbat gauza aldatu dira etxebestetarrenean?

Altuna: Sakonean, ezer ez. Euren berdina jarraitzen dute, betiko maniekina eta ezaugarriekin. Urteak pasatu arren, gauzak ez dira beti horrenbeste aldatzen.

Nolako izan da Antonio de la Torre eta Belen Cuestarekin lan egitea?

Arregi: Biak goi-mailako aktoreak dira, eta, aldi berean, oso ezberdinak. Aktore horiek aukeratu izana filmarendako oso ona izan dela uste dut, eta nik, era berean, asko ikasi dut eurenkin. Ezberdinak dira, baina, oso: Antonio oso sentikorra da, eta barrutik atera behar diozu guztia. Belen, aldiz, beste eskola batekoa da, etxetik lanak eginda ekartzea atsegin du. Biek perfekzioa zuten helburu, eta filmean bikain azaltzen dira.

Eta hiru zuzendari izatea?

Arregi: Kanpotik ikusita, oso zaila izango dela ematen du, baina gure lan egiteko era da hori. *Handia* filmean, Jon eta biok ginen zuzendari, baina Jose Mari oso presente egon zen. *Loreak*-en ere antzerako zerbait egin genuen. Filma bik edo hiruk sinatu arren, lana talde guztiaren artean egiten dugu; hortaz, ez da salto handia izan. Errodejera bi zatitan egin genuen, eta lehenengoan Jose Mari eta biok geunden *set*-ean eta Jon editatzen, eta bigarren

New Yorkeko neo-burleskoaren alde guztiak

Glittering Misfits Iban del Camporen lehen film luzea da. "Aurreko lanak ez zidan gaia behar bezala lantzen utzi", kontatu du zuzendariak. Duela hamar urte, New Yorkeko kabaret artista *performer*-ekin *Dirty Martini* dokumental laburrean zirriborratutako gaia sakonago lantzeko aukera izan du, dokumental luzean.

Bigarren lan honetan, 90eko hamarkadan New Yorken eztanda egin zuen burleskoa da protagonista.

'B alde', argitara

Broadwayko fokuetatik at dagoen zirkuitu hau erakustea "lan izugarria" izan dela aitortu du arrasatearrak. New Yorkeko



Iban del Campo zinegilea. GOIENA

off-off *night club* eta kabaretak esploratzeko bidaia korapilatsuan, *Glittering Misfits* ez da azalean geratu eta eguneroko intimitate eta borroka argi azaltzen ditu. 20

urte bete dituen neo-burlesko fenomenoaren figurak, erreferenteak eta errealitatea ulertzeko lana da.

Estreinaldia, domekan

Arrasatearrak domekan erakutsiko du estreinakoz bere lana. Principe zinemaren, 20:45ean. "Filmak Euskal Herrian eta nazioartean harrera ona izatea espero dut", aitortu du. Zinemaldia pelikula honen lehen geltokia izango da eta zinemagilearen helburua argia da: "Hurrengo filma askatasun nahikoarekin egiteko tokian jartzea espero dut".

Del Camporen lana Zinemira sailaren parte da; hortaz, Irizar saria lortzeko lehiaketan dago.



Aitor Arregi eta Asier Altuna zinegileak Kursaal kanpoan berbetan. NEKANE MUÑOZ

zation, Jonek eta biok lana trukatzen genuen. Nekatuta bukatu dugun arren, emaitzarekin pozik gaude.

Espainiako gerra askotan landu izan da; zein da *La trinchera infinita*-k ekarriko duen berritasuna?

Arregi: Kontakizuna gerra zibilean hasten da, baina istorioa 33 urte geroago bukatzen da. *La trinchera infinita*-n gerraostea, diktadura... gauza asko jorratzen dira, eta horrek ezberdintzen gaitu. Dena den, gerra zibila oso anitza da eta bertan mila istorio daude; momentuz, azala baino ez da erakutsi. Gainera, ez da horrenbestetan jorratu, eta ziur nago "gerra zibila berriro" bezalako komentarioak egiten dituztenak ez direla zinera askotan gerturatzen. Bigarren mundu gerrari buruz film gehiago egin izan dira eta ez du inork ezer esaten.

Politika dagoen moduan ikusita, zuen gidoia luze edo motz geratu dela uste duzu?

Altuna: Politika gauza bat da eta pelikula beste bat. Guk barre egiten diogu gure buruari, herriek aldaketek dieten beldurrei... Aurreko filmean bezala, *Agur*, *Etxebeste!* filmak gure herria islatzen du.

Zein zinema generotan moldatzen zara ondoen?

Altuna: Proiektu bakoitza erronka bat da, eta istorio bat sortzea beti da polita, nire ustez. Pelikula serio edo poetikoetan hobeto pasatzen dut nik, prozesu guztian askatasun handiagoa izaten dudalako.

"SEKULA EZ DUGU KONPLEXURIK IZAN ETA GURE HELBURUA ZINE ONA EGITEA DA"

ASIER ALTUNA, ZINEGILEA

"AURREKO LANETAN ESTRATEGIKOA IZAN DA ZINEMALDIA GURETZAKO"

AITOR ARREGI, ZINEGILEA

Pare bat gomendio

Zinemaldiko izar gehienak Maria Cristina hotelera iristen dira, eta han artista askorekin topo egiteko aukera izaten da.

Arriskatu ezazu! Zinema aretoetara iritsiko ez den harribitxi ezezagun bat aukeratu eta gozatu. Zinemaldiak proiektioaren egunean film guztien sarreraren %10 salgai jartzen ditu;

Sansebastianfestival.com atarian eskura daitezke. Gogoan izan saio bakoitzeko, gehienez, lau sarrera eros ditzakeela pertsona bakoitzak.

Zinemaldiko sail ezberdinetan egon arren, Irizar saria lortzeko lehian zaudete biak. Arerio ala lagun?

Arregi: Lagunak. Bi filmak toki berean editatu ditugu, metro gutxira eta garai berean. Bizikidetasun polita izan dugu prozesu horretan.

Altuna: Arerioak? Ezer gutxi dugu egiteko! [Barreak] Lehia hor dago, baina ez diogu kasu handirik egiten. Garrantzitsuna da pelikulak jendearengana iristea eta hemendik indartuta irteeta.

Ikusi duzue bestearen lana?

Altuna: Muntaketa ia talde berearekin eta toki berean egiten geundela kontuan izanda, batak bestearen filma ikusteko geratu ginen, baina ez da hala gertatu.

Arregi: Eta Zinemaldia bertan zegoela kontuan izanda, ordu-rako utzi dugu hitzordua.

Eta Zinemaldiaren ostean zer?

Arregi: Ikusi beharko dugu nola iriteten den filma, indartuta edo egurtuta. Estreinaldira begira egongo gara gero, filma urriaren 31n egongo da eta areto komertzialetan. Ondoren, beste zinemaldi batzuetan erakutsiko dugu, eta, telebista eskubideengatik, bere ibilbidea aurreko filmarena baino motzagoa izango da, baina diru hori beharrezkoa izan da *La trinchera infinita* egin ahal izateko.

Altuna: *Agur*, *Etxebeste!*-ren helburua publikoa erakartzea; izan ere, datorren egubakoitzean, zinema areto komertzialetan egongo da. Horren aurretik, eguaztenean, Bergaran izango gara Telmo eta biok filma aurkezteko. Hortik aurrera? Ba, jendeak filma gustuko izatea eta, lehen filmarekin gertatu zen bezala, honek ere ibilbide oparoa izatea nahiko nuke.

Hasi zarete hurrengo proiektuan pentsatzen?

Arregi: Poliki joateko asmoa dugu. Lau urtez gelditu gabe aritu gara, *Handia* eta *La trinchera infinita* jarraian egin ditugu. Egia da mahai gainean proiektu batzuk ditugula, eta horietako bat nahiko garatua dagoela, baina, oraingoz, ez dugu ezer finkorik zehaztuta.

Altuna: Pentsatzen baino gehiago, lanean nabil. Arzaki buruzko pelikula bat bukatzen ari naiz. Horrez gain, *Karme* izeneko fikziozko proiektu batekin ere banabil, Kirmen Uriberen azken eleberrian oinarrituta dagoena.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko irailako sariak!

Chromecast

Parte hartzeko sariaren izena: Chromecast



Sarrerak
Arrikruz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikruz

ARRIKRUZ
SARRERAK



Otarra
Bidezko merkataritzako produktuek.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremenda.org
Guztira: Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sonaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrez dagoen LOTO 15/1000 legeren arabera jeltzaritzen dituguzue datu pertsonalari Goiena Komunikazio Jeltzaritza Sareko automatizazio baten bidezkoak dira. Esku-biletza honen helburu bakarra da indarrez dagoen sustapena gaituzte. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, hainbat zuzentzeko edo kontrako helbide hurrelari datatze kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ZUMELAGA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntuak aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA Jate txerri
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.




Puntuak aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...



Bazkidetu zaituz 2019ko irailetik aurrera: 31€
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denek irabazle!


ESKER ONA



Antonio Barberan Ravancho

Pilar Cañamaqueren alarguna

2019ko irailaren 15ean hil zen, 90 urte zituela.



Zuk landutako lurrak goxo har zaitzala.

Eskerrik asko Antoniori agur esateko orduan, mila modutan, zuen berotasuna eskaini diguzuen guztioi.

Bide batez, Arrasateko Egoitzako langileei eskerrak eman nahi dizkizuegu gure senideari eskainitako arreta eta maitasunagatik.

Etxekoak.
Arrasaten, 2019ko irailaren 20an.

ESKER ONA

Jose Ramon Arambarri Riviere

2019ko abuztuaren 20an hil zen, 80 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


Gure ondotik joan zara baina betiko izango zaitugu gure artean.

Arrasaten, 2019ko irailaren 20an.

ESKER ONA

Pilar Ayastuy Arana


2019ko irailaren 17an hil zen, 88 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


Arrasaten, 2019ko irailaren 20an.

OROIGARRIA



Julian Uribeetxeberria Olalde

2019ko irailaren 12an hil zen, 65 urte zituela.




*Udazkeneko hego haizeaz
Hamaika amets buruan
Denok gustora egoten ginan
Garagaitzako bokuan
Une ederrak pasa genitun
Julian zure albu
Aurrerantzian ere gordeko
Zaitugu gure goguan.*

Olaldetar lehengusuak.
Oñatin, 2019ko irailaren 20an.

OROIGARRIA

Urko Egidazu Berrioategortua

2019ko irailaren 18an hil zen, 43 urte zituela.



Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko, gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko. Gure seme-alabek ez dituzte zure muxuak inoiz ahaztuko.

Plazako lagunak.
Elgetan, 2019ko irailaren 20an.

OROIGARRIA

Urko Egidazu Berrioategortua

2019ko irailaren 18an hil zen, 43 urte zituela.



*Bizikletan eta familia bueltan,
metal soinuei be pedalkada batzuk emanaz,
une ederrak laga dozkuzuz,
laztan haundi bat danon partez,
eta gero arte.*

Elgetako kuadrillia.
Elgetan, 2019ko irailaren 20an.

HILDAKOAK

- Angelita Urisabel Mecolalde.** Bergaran, 9an. 96 urte.
- Joxe Bixente Etxabe Arregi.** Arrasaten, irailaren 10ean. 97 urte.
- Kontxita Berezibar Garro.** Arrasaten, irailaren 10ean. 82 urte.
- Julian Uribeetxeberria Olalde.** Oñatin, 12an. 65 urte.
- Felix Juez Rubiales.** Arrasaten, irailaren 13an. 81 urte.
- Antonio Barberan Ravancho.** Arrasaten, 15ean. 90 urte.
- Felix Muñoz Muñoz.** Bergaran, irailaren 15ean. 75 urte.
- Maria Pilar Bikuña Igartua.** Oñatin, 15ean. 88 urte.
- Pilar Ayastuy Arana.** Arrasaten, irailaren 17an. 88 urte.
- Rufina Ugarte Mendizabal.** Arrasaten, 17an. 99 urte.
- Urko Egidazu Berrioategortua.** Elgetan, 18an. 43 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ	
Egubakoitza, 20	RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Zapatua, 21	ETXEBERRIA: Zaruagale kalea / 38 / 943 77 16 30
Domeka, 22	ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Astelehena, 23	M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Martitzena, 24	FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Eguaztena, 25	IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Eguena, 26	SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
BERGARA EGUNEZ	
Egubakoitza, 20	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Zapatua, 21	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Domeka, 22	ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Astelehena, 23	OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Martitzena, 24	ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Eguaztena, 25	MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguena, 26	URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
OÑATI EGUNEZ BAKARRIK	
Egubakoitza, 20	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05
Zapatua, 21	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05
Domeka, 22	GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05
Astelehena, 23	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 24	JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 25	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 26	ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2019ko abenduaren 31ra arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09	
BERGARA GAUEZ EGUNERO	
(22:00etatik 09:00etara)	2019 osoan:
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63	

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: Cof Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

ESKELA

Urko Egidazu Berrioategortua

2019ko irailaren 18an hil zen, 43 urte zituela.



Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.


Bergarako Oroilore tanatorioan agurtuko dugu gaur, barikua, irailak 20, 11:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era bitartean.

Bertaratuko zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Elgetan, 2019ko irailaren 20an.

OROIGARRIA

Urko Egidazu Berrioategortua

2019ko irailaren 18an hil zen, 43 urte zituela.




Beti izango zara gure oroimen eta bihotzetan.

Eñaut, Ainara, Irati eta Aimar.
Elgetan, 2019ko irailaren 20an.

URTEURRENA

Eduardo Celaya Cortabarría

2018ko abuztuaren 19an hil zen, 90 urte zituela.



Lehen urteurrenoko meza zapatuan izango da, irailaren 21ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Pentsamendu alaien bidez gogoratuko zaitugu, zu izan zaren bezala, gure bihotzean zaude, eta ez du ezerk aldatuko.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2019ko irailaren 20an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguru izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK



1. Saskibaloi taldeak, martxan
Bergarako hamaika taldeak aurreko domekan aurkeztu zituzten. Txapelketak hasteko prest daude jokalariek guztiak.

2. Urrezko ezteiak
Amparo eta Jose Luis arrasatearrek 50 urte bete zituzten ezkontuta hilaren 16an. "Familiaren partetik, zorionak, bikote!".

3. 50 urte elkarrekin
Arantxa eta Jesus Mari bergararrek urrezko ezteiak bete dituzte. "Zorionak, bikote, garmendiatar familia osoaren partetik!".

4. 55 urte ezkontuta
Jose eta Pilar zorioneko daude. "Zorionak, seme-alaben eta neben partetik! Eskerrik asko hor egoteagatik, denerako".

5. Zilarrezko ezteiak
Arrasateko Ana eta Roman 1994ko irailaren 17an ezkondu ziren. "25 urte betetzen diren honetan, zorionak, bikote!".

6. Bihar ezkontuko dira
Leire eta Xabi Oñatiko udaletxean ezkontuko dira. "Etxekoan, lagunaren eta kuadrillakoan partetik, ondo pasa Thailandia aldean!".

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



BERGARA
June Maiztegi Arruti
Irailaren 27an, 4 urte.
Zorionak eta urte askotarako, potxola! Muxu pilo bat familixakuen partetik eta primeran pasatu zure eguna!



ARAMAIO
Irune Arrizabalaga Gonzalez
Irailaren 25ean, 6 urte.
Zorionak, poxpolin! Ondo pasatu eguna. Familiako danon eta, batez ere, Markelen eta tia Eneritzen partetik. Muxu pilo bat, Bajondik!



BERGARA
Ibai Zaitegi Fernandez
Irailaren 24an, 6 urte.
Zorionak eta patxo potolo bat, maitxe zaitxugun danon partetik!



ARRASATE
Aritz Gartzia Dorrnsoro
Irailaren 24an, 7 urte.
Zorionak, maitia! Beti bezain polita zaude zure bihurritxo aurpegiarekin. Muxu potolo bat Shane eta familia osoaren partetik!



OÑATI
Maddi Lopez Inza
Irailaren 24an, 4 urte.
Zorionak eta urte askotarako, bihotza! Disfrutatu topera zeure eguna! Izugarri maitte zaitugunon partetik, mila kilo zorion!



OÑATI
Eider Arrizabalaga Madinagoitia
Irailaren 23an, 6 urte.
Zorionak, maitia. Ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu pila, familia danaren partetik. Asko maite zaitugu.




OÑATI
Haizea Amado Urkia
Irailaren 22an, 9 urte.
Zorionak, polit hori! Bederatzi urte. Ze handi zauzen. Muxu goxo eta besarkada handi bat, etxekoan partetik. Maite zaitugu!




ARRASATE
Ibai Ezkurra Iturbe
Irailaren 22an, 5 urte.
Ibaitxo maitia, zorionak! Heldu da eguna. Bost urte bete dittuzu, txapeldun. Asko disfrutakou ospakizunekin. Ondo pasatu!




ARETXABALETA
Laura Unanue Iturricastillo
Irailaren 22an, 22 urte.
Zorionak eta ondo pasatu eguna, zure familiaren eta Oscarren partetik.




ARRASATE
Elene Ormaetxea Artola
Irailaren 22an, 11 urte.
Zorionak, Elene! Ederto ospatu zure eguna eta segi oin arte moduko alai eta jator! Patxo asko, familia osoaren partetik!



ARRASATE
Aitzol Rodríguez Saldaña
Irailaren 21ean, 12 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure egunian eta patxo potolo bana, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Hegoa Etxagibel Etxebarria eta Maddi Etxagibel Ruidiaz
Irailaren 21ean, 3 urte eta 22an, 13 urte.
Zorionak, Hegoa eta Maddi. Eta muxu handi-handi bat, etxekoan partetik!



ARETXABALETA
Aner De la Torre Muñoz
Irailaren 20an, 5 urte.
Aitaxoren, amaxoaren eta Nahiaren partetik, zorionak! Asko maite zaitugu!



OÑATI
Iker eta Aimar Zabaleta
Irailaren 16an, Ikerrek 43 urte eta irailaren 20an, Aimarrek 7 urte.
Zorionak, bikote, eta ondo pasatu! Patxo handi bana, familia osoaren partetik.



BERGARA
Ega Zabala Pozo
Irailaren 18an, 4 urte.
Zorionak, printzesa! 3 eta gero! Etxekoan partetik, mua!



ARRASATE
Unax Rodriguez Saldaña
Irailaren 19an, 7 urte.
Ondo pasatu zure eguna eta patxo pila bat, etxekoan partetik.



ARRASATE
Nora Rueda Calleja
Irailaren 19an, 3 urte.
Zorionak, bihotza! Segi halako neskatila jator eta zorionsua izaten. Patxo asko, etxeko guztion partetik. Izugarri maite zaitugu!



ARRASATE
Oihan Arriaran Zubillaga
Irailaren 18an, 11 urte.
Zorionak! Disfrutatu zure eguna! Patxo handi bat.



OÑATI
Gari Palacin Errasti
Irailaren 18an, 5 urte.
Zorionak eta urte askotarako, Gari! Egun zoragarria pasa deizula. Mila kilo zorion, etxeko danon partetik!



OÑATI
Malen Salazar Guridi
Irailaren 18an, 12 urte.
Zorionak, polit hori, etxeko danon partetik. Izugarri maite zaitugu, Malen!



ARRASATE
June Canales Diez
Irailaren 18an, 11 urte.
Zorionak, printzesa! Primeran pasatu urtebetetze eguna. Muxu potolo bat, familia osoaren partetik. Ilargiraino eta buelta!




ARRASATE
Oihan Perez de Villarreal Perez
Irailaren 18an, 6 urte.
Zorionak, maitia! Ze azkar pasatzen den denbora. Sei urte jada! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat aitaren, amaren eta, bereziki, Laiaren partetik!



ELORRIO
Malen eta Oinatz Bergaretxe Garitaonandia
Malenek irailaren 18an, 6 urte eta Oinatzek abuztuaren 23an, 2 urte. Handitzen-handitzen... gure etxeko altxorrek eta maitasuna. Besarkada goxo bat, aitaren eta amaren partetik.




ARETXABALETA
Izaro Altube Uribe
Irailaren 17an, 7 urte.
Zorionak polit hori! Ederto pasatu eguna. Pila bat maite zaitugu.



ESKORITAZA
June Aguirre Gandarias
Irailaren 17an, 7 urte.
Zorionak, maitia. Asko maite zaitugu! Oso ondo pasatu zure egunian.



OÑATI
Xabat Samaniego Gonzalez
Irailaren 17an, 5 urte.
Zorionak, Xabat! Ze azkar pasatu dien bost urte. Jarraitu orain bezain zorionsu izaten. Muxu handi bat, etxeko danon partetik.




ARRASATE
Aratz Gorosabel Espinosa
Irailaren 16an, 16 urte.
Ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat. Zorionak!



OÑATI
Izar Aramburu Gende
Irailaren 16an, 3 urte.
Zorionak, Izar! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Patxo handi bat, familia osoaren partetik! Asko maite zaitugu!



ESKORITAZA
Gorka Cabañas Saldaña
Irailaren 14an, 7 urte.
Zorionak, txapeldun! Zelako handi egin zaren. Patxo handi bat Aitzolen eta Unaxen partetik.




ESKORITAZA
Hugo Cabañas Saldaña
Irailaren 14an, 7 urte.
Zorionak, Hugo! Ondo ospatu zure urtebetetzea. Muxu handi bat Aitzolen eta Unaxen partetik



OÑATI
Maialen Cortabarría
Irailaren 13an, 7 urte.
Zorionak, polita! Egun ederra pasatu familixa eta lagun artian. Maitte zaitugu!




ARETXABALETA
Urko Arkauz Vitoriano
Irailaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak, artista. Patxo handi bat. Danon partetik, ondo-ondo ospatu!



ARETXABALETA
Nikole Atxa Urrutia
Irailaren 14an, 3 urte.
Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian, txiki. Maitte zaitxugu!



ARETXABALETA
Luken Arrillaga
Irailaren 12an, 2 urte.
Zorionak, Lukentxo! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo bat, etxeko danon partetik. Pa!



ARRASATE
Ibai Rodriguez Baena
Irailaren 12an, 10 urte.
Zorionak etxeko nagusiari! Ondo pasatu zure eguna! Besarkada handi bat Jonen, Nahiaren eta familia osoaren partetik.



OÑATI
Helene Kortabarría Otxoa-Aizpurua
Abuztuaren 12an, 8 urte.
Zorionak, Helene! Ze ondo ospatu genuen zure eguna! Segi horren jatorra izaten! Patxo handi bat, danon partetik!



OÑATI
Noa Montero San Vicente
Irailaren 14an, 8 urte.
Zorionak, Noa, polit hori! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Patxo fuerte bat, etxeko danon partetik! Asko maite zaitugu!

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 20

OÑATI Odol ateratzea

Oporren osteko lehen deialdia.
Euskaldun Berria gelan, 17:00etan.

OÑATI Jabi Sound DJa

Erretiratuendako dantzaldia.
Pake Lekun, 18:00etan.

ESKORIATZA DBH-1ekoei ongietorri jaia

Merienda, musika eta jolasak.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ESKORIATZA Umeendako jolasak

Mugikortasun Astearen baitan.
Fernando Eskoriatza plazan, 17:30ean.

ARRASATE 'Itzuli barik' erakusketaren inaugurazioa

Alazne Zubizarretaren, Daniel Llariaren eta Natalia Suarezaren lanak. 19:00etan, bertso saioa: Miren Arregi, Miren Artetxe, Maddi Gallastegi eta Ane Zuazubiskar.
Kulturaten, 17:30ean.

OÑATI Herriko pilota txapelketa: finalerdiak

Gizonezkoen eta emakumezkoen mailetan.
Plazako frontoian, 18:00etan.

OÑATI Musika hezkuntza goiztiarra: ate irekiak

2 eta 3 urteko haurrendako eta euren gurasoendako.
Santa Anan, 18:00etan.

BERGARA Jabier Sagarazuren bilduma

Urriaren 6ra arte egongo da ikusgai, martitzenetik domekara.
Arozegin, 18:00etan.

ELGETA Intxortako Ahuntzak: aurkezpena

Elkarte berriaren aurkezpena.
Mendizaleen plazan, 19:00etan.

ARAMAIO 'Begiz jotako koplak' liburuaren aurkezpena

Alex Mendikuteraren argazkiak eta Manex Agirreren bertsoak biltzen dituen liburua. Egileak egongo dira ekitaldian.
Sastiñan, 19:30ean.

ZAPATUA 21

OÑATI Birzikleta azoka

Bizikletak, patineteak, kaskoak... erosteko aukera.
Foruen plazan, 09:00etan.

ARRASATE Elkartasun eguna

Egun osoan. Egitarau osoa hamargarren orrian.
Kalean eta tabernetan, 10:00etan.

ELGETA Baserritarren azoka

Herriko baserritarren eta artisauen postuak; 22. Intxortara igoera; haurrendako tirolina; eta Dunbots txaranga egongo dira.
Mendizaleen plazan, 10:00etan.

ARRASATE Auto klasikoen erakustaldia

11:00etan, ibilbidearen hasiera; 14:00etan, bazkaria; 17:00etan, Xabier Fernandez *Purito*-ri omenaldia; eta 17:30ean, sari banaketa.
Laubide plazan.

ARRASATE Bizikleta azoka

Paseoko bizikletak, tolesgarriak eta elektrikoak ikusteko eta probatzeko.
Udal azokan, 11:00etan.

OÑATI Iturri gorri elkartearen informazio mahaia

Leuzemiari, gaixotasun hematologikoei eta hezur-muinaren transplanteari buruzko informazioa.
Foruen plazan, 11:00etan.

OÑATI Oroitzapen jardunaldia

Oteiza eta Arantzazuko estatuarria erakusketaren gaineko mahai ingurua.
Gandiaga Topagunean, 11:00etan.

ARRASATE 'Mondragoe, Garibayren ikuspuntutik' bisita gidatua

Arrasate historikoa ezagutzeko aukera. Izena emateko: *Arrasate.eus/ezagutu*.
Herriko Plazan, 11:00etan.

ARETXABALETA Gazte Eguna

11:00etan, Ojala Zelaira martxa; 13:00etan, jolasak; 14:30ean, bazkaria; eta 18:30ean, jaitsiera musikatua.
Otala Zelain.

BERGARA 'Bergarako kortak' hitzaldia

Andoni Larrañagak egingo du berba.
San Juan auzoan, 11:00etan.

ARETXABALETA Tomatearen Astea: azoka

11:30ean, trebakuntza saioa Marc Badalekin; 12:00etan, erakusketa eta tomatearekin egindako salda hotzaren eta pintxoaren dastatzea; eta 14:00etan, sari banaketa.
Durana kalean.

OÑATI Espeleotxiki

6 urtetik gorakoendako eta euren gurasoendako ibilbidea. Izena, aurrez: 943-08 20 00.
Arrikutzen, 15:30ean.

ARRASATE Badminton maratona

Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

OÑATI Haurren danborrada

Musika Bandak lagunduta. Azken ekitaldia Foruen plazan egingo dute.
Santa Marina plazan, 18:00etan.

BERGARA 'Gitanas' emanaldia

Cristina del Barrio mezzosopranoaren eta Puerto Gonzalez pianistaren kontzertua. Debalde.
Mariaren Lagundian, 19:00etan.

OÑATI 'Saguzarrak, gaueko hegalarriak' ibilaldia

Parketxearen inguruetan egingo den ibilaldi txikiaren aurretik, Nerea Vallejok azalpenak emango ditu.
Parketxean, 19:00etan.

OÑATI 'Oroimenean' ikuskizuna

Hots abesbatzak eta Ganbera orkestrak Afagi elkartearekin elkarlanean egindako ikuskizuna.
Zubikoan, 22:00etan.

DOMEKA 22

ELGETA Mendi irteera Larranora

Larranora joango dira Kantsatzeke mendi taldekoak.
Mendizaleen plazan, 08:00etan.

BERGARA Mendi bizikleta martxa

Palmerakuak taldearen eskutik.
Agorrosinen, 09:00etan.



MANERASDEVIR.COM

OÑATI Parabellun eta Lokuria taldeak

Barakaldoko eta Oñatiko taldeek kontzertua egingo dute. Punk eta rock doinuekin girotuko dituzte zaleak. Parabellun 1985ean sortu zen. Lokuria talde gazteagoa da: 2015ekoa, hain justu ere, Sarrera, zortzi euro.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

BERGARA Xake txapelketa

Bergara Hiria txapelketa.
Agorrosinen, 09:00etan.

ESKORIATZA Bizikleta martxa

Eskoriatza-Aretxabaleta-Arrasate ibilbidea egingo dute, Mugikortasun Astearen baitan.
Fernando Eskoriatza plazan, 10:00etan.

ARAMAIO Sagardo eguna

Goizean zehar, herriko sagardoa eta zukua dastatzeko eta taloak eta pintxoak jateko aukera; 13:00etan, txotx irekiera Aitor Ugarterekin; eta 13:15ean, sagar dantza.
Bizente Goikoetxea plazan, 10:00etan.

OÑATI Nazioarteko artzain-txakur txapelketa

Hamahiru artzainek parte hartuko dute.
Santa Lutzian, 10:30ean.

ARETXABALETA Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoak

Txirinbolo ikuskizuna egingo dute, umeendako. Sarrerak, hiru euro.
Arkupen, 17:00etan.

ARETXABALETA Erromeria erretiratuendako

Basotxo elkartearen eskutik.
Komentuko lorategian, 18:00etan.

ARRASATE Sukaldaritza: pintxo hotzak

Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ASTELEHENA 23

ARRASATE Literatura solasaldiak eta 'Literary gatherings': izen-ematea

Gaurtik aurrera eman daitezke izenak, euskarazko eta ingelesezko taldeetarako.
Bibliotekan, 09:00etatik aurrera.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plaza, 12:00etan.

OÑATI Aire zabaleko margo lehiaketako erakusketa

Gaurtik aurrera ikus daitezke XVII. lehiaketan parte hartu duten margolanak, urriaren 13ra arte.
Kultura etxean, 18:00etan.

OÑATI Helduen danborradako entsegua

Zapatuan, hilaren 28an, egingo dute danborrada.
Eltzian, 20:00etan.

MARTITZENA 24

OÑATI Bingo jokoa

Erretiratuendako. Irabazleendako sariak egongo dira.
Lagun Lekun, 17:00etan.

BERGARA Pilota txapelketako finalerdiak

Bergara Hiria txapelketako azken aurreko partiduak.
Pilotalekuan, 18:00etan.

OÑATI Jaietako dantza herrikoa: entsegua

Presoen alde dantza herrikoia eta erraz bat egingo dute, jaien hasieran egiteko.
Eltzian, 19:00etan.

ARETXABALETA Beinke-Loramendi dantza entsegua

Sanmigeletan dantzatzeko. Izena emateko bideak: *euskara@loramendielkartea.eus* eta 943-77 09 70 eta 685 75 67 29.

Kurtzebarriko gimnasioan, 19:00etan.

OÑATI 'Euskal Herriko foru erregimena' hitzaldia

EHUKO irakasle Jon Arrietak egingo du berba, Ana Mari Markuletak aurkeztuko duen ekitaldian.
Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA Sanmartinetako pintura erakusketa

Urriaren 3ra arte ikusgai.
Osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

EGUAZTENA 25**ELGETA 'Bidaiatu eskubideekin eta betebeharrekin' tailerra**

Erretiratuendako, Kontsumobideren eskutik, Begoña Olabarrietak gidatuta. Galderak egiteko aukera egongo da.
Udaletxean, 17:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka

Herriko baserriarren produktuak eta garaikoak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

ARETXABALETA Pinturako ikasleen bilduma

Hilaren 27ra arte ikusgai.
Arkupen, 18:00etan.

OÑATI Helduen danborradako entsegua

Zapatuan egingo dute danborrada.
Eltzian, 20:00etan.

BERGARA 'Aupa Etxebeste!' filma

Ostean, solasaldia, Asier Altunarekin eta Telmo Esnalekin. Sarrerak, bost euro.
Seminarixean, 20:30ean.

EGUENA 26**OÑATI Garbigune ibiltaria**

Herritarrek utzitako materiala jasoko dute.
Olakuan, 10:30ean.

BERGARA 'Bergarako kortak' hitzaldia

Andoni Larrañagak egingo du berba.
Angiozarren 18:30ean.

ARETXABALETA Beinke-Loramendi dantza entsegua

Sanmigeletako entsegu orokorra.
Herriko Plazan, 19:00etan.

OÑATI '1939ko Oñatiko ituna, lehen karlistadan' antzezlan

Olaitturri elkarteaz azken lana. Beste emanaldi bat egingo dute hilaren 29an. Sarrerak, salgai, Txokolateixan.
Santa Anan, 19:00etan.

ESKORIATZA Ostegun Bidaiariak: 'Uda Andeetan. Mendozatik Patagoniara'

2018ko Gabonetan egin zuten hilabete eta erdiko bidaia Beñat Arrietak eta Unai Jimenezek, Txilen. Irudietan erakutsiko dituzte han ikusitakoak.
Zaldibar antzokian, 21:00etan.

EGUBAKOITZA 27

BERGARA Haurrendako jolasak
Jardunen eskutik, Kultura Kalera ekimenaren baitan.
San Martin plazan, 17:00etan.

ARETXABALETA Sanmigelak

19:00etan, Bergarako eta Aretxabaleto erraldoiak; 21:00etan, kantu-afaria; eta 22:00etan, Oihan Vegarekin disko-festa.
Aretxabaletan.

BERGARA Bergarako Orkestra Sinfonikoaren entsegu irekia

Kultura Kalera ekimenaren baitan.
Musika eskolan, 20:30ean.

OÑATI Su Ta Gar taldea

San Migel jaietako kontzertua egingo dute. Debalde.
Foruen plazan, 23:00etan.

ZINEMA**ARRASATE**

Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

AMAIA ANTZOKIA

Erase una vez en Hollywood
Zapatua eta domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Mascotas 2
Zapatua eta domeka: 21:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere
Egubakoitzetik zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

EIBAR**COLISEO**

Ad astra
Zapatua eta domeka: 17:00.
Quien a hierro mata
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.
Anna
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.

ANTZOKIA

Toy story
Zapatua eta domeka: 17:00.

Ad astra
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ**FLORIDA**

Ad astra
Egubakoitzetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Autorretrato
Egubakoitzetik domeka: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Dora y la ciudad perdida
Egubakoitzetik domeka: 16:20, 17:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30, 17:30.
Astelehena eta eguaztana: 18:00.
Martitzena eta eguena: 17:30.
Dpwton abbey

Egubakoitzetik, eta astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.

El rey leon
Zapatua eta domeka: 12:00.

Erase una vez en Hollywood
Egubakoitzetik domeka: 18:30.
Astelehenetik eguaztana: 17:30, 20:15.
Eguena: 17:00.

It
Eguenera: 21:30.

Litus
Eguenera, eguena izan ezik: 17:30, 22:30.
Eguena: 17:30.

Los años mas bellos de una vida
Egubakoitzetik domeka: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

Manou (euskara)
Egubakoitzetik domeka: 16:40, 18:30.
Zapatua eta domeka: 12:00,

16:40, 18:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Mascotas 2
Zapatua eta domeka: 12:00.

Padre no hay mas que uno
Egubakoitzetik domeka: 18:30, 20:30, 22:30.

Downton abbey
Eguenera, martitzena izan ezik: 14:00, 17:30, 20:00, 22:30.
Martitzena: 17:30, 20:00, 22:30.
Eguenera: 18:45, 21:15, 23:45.

Manou
Egubakoitzetik domeka: 12:15, 18:00.

Quien a hierro mata
Egubakoitzetik domeka: 18:20, 22:30.
Astelehena, eguaztana eta eguena: 17:00, 22:30.
Martitzena: 17:00.

Vitoria, 3 de marzo
Zapatua eta domeka: 12:00.

BOULEVARD

Ad astra
Zapatua eta domeka: 12:00, 14:30.

Eguenera: 17:00, 19:30, 22:00.
Egubakoitzetik zapatua: 00:30.
Eguenera, martitzena izan ezik: 13:15, 15:45, 18:15, 20:45, 23:25.
Martitzena: 20:45.

Quien a hierro mata
Eguenera, eguena izan ezik: 12:40, 15:50, 17:50.
Eguena: 15:50, 17:50.

Erase una vez en Hollywood
Eguenera, eguena izan ezik: 21:50, 23:45.

Mascotas 2
Zapatua eta domeka: 12:25.
Eguenera: 16:35, 19:35.

El rey leon
Zapatua eta domeka: 13:35.
Eguenera: 16:50.

Padre no hay mas que uno
Eguenera, eguena izan ezik: 12:40, 15:50, 17:50.
Eguena: 15:50, 17:50.

Quien a hierro mata
Eguenera: 19:55, 22:10.
Egubakoitzetik zapatua: 00:25.

Erase una vez en Hollywood
Eguenera, eguena izan ezik: 21:50, 23:45.

Mascotas 2
Zapatua eta domeka: 12:25.
Eguenera: 16:35, 19:35.

El rey leon
Zapatua eta domeka: 13:35.
Eguenera: 16:50.

Chicos buenos
Eguenera: 20:30, 22:25.

KRITIKA**Quien a hierro mata ★★★★★**

Zuz.: Paco Plaza. **Herr.:** Espainia (2019). **Aktoreak:** Luis Tosar, Xan Cejudo, Maria Vazquez. **Iraupena:** 107 minutu.

Gorrotoa: sentimendu suntsitzailea**ANTONIO ZABALA**

Quien a hierro mata paraleloan doazen bi istoriotan banatzen da. Istorio nagusiak egoitza batera doan narkotrafikatzaile baten eta han lan egiten duen erizain baten artean sortzen den harreman gatazkatsuak azaltzen du. Erizainaren anaia drogaren kalteagatik hil zen, eta erizainari aukera sortzen zaio duen mendeku gosea asetzeko. Bigarren istorioan, narkotrafikatzailearen eta negozio berean diharduten bere bi semeen arteko harremanak kokatzen dira. Aitarekin duten harremana ez da ona, eta gaizki ateratako negozio batek gauzak zailduko ditu.

Egia esateko, bigarren istorioa ez da interesgarriena. Bi semeak sartzen diren negozioa eta hauek dituzten arazoak eta pertsonaien erretratuak ez daude ondo landuta. Lehenengo



ELPAIS.COM

istorioak interes handiagoa du. Protagonista nagusia ezkondua dago eta aita izatekotan dago. Bizitza ondo bideratua duela, trafikatuaren agerraldiak hankaz gora jarriko ditu bere burua eta sentimenduak. Gorrotoa sentimendu suntsitzailea da. Tarte horretan mugitzen da pertsonaia, eta hor

dago filmaren interes nagusia. Tamalez, bigarren istorioak denbora kentzen dio lehenengoari, hauxe gehiago garatua izan dadin. Dena den, bi istorioak elkartu egiten dira; eta horrek aukera ematen dio zuzendariari bukaera harrigarria, bihurria eta indartsua lortzeko.



AZKEN BERBA

MIKEL IRIZAR

Sinfonia kooperatiboa

Ingeleskeriak aparte, ikuskizun bikaina izan zen Gasteizkoa. Jon Sarasuaren hitzak, adierazgarriak eta indar handikoak; Fernando Velazquezen musika, une oro egokia; Kukai taldekoen koreografiak, plastikoki ederrak; abesbatza erraldoia, energiak beteak; Staff eta Arteman enpresen ikus-entzunezko edukiak, zoragarriak; eta gainontzeko partaidetzak ere, maila berekoak. Are gehiago, osagai onez eraikitako mosaikoa izan zitekeena goi mailako produkzio trinkoa bihurtu zen, konpainia handiek berariaraz tularatzen dituztenen parekoa. Eta meritu handia da hori, kontuan izanik askoren arteko kooperazioan eta emanaldi bakarrerako sortu den ikuskizun batez ari garela.

Hunkituta irten nintzen kirol-aretoetik. Txalogarria iruditu zitzaidan garapen ekonomikoan zentratuta dagoen kooperatibagintzak kultur sorkuntzan halako apustua egin izana. Eta berehala bururatu zitzaidan galdera: zergatik ez du mugimenduak sistematikoki kultura eta garapen soziala sustatu? Nolatan ez du komunitatearen hazkundera elikatu, jakinda horrek mugimendua bera indartuko zuela? Denbora asko galdu da, baina ez da beranduegi. Ea Gasteizkoa ziabogaren sintoma den!

BUKATZEKO

Aretxabaletan girotutako nobela, idazten hastear

Marta Extramiana idazle gasteiztarra Aretxabaletan izan da asteon, prestatzen ari den nobelarako herria eta bertako historia ezagutzen. XIX. mendean girotuta egongo da istorioa, eta Gasteizen hasi eta Aretxabaletan garatuko da trama nagusia

Maialen Santos ARETXABALETA

1868. urteko Aretxabaletan girotutako detektibe-nobela idazteko asmoa du Extramianak datozen asteetan, eta misterioan oinarritutako liburua izango dela aurreratu du.

Istoria paperera eraman aurretik, "buruan duena osatzeko" eta herriko historiari buruzko "ezagutzak zabaltzeko", Aretxabaletara egin du bisita, eta garai hartako herriari buruzko informazio eta xehetasunak bertatik bertara ezagutu ditu Arkupe kultura etxeko Aitor Antxia Leturia historian adituaren laguntzarekin.

Idazleak adierazi duenez, istorioa berak sortua izango da, fikziozkoa, baina istorioaren parte izango diren herriko erai-kin eta pertsonaiak benetakoak izango dira.

Gasteizen hasi eta Aretxabaletan izango du jarraipena kontakizunak; garai hartan herrian kokatuta zegoen Otalorako bainuetxean, zehazki. Haren esanetan, "Aretxabaletan garatuko da istorioaren trama nagusia", baina gero, Gasteizera itzuliko dira protagonistak, eta, hain zuzen, han emango diote amaiera gorabeheraz jositako istorioari.



Marta Extramiana eta Aitor Antxia, Otalora zenaren etxe aurrean. MAIALEN SANTOS



Otalorako bainuetxea. ARETXABALETAKO UDAL ARGAZKI TALDEA

Mediku ospetsu baten istorioa
XIX. mendeko mediku ospetsu Geronimo Roure-ren eta bere familiaren istorioa kontatuko du nobelak. Umezaina eta familiako gurdizaina ere bidelagun izango dituzte, Extramianaren iritziz "paper garrantzitsua" jokatuko baitute rouretarren abenturan.

Familiaz lagunduta, bainuetxeke ur sulfurosoen, uretsaren, propietateak aztertzeraz etorriko da medikua Otorako bainuetxera. Gasteizen sortutako arazoak konpontzetik urrun, arazo handiagoetan murgilduko dira protagonistak, gainera.

Aurreko nobelen ildotik

Marta Extramianak Aretxabaletara egindako bisitan azaldu duenez, oraindik ezin du izenburuari buruzko daturik eman, eta argitalpen-data ere ez dago argi.

Halere, aurretik idatziko bi nobelen "ildo berekoa" izango da eskuartean duen hau. *Los archivos secretos del Ateneo: El caso de los amores proscritos* eta *Los archivos secretos del Ateneo: El caso de la patulea y un viaje a Paris* dira aurretik egindako lanak, hurrenez hurren.

Otalorako bainuetxea

1866. urtean, ur sulfurosoak aurkitu zituen Bernabe Maria Otalora izeneko gizonak Aretxabaletan. Ur haiei probetxua atara asmoz, Otalora izeneko bainuetxea zabaldu zuen herrian. Gehienbat, nobleziakoek eta goi mailako aberatsek bisitatzen zuten bainuetxea, bertako urak, besteak beste, azaleko gaitzak eta afekzio gastrointestinalak osatzen zituelakoan.

2mó/
graduatu, erreflexuen
aurkako lenteekin **99€**

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu gure webgunea gure negozioaren inguruan.
Ezingo dugu zure datuak ezpartatu ezaz.

Otalora Lizentziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIOPTICAS
lehenaz zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com